



Mendiaren Eguna
urtarrilaren 13an Beran

2018ko urtarrilaren 11 | XXXVIII. urtea | 701. zenbakia

Gehigarri berezia

Inauteriak → 27-34

IGANTZI → 15

Azken kantua eskaini du herriko abesbatzak

EZKURRA → 22

Migel Mindegari liburua eta omenaldia eskaini dizkiote

GOIZUETA → 35

Errefuxiatuak hizpide izanen dituzte ostiralean

BAZTAN → 41

Emakumezkoen frontenis txapelketa hastear



Baztandarrak eta kaxubiarrek auzolanean

ERREPORTAJEA → 4-5

Euskal Herriarekin, eta bereziki Baztan Ikastolarekin, izandako hiru urteko harremanari esker, lehendabiziko kaxubiera eskola sortu dute. Joan den urteko irailean zabaldu zuten eskola, eta

5 eta 12 urte bitarteko 29 ikaslerekin hasi zuten ikasturtea. Aurten, gainera, eskola publikoaren izaera lortu dute. Polonian eskualdeko hizkuntza gisa aitortua den bakarra da kaxubiera.

Euskal Nobela Beltzaren Astea ilbeltzaren 15etik 21era Baztanen

→ 39

Dani MARTIRENA | Legasar idazle eta kazetaria

«Gizarteak, sexuaren arabera, nortasunaren garapenari mugak paratzen dizkio»

Haur transexual baten amets eta nahien inguruan, *Jonek Jone izan nahi du* izeneko liburu ilustratua kaleratu du Dani Martirena legasar kazetari eta idazleak, Ana Ibañez ilustratzailearekin batera. Zakila duen neska bat da liburuko protagonista.

ELKARRIZKETA → 3



GIZARTEA → 24

Sagardotegi denboraldia ilbeltzaren 20an

Lesaka eta Lekarozko sagardotegiek ilbeltzaren 20an irekiko dituzte ateak. Bezperan, Berueteko sagardotegian emanen diote hasiera Nafarroako sagardo denboraldiari.

ZOKKETAK

→ 59



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58ra edo
idatzi **info@ttipi.eus**
helbidera.

IV. ARGAZKI LEHIAKETA erran.eus atarian

erran.eus
Mendialdeko Albisteak

Gaia: **ESKUALDEKO INAUTERIAK**



Informazio +
erran.eus



OINARRIAK

1. TTIPI-TTAPA eta XORROXIN zabaltzen diren eremuetan sortu edo bizi eta 16 urtetik goiti duen orok parte har dezake.
2. Argazkiak 2018ko inauterietan ateratakoak izan dira (argazkia non atera den zehaztu beharko da).
3. Argazkiak mugikor, tablet edo argazki kamerarekin ateratakoak izan daitezke, originalak eta bertze inon argitaratu gabeak. Koloretan edo zuri-beltzean aurkez litezke eta 300 px-ko bereizmena eta 28x16 zentimetroko gutxieneko tamaina izan beharko dute (baldintza hauek betetzen ez dituztenak baztertuko ditugu).
4. Argazkiak ERRAN.EUS artxiboan altxatuko ditugu eta guretzat gordeko dugu jasotako lanak publikatzeko eskubidea.

Argazkiak ERRAN.EUS atarian lehiaketarako pres-tatutako formularioaren bidez bidali beharko du parte-hartzaileak.

EPEAK:

- **Argazkiak bidaltzeko epea:** urtarrilaren 20tik martxoaren 15era.
- **ERRAN.EUSeko erabiltzaileen saria emateko bozketa fasea:** martxoaren 16tik apirilaren 3ra.
- **Irabazleak:** ERRAN.EUS atarian jakinaraziko ditugu apirilaren 6an.
- **Sari-banaketa:** apirilean.

Animatu!

SARIAK

EPAIMAHAIAREN SARIA:
NEKATUR BONO ORLEGIA
2 lagunendako 2 gau eta 2 gosari



**NEKATUR NEKAZALTURISMOA
ELKARTEA**
Tel: 943 327 090
www.nekatur.net



ERABILTZAILEEN SARIA:
ELGORRIAGAKO BAINUETXEAN
2 lagunendako zirkuitua + otordua



HOTEL BALNEARIO ELGORRIAGA
Errotaldea, Elgorriaga
Tel: 948 45 60 45
www.sanvirilahoteles.com/
hotel-balneario-elgorriaga/



PARTE-HARTZAILEEN ARTEAN:
LEGASAKO AROTXA JATETXEAN
2 lagunendako otordua



AROTXA JATETXEA
Sta Catalina, 34 Legasa
Tel: 948 456 100
arotxa.com



Batzuetan erreallitateari aurrez aurre begira eta berteetan fikziorako tartea eginez, kasu batean zein bertzean, hizkuntza du lanabes legasarrak. Kazetaritza ikasten ari zela litera-

tur lanak lehiaketetara aurkeztzen hasi zen. Batik bat, narrazio laburrak idatzi izan ditu, baina, Ana Ibañez emaztea lagun, bi album ilustratu ere argitaratu ditu: *Hankaz gora du*

amak mundua eta *Jonek Jone izan nahi du*. Azken lan horren berri emateaz gain, orain arteko ibilbidea eta etorkizuneko aurreikuspenak kontatu dizkigu Martirenak.

Dani Martirena | Legasar kazetari eta idazlea

«Irakurketa partekatuak gaiaz hausnartzeko bide eman dezake»

N. BAZTERRIKA | LEGASA

Noiz hasi zenuen ibilbide literarioa?

Idazten ez dakit baina lehiaketetan parte-hartzen unibertsitatean nengoe-la hasi nintzen: Basauriko Euskara bila euskara taldeak euskarazko literatura erotikoa sustatzeko antolatzen zuen lehiaketan, Iruñeako Udalak egile berriendako antolaturikoan... batean zein bertzean sariak irabazi izan ditut. Bereziki narrazio laburrak idatzi ditut baina orain hiru urte, emaztearekin batera, album ilustratuei heldu nion, *Hankaz gora du amak munduan* arekin. Ustekabean literatura kritikari batek begiz jo zuen lana, Euskadi literaturako sarien artean finalisten artean izan zen.

Asteazken hark arrunta behar zuen narrazio historiko laburra...

Egile berrientzako literatur lehiaketako saria eman zidaten narrazio horrekin. Iruñean zeuden hainbat pertsonak ETA-ren atentatuaren berri nola izan zuten da kontagai. Garai hartan giroa izaki, telebista edo irrati, eguerdikoa albiste-gian jasotzen dute berria. Pertsonaiak independenteak izanagatik, hariikatzen duten gerta-kariak eta bitxikeriak dau-de.

Jonek Jone izan nahi du azken lana...

Izenburuak berak hain-



ARGAZKIA: KARLOS CORBELLA

Dani Martirena idazlea, Ana Ibañez ilustratzailearekin batera, azken liburuaren aurkezpenen.

bat kontu iradoki ditza-ke: nik ni izan nahi dut, Jonek Jone izan nahi du... baita Jon izena duen neska Jone izan nahi du ere. Azken hori da kasua, protagonista zakila duen neska baita. Abiapuntu haurrei maiz galdetzen zaien 'zer izan nahi duzu handitan?' galdere da. Jonek egun batean astronauta, bertze batean zoologiko bateko sukaldari, hurrengoan yoga irakasle edo margolari izan nahi du eta kasu bakoitzean izan nahi duen hori argudiatzen du. Horrela, haur guztiek, unibertsalki hartuz, dituzten gurari eta ametsak eta horien arrazoiak bildu nahi izan ditugu. Testuari kutsu mu-

TXANPONAREN BI ALDEAK

«Kostata eta sufrituz idazten ditut narrazioak. Album ilustratuak aiseago idatzia-gatik, laburtasunak hizkuntzarekin jolas-tea eskatzen du.

Baina bukatutakoan, sufrimendua gozamen bilakatzen da».

MUGAK

«Gizarteak, sexuaren arabera, nortasunaren garapenari mugak paratzen dizkio. Jarrera horiek antzuteko, askatasunean sinisten dugunon konprometzuak handiagoak izan behar dute».

sikatua emateko, erimak baliatu ditut. Hala, fonetikoki jostalaria da.

Irudi batek 11 hitzek baino gehiago balio du?

Bai halaxe da. Album ilustratua izaki, ilustrazioen menpeko dira testuak. Kasu honetan, Anak Jaunsaraseko Bentara indioilar bularkiak eramaten dituzteneko kartoi kutxak izan zituen inspirazio iturri. Kutxa bakoitza erakusleho bat bezala hartu zuen, eta erakusleho horretan elementuak sartuz osatu ditut ilustrazioak. Kartoiaren gainean margotu du batzuetan, josi bertzeetan... kutxari hiru dimentsio emateko helburuz. Idazleek irakurlea omen dute buruan...

Ettxeko haurrak genituen buruan hasi ginenean. Baina gauzak aunitz aldatu dira hasierako irudikapen hartatik. Lanetan hasi ginenean, Anaren asmoa kartoi gainean baina zuri-beltzez ilustratzea zen. Ondotik, gure semearen lagun bat neska zakilduna zela jakin genuen eta protagonistari izaera hori eman nahi izan genion. Horrek erotik aldatu zuen hasierako ideia: ilustrazioen koloreak abentura alaiari zegozkionak behar zuten, bolumenak ere hezurra eta haragia, kanpoa eta barrena... aldarrikatu behar zuen... Orduan aurkitu zuen kutxetan inspirazioa. Orain, bukatua dagoelarik, haur baten irakurketa, ziurrenik, fantasiaren, ametsen eta gogoen mailan geldituko litzateke. Helduek, berriz, guztia ulertuko lukete. Halere, maiz, gurasoek irakurtzen dizkiegu liburuak haurrei eta irakurketa partekatu horrekin nabardurak azaleratzeko eta gaiaz hausnartzeko bide eman dezake liburuak.

Baduzue etorkizunera-ko aurreikuspenik?

Baditugu ia-ia bukatuak dauden bi lan. Batamaitasun metaforen ingurukoa da, eta bertzea, berriz, umeek amaren tripata titira bitarte egiten duten lehen bidaia ardatz duena. Argitaratu edo ez denborak erranen du.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Maialen Sobrino, Garabide Elkarteko kide elizondarra, ezkerrean eta Miren Garmendia, Baztan Ikastolako irakaslea, eskuinean kaxubiera eskolan. Hango bi ikaslek Baztango bandera eskuetan dute.

GIZARTEA → HIZKUNTZA GUTITUAK

Baztan Ikastola kaxubiarren eskolaren bidelagun

Joan den urteko irailean ireki zuten eta aurten eskola publikoaren izaera lortu du

Euskal Herriarekin eta bereziki Baztan Ikastolarekin izandako hiru urteko harremanari esker, lehendabiziko aldiz, kaxubiera eskola sortu

dute. 5 eta 12 urte bitarteko 29 ikaslerekin hasi zuten ikasturtea. Polonian eskualdeko hizkuntza gisa aitortua den bakarra da kaxubiera.

G. PIKABEA

«Aita, zergatik ezin dut Baztango haurrek bezala, eskolan nire hizkuntzan ikasi?». Erik 10 urteko kaxubiarren hitzak dira. 2016an, Baztan Ikastola -ra egindako bisita baten ondotik, gurasoekin au-

toan zihoanean egin zuten. Bada, mutikoaren solas haiek erabakiorrak izandu ziren kaxubiarren eskola sortzeko.

Polonia iparraldeko Pomerania eskualdean bizi dira kaxubiarrek, eta hizkuntza propioa dute:

kaxubiera. 250.000 lagun inguru dira, eta horietatik 108.000 kaxubiera hiztunak dira: «hizkuntza eslabarra eta gutitua da, baina 2005az geroztik, eskualdeko hizkuntza gisa Polonian aitortua den bakarra da, nahiz eta bertze

batzuk ere solastu». Halaxe azaldu digu Maialen Sobrino elizondarrak, Garabide Elkarteko kide eta Baztan Ikastolako ikasle ohia denak.

Bera izan zen gaur egun kaxubiarrek Baztan Ikastolarekin duten hartu-emanak hasi zituena, 2015ean Baztan Ikastolak Nafarroa Oinez antolatu zuenean: «Nafarroa Oinez baita, urtero bezala, hizkuntza minorizatu bat aukeratu behar zuten Txikiak Handi proiekturako, ahal bazen bertako jendearekin lotura zue-na». Garai hartan, Maialen Polonian zen lanean, eta oportretan Elizondon zela probestuz, hango hizkuntza gutitu batekin harremanetan hasia proposatu zien. «Kaxubiarrek segidan erantzun zuten baietz». 2014ko azaroan egin zuen Kaxubiar lehendabiziko bi-daia eta «hor hasi ginen xehetasunak lotzen».

BAZTANERA BISITAN

Maialenekin batera, Miren Garmendia Baztan Ikastolako irakaslea ibili da kaxubiarrek kontaktuan, eta erran digutenez, 2015eko martxoan etorri ziren kaxubiarrek lehendabiziko aldiz Baztanera: «hainbat alorretako zazpi hizkuntzaekin -tzaile etorri ziren. Baztan bisitatu zuten, ikastola, eta Korrika akaberako bestara ere hurbildu ziren Bilbora». Korrika ezagutzeak eragin handia izan omen zuen beraien-gan: «etxera bueltan, ekimena etxekotu zuten. Iaz, kaxubiarren korrikaren bigarren edizioa egin zuten». Nafarroa Oinez Baztanen egin zenean berriz bueltatu ziren, eta 2016an ere bi aldiz izanduz ziren Euskal Herrian.

Bisita horietatik hartu zuten kaxubiera eskola zabaltzeko indarra. «2016ko abenduan, Anna, Artur eta Erik se-

mea gurean izandu ziren». Ordura arteko beraien esperientziak kontatu omen zizkieten baztandarrei, «hasmentako bisita horiez geroztik, lanean hasiak baitziren hainbatekimen martxan paratuz», diote Garmendiak eta Sobrinok. Egonaldi hartan ezagutu zituen Eriek Baztango haurrak, eta etxerako bidean galdetu omen zien gurasoei zergatik ezin zuen Baztango haurrek bezala, bere hizkuntzan ikasi: «galdera hark gurasoak hitzik gabe utzi zituen eta eskola sortzen hasteko behar zuten hondar indar hori eman zien».

29 IKASLE HASI DIRA

Joan den urteko irailen azabaldun zuten lehendabiziko kaxubiera eskola, Wejherowo hirian dagoen *Naja Szkoła* izeneko eskola. Inaugurazio eta irekiera egunetan izandu ziren Maialen Sobrino eta Miren Garmendia, eta onartu digutenez, «eskola jendez betea eta bizi-bizi ikusi genuen. Han egon ahal izatea guretako arras berezia eta hunkigarria izandu zen». Izan ere, «gure belaunaldiak Euskal Herrian beti aditu izan du nolakoa zen ikastolen sorrera, baina Kaxubian prozesua bertatik bertara bizitzeko aukera izan dugu: emozioa, beldurrak, harremanak, oztupoak...».

Bi baztandarren hitzetan, «pozik eta indartsu» hasi dute ibilbide berria kaxubiarrek eta orain arte



UTZITAKO ARGAZKIA

Kaxubiera eskolan informazio eta komunikazio teknologien aldeko apustua egin dute.

koaz, «arras balorazio positiboa» egin dute: «lehendabiziko ikasturte honetan, 5 eta 12 urte bitarteko 29 ikasle daude eskolan, eta irakasleak arront kontent daude kopuruarekin». Gainera, «apustu berezia egin dute orain arteko poloniar metodologia pedagogikoa aldatzeko», baita teknologiaren alde ere: «*chromecook* edo tabletak dira ikasleen egunerokoan lan egiteko materialik garrantzitsuenak. Berrikuntza garrantzitsuak dira eskolaren garapenerako».

Poloniar curriculumak ezartzen dituen ohiko arloak eskaintzen dituzte kaxubiarren eskolan: «horietatik erdia polonieraz eta bertze erdia kaxubieraz. Hori baita poloniar legeak orain ezartzen duen muga», diote Sobrinok eta Garmendiak. Baina kontatu dutenez,

«Lortu dugunak erakusten du ez garela sinistarazi nahi diguten bezain tikiak, elkarrekin gauza haundiak lortzeko gai garela».

Maialen SOBRINO eta

Miren GARMENDIA

Garabide Elkarteak kidea eta Baztan Ikastolako irakaslea

«kaxubierari gero eta toki haundiagoa eskaintzeko lanean ari dira. Gainera, irratsaioak prestatu eta astero tarte bat hartzen dute kaxubieraz dagoen irrati bakarrean parte hartzeko, Radio Kaszëbën».

Hasiera guztiak «gogorrek direla eta oraindik lan haundia egiten segitu beharko dutela» onartu arren, «bide onetik doazela» uste dute Garmendiak eta Sobrinok. Beraien irudiko, «duela 50 urte Euskal Herrian zegoen egoera orain kaxubiarrek dutenaren iduritsua da». Baina gisa berean, «oztopo guztiak, bertze aldeetik begirata, aukerak dira», diote: «lan egiteko gogotsu ikusi ditugu eskola hizkuntzaren biziberritzerako erdigunea izan dadin eta, hori da, gure ustez, eskola aitzinerat eramateko erronka ga-

EUSKAL HERRIA ETA POMERANIA

Euskal Herriarekin elkarlanean

Baztan Ikastolari esker eman zuten kaxubiarrek beraien eskola sortzeko pausoa, eta eskola martxan paratuta ere, oraindik harremanetan segitzen dute: proiektuak dituzte elkarrekin. Garabide Elkartea ere kaxubiarrekin lanean ari da. «Garabide Elkartean hizkuntza lankidetzara egiten dugu. Esperientzia-trukaketa sustatzen dugu jatorrizko hizkuntza-komunitateen artean, uste baitugu Euskal Herriak munduari emateko bereizgarria den zerbait badu, hori euskararen biziberritze prozesua dela», dio Sobrinok. Eta gaineratu digunez, «hizkuntza gutitu aunitz daude munduan euskara duela 50 urte zegoen egoera iduritsuan, eta gure ardura da esperientzia partekatzea, bertzeen esperientzietatik edanez, hizkuntza bakoitzak bere bidean aitzinera egin dezan». Hala, bertzeak bertze, eskolako materiala sortzen laguntzen ari dira: «ez dute kaxubieraz idatzitako material didaktiko aunitzik, eta Euskal Herrian badira horretan adituak eta arituak».

rrantzitsuenak». Aitzinera egiteko lagungarri izanzen duten bertze urrats bat ere eman dute hilabete honetan: eskola publikoaren izaera lortu dute eta «horrek ekonomikoki bideragarri izaten lagunduko die. Pedagogikoki esperientzia berritzailea da eta horrek kaxubiarrek ez ziren familiak ere hurbildu ditu eskolara. Aukera ona dute komunitatea sendotzeko».

Nola diren kontuak. Kaxubiera zer zen ez jakitetik, lehendabiziko kaxubiera eskola sortzeko erreferente izatera pasa-

tu da Baztan Ikastola. «Duela urte guti arte, kaxubiarren inguruko informaziorik ez genuen. Gure Nafarroa Oinezaren bidez, kaxubiarrek mapan kokatu eta elkarlanean hasi ginen. Hiru urte mantsoago, Txikiak Handikoek egindako lanaren emaitzetako bat hau izatea arras pozgarria da; hasieran imajinatzen ez genuen fruitua baita. Kontent gaude honek erakusten duelako ez garela sinistarazi nahi diguten bezain tikiak, elkarrekin gauzak haundiak lortzeko gai garela».



UTZITAKO ARGAZKIA

Kaxubiarren eskola.

**Nire txanda**

Koro IRAZOKI

Nobel Sari bat Euskal Herrira!

Arras bistakoa da, hala ere, nik orain ozenki erranen dut: Nobel saria hartzeko meritu aunitz daukaten *fenomeno* batzuk baditugu Euskal Herrian. Pertsona horiek olerkiak egiten dizute, kantak konposatzen dituzte, filosofia ttantak botatzen dituzte, eta umore kolpe politak sortzen dituzte. Baina meritoa ez da horretan bakarrik. Olerkiak, kantak, umorea edo filosofia edozeinek sortzen ahal ditu... Ez, ez. Meritoa bertze bat da: guzti hori dena batera egiten dutela, eta izugarri ongi egiten dutela, eta bapatean egiten dutela, eta milaka jenderen aintzinean egiten dutela! Horixe da, bai, asmatu duzue: bertsolariei buruz ari naiz. Hitzekin ia-ia *magia* egiten duten horiek (magoek txapel batetik lapin bat ateratzen duten gisan, hauek beren ahotik *bitxiak* botatzen dituzte). Hain fama handia daukaten Nobel sariak, prestigio handiko lanak egiten dituzten pertsonak ezagutzera ematen dituzte. Zoritarrez, bertsolariek egiten duten lana biltzen duen atalik ez daukate, beraz, Suediako Akademiari haxe proposatzen diot: heldu den urterako Nobel sarien lehiaketan, bertze sari bat sortzea: bertsolaritzarako. Maialen Lujanbio txapeldun izan genuen. Ea laister Nobeldun ikusten dugun!

Ezpala

Aitor AROTZENA

Euskaldunon lan astea

Abendu hasierako zubietan aditu edo leitu dut norbaiten proposamena: aste tartean suertatzen diren jai-egunetako zubiak aste hasiera edo bukaerara biltzea, hainbertze lan-egun ez galtzeko. Nik, bertze proposamen bat eginen nuke, Euskal Herriak Mundura! Izan ere, euskara aberatsa eta jakintsua da: Aste-**lehena**, aste-**artea** eta aste-**azkena** lanerako. Bertze lau egunak asteburu! (ez da zeri!)

Nabarmentzekoak

**Karmen MARIEZKURRENA**
Zilarrezko Titarea

Duela 67 urte Zubietako Andresenean sortutako emakumeak jaso zuen Santa Luzia egunean Doneztebeko Udalak emandako Zilarrezko Titarea. Kristina Errorekin ikasi zuen lanbidea.

**Maria Eugenia CAMPO**
Gizarte Zerbitzuei saria

Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileei eskainitako arretaren saria jaso du Bortzirietako Manko-omunitateak, Lesakako emakume honen iniziatibak daraman MEC proiektua garatzeagatik.

**Manex LANDA**
Langile autonomoei saria

Gobernuak langile autonomoei emandako sariaren artean, desgaitasuna duten pertsonen enpresa esperientzia onenarena jaso du lesakarrak Orkin tailerrean egiten duen lanarengatik.

Atzera begira → 2008-I-3 • TTIPI-TTAPA 461. zk



Nafarroako oilagor ehiza txapelketan irabazle sunbildarrak

Hilabete batzuk lehenago, Nafarroako oilagor ehiza txapelketan irabazle suertatu zen Aitor Apeztegia Bertiz sunbildarra elkarrizketatu zuen Ttipi-Ttapa, 2008. urteko lehen aldizkarian. Merituak 'Simba' setter zakurrarekin banatu behar zituela argi zuen Olegikoak: «Ez dakit bakoitzak zer zati dugun, baina zakurrak aunitz, hondarrean ez baduzu zakurrik, ez da oilagorik eta bere meritua eman behar zaio». Txapelketa non jokatu behar den ere kontuan hartzekoa dela aipatu zigun Apeztegiak: «Bagadian bertze zakurrek ere balio dute, baina ezpeldegian lana ongi egiten duen Simba bezalako zakurra behar da».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 635458 • Faxa (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola, Nerea Bazterrika **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Iruñe Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Guerdian, Martin Bertiz, Martin Larrañe, Juan Mari Barriola, Irigo Imaz, Marga Erdosain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde.

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztegia **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

2017ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leizta	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria, Europa	75€
Amerika eta Australia	130€



Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua



Kolaborazioak

Emandako hizkuntza

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Eta ez bazituzten indiarrek sarraskitu, meatzeetan eskla-boak eta etxeetan morroiak behar zituztelako izan zen. Ordainetan, hori bai, hizkuntza eder eta unibertsal bat jaso zuten". Arturo Perez Reverte idazle espainiarrak idatzi zuen hori 2009an argitaratutako artikulu batean. Latinoamerikatik Espainiara joandako migratzaileei buruz idatzi zuen, eta Espainiaren kolonialismoaren errepaso bat egin zuen artikuluan. Bere erara. "Orain etorkizun baten bila heldu dira, eman zitzaizkien hizkuntzak eta inposatu zitzaizkien erlijioak ekartzen dituzten toki naturalera". Bai, Espainiak erlijioa "inposatu" egin zien Amerikako indigenei, baina hizkuntza, nonbait, "eman". Iduri duenez, indigenak mutuak izanzen ziren gaztelarrak ailegatu aitzinetik, eta kanpoko norbaitek hizkuntzaren bat emateko esperoan egonzen ziren. Perez Revertetek artikulu horretan errandakoek ongi laburbiltzen dute nazionalista espainolen pentsaera. Eta ez da Amerikara joan beharrik hori konprobatzeko, European menpean dituzten herrietan ere berdin jokatzeko baitute. Estatu baten botere militarra eta politikoak eman dio gaztelaniari gaur egun duen nagusitasun estatusa, ez berte deusek. Nazionalismo espainolak, ordea, gaztelania normaltasunaren eta unibertsaltasunaren adierazletzat aurkeztu du, eta normala da hori egitea, nazionalismo espainolaren izateko arrazoi nagusietako bat baita berte hizkuntzak eta kulturak desagerrarazten saiatzea. Okerrena da, duen boterearengatik eta eraginarengatik berte hizkuntzen hiztunengan ere gaztelaniarekiko dependentzia sentimendu bat sortzen digula. Euskaldun guziok guttienean elebidunak gara; Hegoaldekoak, euskara-gaztelania elebidunak. Erdaldun aunitzek goraiatzeko dute gure elebitasuna, eta euskaldun aunitzek ere zorteko sentitzen dute haien burua gaztelania jakiteagatik. Pribilegiatu moduko zerbait sentiarazten gaituzte aunitzetan, baina pentsaera horrek guziak oinarri faltsuak ditu. Zehazki, dominazioaren oinarriak dauzka. Gure buruari egin ohi diogun galdera da zer bada garen euskaldun: herri euskaldun batean jaio ginelako, etxean beti egin dugulako, ama edo aita euskalduna dugulako, ikastolan ikasi dugulako... Baina ez da hori gure buruari egin beharko geniokeen galdera. Galdetu beharko genioke ea zer bada dakigun gaztelaniatz. Eta erantzuna bilatuz, agian, ondorioztatuko genuke hizkuntza hori jakiteko betebeharrak legala dugula, eta ez, ordea, euskara jakiteko betebeharrak legala. Eta ondorioztatuko genuke gure elebitasuna goraiatzeko duten elebarrak horiek praktikan lasai bizi litezkeela, haiek aukera baitute haien hizkuntza exijitzeko bertzei, eta segurtasuna baitute bertzeek bai edo bai gaztelania jakinen dutelako, horretara behartuta daudelako. Euskaldun aunitzei etsipena eragin ohi die horrek, "egia da, denok dakigu gaztelaniatz, zertarako nekatu euskararekin". Euskara utopiaren, desioen eta folkloreaken munduan kokatzen du nazionalismo espainolak; gaztelania, berriz, errealtatea eta errealismoa da. Baina hor ez dago ez berdintasunik, ez justiziarik, ez legitimotasunik. Hori dominazioa da, eta Espainiak horretarako "eman" zizkion bere hizkuntza. Dominazioarekin bi gauza bakarrik egin litezke: aitzin egin, edo amore eman.

Manex eta habiak

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Udaberri aldean, Manexek, eskolara joan eta itzultzen bitartean, bere ibilbidea gauza ugari egiteko aprobetxatzen zuen. Haietako bat habiak bilatzea izaten zen. Joan-etorri haietan mota askotako habiak aurkitzen zituen gainera. Baina, gaztetxoa ez zen horrekin konformatzen, ez, aurkitu eta ikusteaz gain gogoko izaten baitzuen topatutako habiaren jarraipen xehea egitea, hau da, esate baterako, habia nolakoa zen, arrautzak zein koloretakoak ziren, txorikumeek zer itxura zuten, zenbat ziren, zenbat denbora kostatzen zitzaizkien haztea eta hegaldatzea...; hori guztia jakitea gustatzen zitzaion. Hala ere, ez dezagun pentsa lan hura erraza zela, zeren eta habiak oso leku ezberdinetan egon ahal baitziren (...). Beraz, denek ez zuten erraztasun berbera behatuak gertatu ahal izateko. Hortaz, bada, kuxkuxean aritzeko erraz samarrak ziren habia haiekin saiatu egin behar. Gauzak horrela, udaberriko egun batean, baserritar txikiak, eskolarako bidean, zozo habia bat topatu zuen. Ederra zen: ongi ehundua eta polit apaindua. Hesi baten adar batzuen artean zegoen, ikusteko erraz samarra. Hurbildu zenean, zozoak izututa alde egin zuen, ziztu bizian. Lau arrautza eder ikusi zituen; argiak. Bitartean, habiaren jabeak, emea eta arra, hantxe zebiltzan, inguruan, urduri, beren arbuioa adierazten eta mutikoa uxatu nahian. Hurrengo asteetan ere antzeko moduan aritu zen mutikoa, kuxkuxean, txorikumeak noiz jaiotzen ziren ikusteko. Baina, zozo amak eta aitak ere inguru haietan jarraitzen zuten. Denborak aurrera egin zuen, baina, mutikoak, ez zuen inolako aldaketarik sumatzen; berantetsia zegoen. Gai hari susmo txarra hartu zion; hura ezin zela logikoa izan pentsatzen hasita zegoen, ezta normala ere. Egunka joan, egunka etorri, eta txorikumeak ez ziren jaiotzen. Beste alde batetik ere, ordurako Manex ohartuta zegoen, jadanik ez zituela topatzen zozo ama eta aita. Harrituta zegoen. Azkenik, jarratsalde batean, eskolatik etxerako bidean, Manexek habiatik arrautza bat lapurtu eta ikertu nahi izan zuen, zer gertatzen zen zorioneko arrautza haiekin jakiteko. Azala kontu handiz kraskatu eta barruan zer zeukan arakatzen hasi zen; agian txorikumea jaiotzearen egonen zen. Egia esateko, mutikoak ez zekien zehazki zozoek zenbat egun behar izaten zituzten arrautzak txitatze, baina, bere ustez, dagoeneko egun gehiegi zeramatzatzen habian kumeak jaio gabe, gauza onerako. Segituan, sekulako kiratsa sumatu zuen. Zalantzarik gabe, arrautza hura zeharo ustelduta zegoen. Gauza bera gertatu zitzaion bigarren, hirugarren eta laugarren arrautzarekin ere. Baserrira iritsi zenean, anaia zaharrenari gertatutakoa kontatu eta orduan ulertu zuen zer pasatu zen, anaiak dena zehaztasunez kontatu zionean, alegia, hegazti askok, kuxkuxean oso zirikatua eta miatuak sentitzen baldin badira, orduan habia zapuztu egiten dutela, hau da, bertan beheara utzi betiko, eta, huraxe izan zen Manexen habian ere gertatu zena. Ordu-ra arte ez zekien horren berririk, baina handik aurrera, go-goan oso ongi hartu zuen zirikatze haien arriskua. Beste porrot txiki bat gehiago gure protagonista saiatuarentzat.



Irakurleak mintzo

Baztango Haur Eskolara bisitan

Koldobike ETZABE URANGA (Hendaia)

Joan den abendua-ren 2an, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako irakasle batzuk Baztango Haur Eskolara bisita bat egin genuen. Bezperan, nahiko elurra bota zuen eta gure zalantzak izan genituen joan ahal izango genuen edo ez. Eguraldia baretu zen eta hura hurbildu ginen. Elizondoko inguruak txurituak zeuden, benetan paisai zoragarria ikusten zen. Eskolan sartu, etxeko zapatilak jantzi eta bertako zuzendariak, Kristina Goñik, harrera goxoa egin zigun. Lau orduko egonaldia izan zen, beraien ibilbidea eta gaur egun lan egiteko era kontatu zigun. Denak oso gustura egon ginen, Kristinaren lanarekiko pasioa kutsatu eta hunkitu zigun. Kanpoko hotza ikusi bai, baina barruan ez zen sentitzen zegoen epeltasunarekin. Han, Arrasate, Zalla, Bilbo, Zumaia, Irungo hezitzaileak, ederki eta gustura pasa genuen goiza. Hemendik Kristina eta han lanean diharduten hezitzaileak zoriandu

eta eskertu nahi diegu egiten duten lana gurekin partekatzeagatik. Hura ikusita, benetan, Elizondoko umeak irrikatan egongo direla eskolara joateko, baita as-teburuan ere. Esker mila aunitz, bihotzez.

Eskerrik beroena Ttipi-Ttapari

Fernando ETXEBERRIA (Ezkurra)

Goizean postontzia ireki eta Ttipi-Ttaparen azalarekin egin dut topo. Honela zioen: 700 zenbaki elkarrekin. Ikuste hutsak poza eragin du nigan. Ireki eta Pello Apezetxearen 'Ttipi-Ttaparen miraria' eta Mikel Tabernaren 'Bota pare bat' testuak irakurtzearekin, poza areagotu egin da. Berriemaile historikoen idatziak ere, Irazoki, Arotzena eta Saizarrena, atseginez irentsi ditut.

Ezkurako berriemaile lanetan aritua naiz. Urte gutxiz arituagatik, nahikoak izan dira Ttipi-Ttaparen oihartzunak oihartzeko. Lotsarik gabe, esan dezaket, aldizkariak oro har herritar guztiek, eta bereziki he-

rritik kanpo bizi direnek, Ezkurako gertaeren berri izateko bide eman duela. Nik bezala, beren herrietako berriak idatzi dituztenek berrets dezakete hori.

Aldizkariak, berrien igortze hutsaz haraindi, euskarari eskainiriko laguntza azpimarratuko nuke nik. Xorroxin irratia eta Xaloea telebistarekin batera, gutariko askorentzat, eta batik bat, euskaraz irakurtzeko joerarik izan ez dugun helduontzat, gure hizkuntzaren garraiolari ere izan da.

Halaber, Nafarroan gehien irakurtzen den komunikabidea da, gainerakoekiko alde nabariz. Euskara hutsean idazten den aldizkaria dela aintzat harturik, ez da marka makala.

Historikoki, zailtasun handiei aurre egin behar izan die: krisi ekonomikoa; lehengo Gobernuaren laguntza urria; 'kazetari' batek, langileak esplotatzea leporatuz, arduradunei egini niko erasoak... Ez hori bakarrik diru-laguntza truke Gobernuari men egitea egotziz esandakoak ere jasan behar izan ditu, Gobernuaren diru-laguntzak guztion zergetatik lortutakoa izanen ez balitz bezala eta kolaboratzaileak en-

gainatutako GIXAJOTZAT joz.

Xoko guztietan eraso eta burlaka dabilzan eta beren buruak egia- ren jabetzat dituzten gaizki-esaleak eta INKISIDORE laikoak dau- dela erran ohi dute.

Arkupeak Elkarteko berriemaile gisa, Ttipi-Ttapa gure jardura as- ko aurrera eramateko eta elkartearen hazkun- derako laguntza eskai- ni duen komunikabidea dela esan dezaket. Hamabostero Elkarteko argazki eta albisteak bil- duz, informazioa irakur- leengana ailegarazten baitu.

Hori guztiagatik, gu- re herrietako gertaeren berri emateagatik, gu- re hizkuntza bizi-bizi mantentzeagatik, Arku- peak elkarteari eskaini- riko laguntzagatik, be- ren maitasun eta esker- onak adierazi dituzte- nekin bat egiten dut. Ja- rrai dezazue horrela.

'Euskal kantak' liburuxkaren egileen inguruan

Pello ELZABURU

Jaso berri dugu ar- gitaratu berri duzen

Euskal kantak liburux- ka. Mila esker lehenik. Beti eskergarria da gu- re ondare kulturaren za- balkunderako egiten den ahalegin oro.

Kantek badute doi- nua eta hitza, eta gure kulturaren transmisio- lan horretan zaindu behar da sortzaile horien ize- nak. Horregatik ahale- gindu zarete kanta ba- koitzaren egileen izenak jartzen. Eta hori ongi da- go (derrigorrezkoa izan behako luke beti).

Baina liburutto ho- netan hor dago akatsik handiena, hirurogei abestiei errepaso azkar bat ematean, ia erdie- tan musika edo hitzen (poemen) egileen datu- ak gaizki daude edo ez direla agertzen ohar- tu naiz. Gabriel Aresti, Pie- rre Bordazarre, Xabier Amuriza, Jose Angel Iri- garay, JA Artze, Xenpe- lar, Nemesio Etxaniz, Mixel Labegerie... le- tra- egileen izenak ez dira agertzen. Edo beste batzuetan gaizki ipiniak daude: *Oi Pello, Pello* ez da Laboarena, letra herrikoia da eta doinua ere, nahiz eta denok Mi- kelen bertsioagatik eza- gutu.

Hurrengoan zaindu kontu horiek, arren.

Ongi izan eta laster arte.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Sari-emate ekitaldian ezin izan dut emozio-arengatik solasik egin, baina eskerrak eman behar dizkiet guztiguztiei Julen nere semearengatik egin dutena, horri esker orain pertsona zoriontsua baita, gustura lanean ari dena eta herrian guztiz integratua dagoena, musika bandan klarineteaz joz, abesbatzan kantatuz, Aspaceko zen-truan lan eginez...».

Maria Eugenia CAMPO
Gizarte Zerbitzuei saria
D. NOTICIAS 2017.12.16



«Nire aldetik gustura nago. Beti esaten dudana da garrantzi-tsuen norberak duen guztia ematea dela eta nik frontoi guztietan dena ematen dut. Eta hortik aparte, nik uste urte guztiko emaitzak ikusita ere, hobeak izan ditut, normala den bezala, txapelak-eta irabazi ditudanean, baina beti hor goian nabil eta alde horretatik oso gustura»

Aimar OLAIZOLA
Goizuetako pilotaria
GARA 2017.12.29

11 galdera labur

Nor da Mikel Grazenea?

Eratsungo mutil alai eta lagun artekoa.

Zein zaletasun dituzu?

Pilota partidak eta aizkora apustuak ikustea gustatzen zait, ahal bada lagun artean.

Inauteria zalea al zara?

Bai, aurpegia tapatzeak eta nor zaren ez erakusteak lotsa galtzen laguntzen du, eta horrek urteko momentu berezi egiten ditu inauteriak.

Zein da Eratsungo inauterien berezitasuna?

Bertsoen doinupean sortzen den giroa, bai etxez etxekoan, baita afarian ere.

Zer falta zaie inauteriei?

Jende gehixeago hurbiltzea akaso. Inguruko herrietan bezalatsu indarra galtzen ari dira...

Egunez edo gauez nahiago?

Egunez nahiago izaten dut, jendea moztortuta egoten da eta saltsa handiagoa eta ikusmin gehiago nabaritzen da.

Mozorroren batek oroitzapenen gozoak utzi dizkizu?

Mexikarrez jantzi ginenekoak, mexikarren kantuak izugarri gustatzen zaizkit, eta inauterietako besta gustoko duzun zer-

baitekin uztartzeak oroitzapen gozoa uzten du.

Herrikoak goiz izaki, ondotik beste herrietara joaten zarete?

Hemen hasita goitik beheiti Zubieta eta Iturengo inauterietara joaten gara. Joaldun eta mozo-rrak bereziak izaten dira, eta hori ikusteko polita izaten da.

Asteburuko planik ederrena?

Neskarekin egun pasa joan, kuadrilan afaldu eta besta eginez akitzen diren horiek baino hobarik ez da!

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Familia eta lagunak ondoan izatearekin zoriontsua naiz, ez dut askorik behar...

Inguruko xokorik politena?

Eratsungo antena xoko polita da eta bertatik bista ederrak ikus daitezke.



Mikel GRAZENA → Eratsungo gaztea

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

BEROPEL
egurrezko pelleta
ECHEVESTE HNOS. SL
T. 948 637 232 · 618 264 654
31770 LESAKA (Nafarroa) · Fax 948 637 250
info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiaik
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA

Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea · Tel-Fax: 948 625206 · BERA
Colon Pas. 6 - atzea · Tel-Fax: 943 633050 · IRUN

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

BORTZIRIAK

GIZARTEA → ABENDUAREN 15EAN

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Kalitatearen Saria jaso du Mankomunitateak

Zerbitzu sozialen erabiltzaileei eskainitako arretaren saria jaso du, MEC programari esker

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Kalitatearen X. Sariak banatu zituen abenduaren 15ean Nafarroako Gobernuak. Bertzeak bertze, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak zerbitzu sozialen erabiltzaileei eskainitako arreta saritu dute, zehazki, MEC proiektua garatzeko jardunbide egokia ezagutzera eman.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko ordezkariak, sari-banaketa ekitaldian.

MEC proiektuak desgaitasunak dituzten pertsonen lan-gaitasun eta abileziak garatzeko aukera luzatzea du jomuga, etorkizuneko enpleagarritasunerako bideak urratuz eta beren autonomian zein garpenean lagunduz. Helburua asebetetzera bidean, Bortzirietako Gi-

zarte Zerbitzuen Mankomunitateak desgaitasunak dituzten pertsonentzat lan eskaintzak sustatzeko, erakunde publiko eta pribatuaren arteko sarea eraiki du.

Saria MEC programa ezagutzera eman zuten Jokin Apezetxeak jaso zuen. Bide batez, 2015, 2016 eta 2017 ur-

teetan proiektuan parte hartu duten eragileak nabarmendu nahi izan ditu: antolaketa eta esku-hartzean gizarte zerbitzuko gizarteratze eta autonomia programetako teknikariak, Toki Ona institutuko orientatzailea eta Guraso Elkartea eta EISOL (Equipo Incorporación So-

ciolaboral); finantziazioan La Caixa eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eta lan aukera eskaini duten enpresa eta entitateak: Lesakako Udala, Urdi SL, Martiko, Toki Ona Ikastetxea-Berako Udala eta San Jose Zahar-Etxea.

Aurkezpenean Maria Eugenia Camporen lekukotasuna izan zen ardatz. Desgaitasuna duen gazte baten ama da lesakarra, entitate publiko eta pribatuaren saretzeari esker, semearen tizat udako lana aurkitu zuena. Bide batez, Maria Eugeniak berak Mankomunitateko teknikariak, Caixabank eta Aspace bezalako erakundeak eta herritarrei bere esker onak helarazi zizkien, egunerokoan eskaintzen dieten laguntzarengatik.





Zatoz gurekin ingalaterrara!

13 eta 17 urte bitartean dituzu?

Herri britainiar batean esperientzia zoragarri bat izan nahi duzu?

Zure ingelesa hobetu nahi duzu?

Herria: Petersfield (Londresetik 100 km-ra)
Alojamendua: Familia batean. Osoko mantenua. Bakarkako logelan.
Laguntzailea: Lesakatik joan etorrian eta hango egonaldian.

Uda honetarako aukera gehiago, bai Lesakan bertan edota atzerrian. Taldeka edo bakarka adin guztietarako. Galdetu konpromisorik gabe!

Koskontako bidea, 11 behea - LESAKA Tel. 948 637 135 / 628 195 322 ePosta. recepcion@acornlanguages.com web. www.acornlanguages.com

OSPAKIZUNAK → URTARRILAREN 13AN

XI. Mendi Egunean Pitxi Egillor izanen da

Larunbat goizean eskalada tailerra, arratsaldean Santa Barbarara mendi irteera eta binakako kronoigoera eta Iruñeko mendizalearen proiektzioa izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan, urtarrilak 13, Mendi Egunaren hamekagarren edizioa egingen da. Bertan, Loro Pikabea, Xabier Zubieta eta Xabier Saralegi omenduko dituzte, 2007ko urtarrilaren 13an Taillon mendian hildako mendizaleak. Aurtengoan, duela 25 urte Everest igo zuen lehen mendizale nafarra, Pitxi Egillor izanen da gonbidatua.

Mantale Mendi Lasterketa taldeak, Agerra Mendi Taldeak eta Gure Txokoak prestatutako egitaraua larunbat goizeko 10:30etik 12:30era hasiko da Toki Ona kiroldegian, haurrentzako eta gazteen



UTZITAKO ARGAZKIA

Pitxi Egillor, duela 25 urte Everest igo zuen espedizioan.

tzako zuzenduta dagoen eskalada tailer batekin.

14:15ean Rikardo Baroja Eskolako atepean, Santa Barbarako mendi irteeran eta binakako kronoieskaladan parte hartzeko izen emateak irekiko dira. Bai kronoieskalada baita txangoa ere kiroldegiko ataritik abiatuko dira, Santa Barbarako gainetik pasa eta abiapuntura iritsiko dira 5 kilometro eta erdiko ibilbidea eginez.

Ibilaldia 15:00etan hasiko da eta kronoigoera 15:30ean. 15:00etan 12 urte artekoentzat lasterketa ere egingen da.

Kronoigoera, partaide guztientzat irekita dago, baina 16 urte baino gutxiago daukatene heldu batekin egin beharko dute ibilbidea nahitaez. 18:30ean Rikardo Baroja eskolan be-

rendua izanen da. Eta honen ondoren sarien zozketa egingen da partaide guztien artean.

PITXI EGILLOR, PIRINIOAK ETA HIMALAYA ARTEAN

19:30ean Kultur Etxean, Pitxi Egillor mendizalearen *Pirinioak eta Himalaya artean* proiektzioa eskainiko dute. Iruñean 1948an jaio-tako mendizaleak Munduko mendietan izandako bizipenak laburbiltzen ditu emanaldi honetan. Pirinioetan egin zituen lehen gailurrak aurkeztuko ditu eta ondotik, Andeak, Himalaya edo Karakorumera egindako espedizioak ere gogora ekarriko ditu zuzeneko aurkezpen honetan. Egillor aski ezaguna da gure inguruan eta Berako Mendi Maratoi Erdia egiten duen korrikalaririk beteranoena izan ohi da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Naroa Otamendi garaile Arrasaten

Naroa Otamendi Abril, Isidoro Fagoaga Musika Eskolako ikasleak urrezko domina lortu berri du, Arrasateko Akordeoi lehiaketan, B kategorian.



UTZITAKO ARGAZKIA

Patxi Castillok ikasketa espediente onena

Euskal Autonomia Erkidegoko ikasketa espediente onenak saritu ditu Kutxa Fundazioak eta Goi Mailako garraio zikloari dagokion atalean, Patxi Castillore saritu du. Transnatur enpresan ari da lanean Patxi Castillo eta sari emaileek, Patxi bertan erakutsitako konpromezua, iraunkortasuna, garapena eta fideltasuna nabarmendu dituzte saria ematean.

MARITX

• Ingeniaritza elektrikoa • Boletín industria
• Proiektu elektrikoak • Instalazio elektrikoak

Legia, 23 - BERA | T. (0034) 636 617 450

Goieko DESIN BERA

INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTUAK

DESINFEKZIOAK • DESINSEKTATZIOAK • DESARRATOITZEAK

Zure inguruak klase guztietako insektuz (xomorro, zinurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu deitu! Termita eta Pipien tratamenduak

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

xirgil
jalane goya

ileapaindegi mistoa

Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

LESAKA

KULTURA → ABENDUAREN 22AN KONZERTUA

Elizako organoa zaharberritzeko asmoz lanean hasi da talde bat

Aitor AROTZENA

Abenduaren 22an elizan kontzertu zinematografikoa eskaini zuten zenbait musikari eta abeslari ezagunek. Elizako organoa zaharberritzea helburu duen talde batek antolatu zuen emanaldia eta entzuleek borondatea utz zezaketen Kultur Interseko Ondasun izenda-

tua egon arren egoera kaxkarrean dagoen organoaren zaharberritzean laguntzeko. Aitzinera begira, elkarteak sortu eta helburu horretan lanean segitzeko asmoa azaldu du Iratxe Etxarte herriko musikariak. San Martin elizako organoa 1891n eginzuten Zaragozako Roqués anaiek.



UTZITAKO ARGAZKIA

Tantirumairu dantza taldearen saskia

Eguberrietako saskia zozketatu du aurten ere Tantirumairu euskal folklore taldeak. Paskual Taberna eta Aukene Urrea suertatu dira saridun, dantza taldeko kide diren Zihara eta Laida alabek (argazkian) saldutako 1.198 zenbakidun boletoarekin.




Bittiria plaza 8
LESAKA
T. 677 606 292

Gure Hularuka

EKIALDEKO MASAJEAK

ESPRES MASAJEA
15 minutuz kendu lepo,
sorbalda, bizkar eta gerrialdeko minak
10 euroren truke.

MINDFULNEESS jarduerak.
Luzaketak, erlaxazio...




ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

IV. ipuin lehiaketako sariak banatu ditu Beti Gaztek

Laugarren aldiz ipuin lehiaketa antolatu du Beti Gazte elkarteak, Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6. mailako ikasleei zuzendua. 78 idazlan bildu dituzte. Sariet dagokienez, 3. eta 4. mailan, lehenbiziko saria Ana Odriozola Goizuetak eskuratu du *Iker eta Pintto* idazlanarekin, bigarrena Naiara Aranguren Zalduak *Kamelelo harroputza* ipuinarekin eta hirugarrena Jone Salgado Solok, *Paco eta Jon* ipuinarekin. 5. eta 6. mailetan, lehen saria Maitane Erkizia Arburuak eskuratu zuen, *Ezin naiz kexatu* ipuinarekin; bigarren saria Kattalin Txoperena Lacar-ek eskuratu zuen *Zerri perfektua* idazlanarekin eta hirugarrena Lorea Bertiz Aranburuk, *Untxia eta neska* idazlanarekin.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Lehen aldiz nesken taldea nagusitu da Olentzero lehiaketan

Olentzero lehiaketan 22 taldek hartu zuten parte eta jaiotzetan 4k. Lehiaketa nagusian, zazpi talderen artean, neska gazte kuadrilla batek osatutako *Muttikak* taldeak irabazi zuen 300 euroko sari nagusia. Olentzero onenaren saria, *Errekakuk* taldeak eskuratu zuen eta hortaz, musika bandarekin kalejiran bi taldeak atera ziren elkarrekin. Lesakako Zerbitzuen elkarteak hobekien kantatzen duen Olentzeroari eta jaiotzari emandako sariak ere jaso zituen *Muttikak* taldeak. Aurten Irrisarri Landek, talde mistoek aurkeztutako olentzero politenari ere saria eman zion eta *Bildotsak* taldea suertatu zen garaile. Lehiaketatik kanpo, presoan aldeko olentzeroa eta Hautoritura kuadrillarena atera ziren.

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak



kattagorria
lentzeria mertzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Erregetia · Asador



Biurraña, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

BEKO



LOREAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa · LESAKA
Tfnoa: 948 637 826



KIROLA → ABENDUAREN 9AN JOKATU ZIREN FINALAK

Bortzirietako txapelketa ona egin dute herriko pilotariek

Julene Danboriena
lehen neska txapelduna

Irene ELIZAGOIEN

Abenduaren 9an jokatu ziren Bortzirietako eskuz binakako txapelketaren finalak Beran. Etxalartik 4 pilotarik parte hartu zuten; Markel Irazoki, Julene Danboriena, Lander Lasaga eta Joseba Telletxeak. Titikien mailan, Markel Irazoki eta Julene Danboriena izan ziren txapeldunak. Alebin mailan, Lander Lasaga eta Hendaia Beñat Bertiz izan ziren txapeldunak. Infantiletan, Joseba Telletxeak ez zuen finale-ra sailkatzerik lortu.

Sute elkartearen urteko batzarra

Urtarrilaren 21ean goizeko 10etan egingen dute Sute elkartearen urteko batzarra Kultur Etxean. Aitzineko urteetan erositako su-itxalgailuen errebisioa ekainean egingen da. Eskutitz bidez jakitera eman dute data zehatza.

Janari bilketa

Parrokiako juntak antolatuta aurten ere janari bilketa egin da. Azaroaren 27tik abenduaren 10era 900 kilo jana-



ARGAZKIAK: IBON ERRAZU ETA LANDAGAIN ESKOLA

Carlos Nuñezen kontzertu arrakastatsua

Abenduaren 17an, abenduko biraren barrenean aspalditik iragarrita zegoen Carlos Nuñez eta bere taldearen kontzertu berezia gauzatu zen Etxalaren. Eliza jendez bete zen eta Itsaso Elizagoienek biziki eskertu zituen kontzertu hori aitzinera ateratzeko lanean aritu ziren laguntzaile guztiak, baita Carlosen taldea ere herrira etortzeagatik. Hurrengo egunean, astelehenarekin, Landagain eskolako ikasleei bisita egin zieten taldeko musikariek.

ri baino gehiago bildu zituzten. Eskerrik asko lagundu duten guztiei.



ARGAZKIA: JONE BIZENTE

Nafarroa Oinezeko saskia

Herriko Ostaturuko Nafarroa Oinezeko saskia Xabier Etxarteri tokatu zaio. Zorionak!



ARGAZKIA: JABIER IRIARTE

Eguberriak giro onean

Giro politoan joan zen Gabon eguna. Olentzeroak bizkarrean hartu eta txistulari eta trikitilariak lagunduta herrian itzulia eman zuten. Olentzero eta Mari Domingi iritsi ziren menditik, haurrei gozokiak eskainiz. Meza ondotik, trikitilariak saioa eskaini zuten frontoian eta pintxoak eta txokolata banatu ziren.

KAGU
LIBURUDENDA

Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA
Tel. / Fax 948 638 232

INTERNETEKO EROSKETEN
BILKETA ETA ITZULKETA ZERBITZUA

celeritas
alli donde tu quieras

Amazon
Corte Ingles
Zalando
Fnac
Kiabi
Philips ...

**EROSKETAK
JASOTZEKO
GUNEA**

USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214
ETXALAR

- Pentsu ekologikoak
- Kalefakzio eta ibilgailuendako gasolioa

**FORZECAN ZAKUR ETA
KATUENDAKO PENTSUA**

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Tlf: 948 625 474

Alasta karrika
BERA NAFARROA

ARANTZA

GIZARTEA → ILBELTZAREN 12AN

Sagar basatiez solasaldia izanen da Ekaitza Elkartean

Zubialde Patxakak mintegiko Juan Gamio Grazenea labaindarrak emanen du hitzaldia elkartean ortziralean (19:30)

Nerea ALTZURI

Ilbeltzaren 12an, gu-re inguruko sagar basatiari buruzko hitzaldia antolatu du Ekaitza Elkarteak. Bertan sortutako sagar landareak, gure barietate zaharrak berreskuratuz, aditu bat izanen da hizlari.

Zubialde Patxakak sagarrondo mintegiko Juan Gamio Grazenea labaindarra izanen da solasaldia emanen duena. Hitzordua, ortzirale honetan da, 19:30ean eta Ekaitza Elkartean.

Inauteriak otsailaren 1etik 3ra izanen dira

Eguberrietako ospakizunak bukatu eta urtea hasi orduko, begibistan ditugu inauteriak. Data, ohitura eta tradizio ezberdinak izaten dira herriz herri eta egun koloretsuak izan ohi dira.

Mozorro Xuriak herriko inauteriak antolatzen ari dira. Aurten, otsailaren 1etik 3ra izanen dira.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Olentzero eta Mari Domingiren bisita izan zen herrian ere. Musiak, kantuak eta dantzak ez zuten hutsik egin oraingoan ere.



UTZITAKO ARGAZKIA

Urtezaharreko elkartasun zozketa

Urtezahar eguneko elkartasun zozketan, bertako produktuez osaturiko lote ederra Juana Larralderi tokatu zitzaion. Bertako bildotsaren sariduna, berriaz, Ana Mari Sarobek saldutako boletoetan dago.

KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI
LASAGA APEZTEGUIA

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta
- Internet konexio simetrikotik ultrasterra

T. 637 40 86 40 - 31780 BERA - andonimabako@gmail.com

sarobe
gozotegia okindegia

pº de eztegará 25 bajo
31780 bera (navarra)

t. 948 63 08 99
www.sarobe.net

IGANTZI

KULTURA → ABENDUAREN 16KO EMANALDIA

Azken kantua eskaini du abesbatzak

28 urteko ibilbidearen ondotik, eman zuen hondarreko kontzertua

TTIPI-TTAPA

Aurtengo Eguberrietako kontzertua azkenekoa izan da Igantziko Abesbatzarentzat. 1989ko irailean hartu zu-

en Isabel Lacarrek abesbatzaren lekukoa, Juan Bautista Irazoki erretorea Leitzara joan zenean. 28 urte joan dira, beraz, Igantzin lanean hasi zenetik. Orain, alde batera eta bertze ezin ailegatuz, bertako abesbatzarekin daukan harremana gelditzea erabaki du. Hortaz, azken emanaldia berezia izan da, dudarik gabe. Noizbait abesbatzan kantatzen aritu diren la-



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Eguberrietan azken kontzertua eskaini zuen abesbatzako kideak. Behean, kalejira.

gun guziak gonbidatuak zituen abesbatzak eta kontzertu hondarrean denak elkarrekin kanta bat eskaini zuten. Aitzinetik, meza kantatu zuen Abesbatzak eta dozena bat kanta kontzertuan.



ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA

AMETS

PARETAKO ARMAIRUAK NEURRIRA EGITEN DITUGU

C/Sastrin 2,3,4 BERA | 948 630 537 | amets@mueblesamets.com | mueblesamets.com

SUNBILLA

GIZARTEA → ABENDUAREN 18AN

Irungo Ficoba bisitatu dute eskolako ikasle eta irakasleek

Hilaren 22ko jaialdian Iñaki Zubeldia ipuin kontalaria izan zen

Maidar PETRIRENA

Abenduaren 18an lehen hiru hilakoari dagokion irteera egin zuten eskolako irakasle eta ikasle guztiek Irungo Ficobara. Ederki gozatu zuten egunaz eta bertan zeuden jokoez.

Abenduaren 22an, berriz, eta lehen hiru hilakoari bukaera polit bat emateko Eguberrietako jaialdia ospatu zuten. Lehenik Iñaki Zubeldia ipuin kontalaria iren emanaldia izan zuten. Ondoren gosari eder batez gozatzeko aukera eta handik herriari buelta ematera joan ziren kantuan. Ederki pasatu zuten.

Inauterietako emakumeen afaria

Inauterietako emakumeen afarirako txartelak urtarilaren 20an salduko dira Ulibeltzak Elkartearen. 5etan herri-tarrak eta 6etan gainerakoak.



ARGAZKIAK: LOURDES INDAKOETXEA, ESTHER EZKURRA, MAIDER PETRIRENA ETA ANA ARRETXEIA

Urte berri egunean urtasketan ibili dira auzoz auzo

Urte berri egunean urtasketan ibili dira auzoz auzo lau taldeetan banatuta.

Ba al zenekien?

Bustitz ostatuak berriz ere bere ateak ireki zituela abenduaren 1ean



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Olentzero etorri zen herrira

Abenduaren 24an Olentzero bertze urte batez herri-er etorri zitzaigun. Haurren ilusioarekin buelta eman zuten kantuan. Ondoren frontoian txokolate beroa hartu eta Olentzerori musuak eta eskutitza eman eta argazkiak ateratzeko tartea ere izan zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Errekako saskia Sunbillara

Errekako saskiaren zozketa abenduaren 20an egin zen. Josune Agirre Maritorena sunbildarra izan zen sariaren irabazlea eta boletoa hain zuzen ere bertze sunbildar batek saldu zion, Garazi Etxalar Zugarramurdi familiakoak. Zorionak!

Manterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

ORBELA
SENDERSMOIA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

IBARBURU
GASOLIOA ETXERA
KALEFAKZIOA
NEKAZARITZA
AUTOMOBILGINTZA
Vicente Arocena Andueza
T. 610 258 595
Iruña-Irun Errep. 48,5 km. 31740 DONEZTEBE

tanatorios IRACHE
24 ORDUKO TELEFONOA
948 581 959 | 948 637 404
BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA
TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

GIZARTEA → HAINBAT EKITALDI EGIN DIRA

Ilusioz urtea agurtu eta ilusioz gainezka urte berriari ongiectorria eman

Abenduak
gurean argazki
anitz utzi ditu
eta denak hitz
batez laburtzen
ahal dira:
ilusioa

Marga ERDOZAIN

Abenduan zehar ilusioz eta mimo handiz ospatu dira hainbat hitzordu: Nafarroaren eguna eta Euskararen Eguna (Mendi Abesbatzaren kontzertua eta txotxongiloak izan genituen). Ilusioz egin zen Santa Luzia feria eta elkartasuna nagusitu zen egun horretan eta ilusio handiz jaso genuen Iñaki Perurenaren emanaldia (gozatu genuen eta hunkitu gintuen). Izugarriko ilusioz jantzi zuen Karmentxu Mariezkurrenak bere zilarrezko titarea. Ilusioz gozatu dugu antzerki emanaldiakin, Eguberrietako kontzertu itzelarekin, Olentzero eta Mari Domingiren etorrerarekin. Ilusioz kirolak hartu duen protagonismoaz gozatu dugu: mendi irteerak, futbol-areto txapelketa, San Silves-trea... Ilusio handiz 2017a agurtu genuen eta 2018rako ilusio gehiago eskatu dugu. Ilu-

sio handiz norberak urte berrirako asmoen zerranda osatu du (ongi gorde urtean zehar ikus dezazuen betetzen duzuen ala ez). Ilusioa ere utzi digute Erregeek urteroko hitzorduan.

'Ilusioa' dokumentala eta Fidel Agestari ilusioz betetako omenaldia

Abenduaren 30ean zinema aretoan *Ilusioa* izeneko dokumentalaren aurkezpena egin zen. Ilusioa auzolan baten emaitza da eta neurri handi batean Doneztebeko historiaren atal garrantzitsu baten kronika. Ilusioak laburtzen du Errege Kabalgataren historia. 60 urte hauen atzean herri baten ilusioa, gogoia, elkartasuna, aldarrikapena... islatuta gelditu dira. Mariaje Ganboa eta Andrea Apeztegia, bertze batzuen laguntzaz gauzatu dute Ganboaren amets hori. Joseba Grazoneak grabatutako dokumental honen atzean lan talde handia izan da: gidoia, itzulpenak, abotza, grabaketak, muntaiak. Emaitzarekin herriararak kontent, dokumentu hau gure historiaren zatia baitugu.

Dokumental hau egi-



ARGAZKIA: NEREA BAZTERRIKA

Merkatari eta zerbitzu elkarteak logotipo berria

Doneztebeko merkataria eta zerbitzu elkarteak logotipoa aldatu du. Abenduaren 14an aurkeztu zuen udaletxean, inguruan elkarlanean aritzen den hainbat erakunderen aitzinean. 2006az geroztik, hau da, merkataria eta zerbitzu elkartearen sorreratik, orain arte elkarteak, ikastetxeko lehiaketa baten bidez hautatutakoak irudikatu du. Haatik, «gauden garaian gaudela, merkataria elkarteak aldaketa bat behar zuela ikusirik, modernoagoa den bat sortu eta ordezkatzearabaki dugu». Aldaketarekin, «Doneztebeko merkataria elkarteak izanagatik, Malerreka, osotasunean, aintzat hartzen dugula jakinarazi nahi izan dugu. Gure bezero gehienak Malerreka dira». Horretarako «orain arteko logoaren azpian zegoen 'doneztebarrak' hitza 'Doneztebeko' hitzarekin ordezkatu dugu, denda Donezteben kokatuagatik, bezero gehienak eremu zabalagokoak direlako».



UTZITAKO ARGAZKIA

'Kalitatezko Zentro' saria eman diote San Migel ikastetxeari

Maria Solanak, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak, 'Kalitatearen konpromisoa', 'Kalitatezko Zentroa' eta 'Zentroen Bikaintasuna' sariak banatu dizkie, Nafarroako hamalau ikastetxe publikori, Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoran, abenduaren 18an. Sari horiekin kudeaketaren kalitatean egindako urratsak aitortu nahi izan dira. Sarituen artean, Doneztebeko San Migel ikastetxeari kalitatezko ikastetxearen aitortza egin zaio.

tean bertze amets bat burutu da eta hau ere ilusioz antolatu da. Fidel Agestari argazkilaria bere ibilbide profesionalagatik herriak omenaldi xume, hunkigarri eta polita egin dio. Fidel izan da 60ko hamarkadatik argazkigin-

tzan bailara osoko erreferentea. Bere kamerak bizia eman dio hainbat gertakari, norbanakoak edo kolektiboak: ezkontzak, jaiotzak, ospakizunak... Bere kamerari esker, bere laboratoriora, denboraren mugak gainditzen dituzten

argazkiak altxorra bihurtu ditu Fidelek. Herriaren aitortza eta esker ona jaso du bere familiarren laguntzaz.

Mila esker Fidel, zure kamera gure historiaren lekukoa izan da eta izanen da. Ondare ederra utziko duzuna.

ITUREN

GIZARTEA → ABENDUAREN 22AN

Berriz ireki ditu ateak Iturengo Herriko Ostatuak

Eguberrietako ospakizunek inauteriei emanen diete bidea

Arkaitz MINDEGIA

Abenduaren 22an, neguaren lehen egunetan, berriro ere ateak ireki ditu Iturengo Herriko Ostatuak.

Eguberrietako Jaialdia

Pulunpa eskolak lehen hiru hilabetea burutzeko jaialdia antolatu zuen, Zirkoa gaia hartuta. Guraso elkarteak sariak ere zozketatu zituen. Hauek dira sariaren zenbakiak: 1- 716; 2- 380; 3-030; 4-557; 5- 219; 6-915; 7-749 eta 8-773. Gurasoek eskainitako gosariarekin akitu zuten.

Eguberrietako ospakizunak

Ospakizun eder eta politak izaten dira

Eguberrietakoak. Olenztzerori ongi etorria emateko karrikaz karrika ibili ziren Ituren eta Aurtizko haurrak kantari. Ilunabarrean, Iturenen Olenztzeroren bisita arrakastatsua ospatu zen: argiak itzali ziren, Joaldunen soinuekin eta suzien argiekin Olenztzerori bide erdira agurtzera eta plazako bidea berekin egitera irrikaz joan ziren haurrak. Plazara iristean, Olenztzerok haurren muxu eta besarkadak jaso zituen.

Eguberri eguneko otorduak, Urtezaharreko azken afariak, Urte berriko ongi etorria bertze lekuetan bezala ospatu ziren, dantza eta kantu artean.

Errege bezpera ere besta egun handia izaten da, urteko lehen eguna izaten baita herrian zehar Joare soinuak zabaltzeko. Arratsalde partean umeen txanda izan zen. Gauean, berriz, afariaren bueltan elkartu ziren iturendarrak eta aurtiztarrak, goi-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Eguberrietako ospakizunetan gustura ibili dira Ituren eta Aurtizko neska-mutikoak.

zeko ordu ttikietan Joare soinuak zabaldu baitzituzten koxkorrenak.

Aurtiz, Ituren eta Zubietako herritarrak, hilabeteko azken egunetan ailegatuko diren inauterietan bezala, elkarrekin ibili ziren hiru herrietan.

Joaldunak han eta hemen

Gure Joaldunak, beraien joare soinuekin, rute guzian bezala, han eta hemen ibili dira jo eta jo eguberrietan ere herrikan kanpoko herrietan. Iturengo joaldun

helduak abenduaren 22an Arrasaten eta 24an Barañainen ibili ziren eta ttikienak, berriz, abenduaren 23an Oleretan.

Aurtizko Joaldunak abenduaren 24an, aurtien 40 urte bete dituen Elizondoko Olenztzerekin ibili ziren.



DONEZTEBE
Parrokia kalea, 21 | T. 948 450 266
BERA
Eztegara pasealekua, 26 | T. 948 625 259
691 384 651 (WhatsApp)
arnedo.ind@allianzmed.es
arnedo-inda.allianz.es

ESKAITZA BEREZIA

Etxeko aseguru poliza berrietarako

%15eko deskontua estaldura berriei

- Testamentu digitala
- Filtrazioak
- Hodiak libratzea
- Kortozirkuituak
- Aholkularitza juridikoa
- Azterna digitalak ezabatzea
- Bidaia asistentzia, etab.



Jarri gurekin harremanetan eta aurrekontua bidaliko dizugu inolako konpromisorik gabe

GIZARTEA → BI URTEKO LANAREN ONDORIO

Metroko planoa iritsiko da herrira ere

Herri sarreran
jarriko dute eta
bi-orrikoa ere
banatuko da

ektu-piloto batean. Zubitako udal langileen laguntza ere izan dute argazkiak ateratzeko.

laz bide-seinaleak jarri zituzten pista hasieratan, bidegurutzeetan eta baserrietan. Orain, biorrikoa egiteko asmoa dute, aitzineko aldean planoa eta baserri bakoitzaren koordenadak ageri dituela eta gibealeko aldean, baserrien argazkiak eta QR-ak. Herri sarreran ere, Pablo Feok landu duen metroko planoa jarriko dute. Gisa honetara, bide horiek erabili behar dituzten garraiolari, osasun zerbitzu, suhiltzaile edo postariek errazago izan den dute baserriak topatzea.

Fermin ETXEKOLONEA

Lehen ere ikusiak ditugu zenbait herrietako baserrietako bideak hiri handietako metroko mapa itxura hartzen duten planoetan bilduak. Leitzan eta Areson egin zituen Pablo Feo leitzarrak eta Goizuetan Iñaki Etxeberriak. Bada, orain, Zubietan ere gisa horretako mapa batean bildu dituzte baserri eta bizi-bordak.

Duela bi urte hasi zen lanean Tracasa, herri tikiei zuzendutako proiektu



UTZITAKO ARGAZKIA

Mindegiaren liburuen aurkezpena

Biharamunean Ezkurran egin zioten omenaldiaren aitzinetik, abenduaren 22an 'Miguel Mindegia aizkolaria' liburua aurkeztu zuten Herriko Etxean. Mindegia handiarekin batera, Ernesto Dominguez herriko alkatea, Ezkurako alkateordea, liburuaren egileak eta Nafarroako Herri Kirol Federazioko ordezkaria.



1951tik
Casa Cambra
 lentzeria-etxea

Merkealdia

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak
 edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
 Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

40 beilatokiak IRACHE

urteurrena

Betidanik

Maldaerreken historia

MALDAERREKA, 1989an sortu zenetik, **Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortziria** inguruetako erreferentziako beilatoki bakarra izan da, eta bertako biztanleei zerbitzua ematen jarduten du. Bere ia 30 urteetan, eskualdean (baita Nafarroa osoan ere) hileta-sektorearen modernizatzearen sustatzaile izan da, **landa-eremuetan inbertitzeko** hautua egin zuen, inguruko familiei, 22.500 biztanletik gorako zonaldea izaki, senitartekoak kalitatezko instalazioetan agurtzeko aukera bermatuz, lehen ez zegoen tokietan. Egungo araudiak eskatutako osasun-baliabideak ditu, zendutakoak prestatzea bezalako tentuz hartu beharreko langintza burutzeko, baita familiei senitarteko maiteak agurtu eta beilatzeko instalazio duinak eskaintzeko ere.



Hileta-Instalazioak Baztango biztanleriaren zerbitzura

2001ean hasi zen MALDAERREKA Baztan aldean inbertitu eta hedatzen. Nafarroako iparraldeko lehendabiziko beilatokia ireki zuen **ELIZONDOKO Santiago kalean**, hasieratik instalazio aitzindaria, bi beila-areto eta ezinbesteko tanatopraxia instalazioak zituen, inguruan inork ez zuen aurrerakuntza eta bereizgarria, gaur egun ere ez da halakorik duenik.

Beranduxeago, 2003an, zonaldeko beharrak asetzeko helburuarekin eta, mundu guztiak senitarteko maiteak horretarako egokitutako instalazioetan beilatzeko aukera izan zezan, instalazioak handitu egin ziren, Elizondon bertan, **Pedro Axular kaleko beilatokia** erosi baitzen, horrela, Elizondon kokatua egon arren, Baztango eskualde osora, baita Urdazubi eta Zugarramurdiko herrietara ere zabaltzen eskaintza.

Urte horretan bertan, eta hainbat herrien beilatoki eta instalazioen beharra zela eta, inbertsio handia egin zen **Lesakan**, bertako udalarekin elkarlanean. **Zarandia kalean Beilatoki** bat ireki zen, San Martin parrokia-elizatik hurbil. Bi beila-areto zituen, eta baita tanatopraxia instalazioak eta ganberak ere, horrela inguruko hainbat herrietara zabaltzen zerbitzua, Igantzi, Arantza eta Etxalarrera besteak beste.

2003an, Maldaerrekek Berako San Jose Gaubeila erosi zuen. Beratarrentzako hileta-zerbitzuak eskaintzen ditu bertan bereziki.

Urte batzuk geroago, 2006an, MALDAERREKAK **Donezteben** ireki zituen ateak, **Ameztia kaleko San Pedro Gaubeilan**, honek ere bi beila-areto ditu eta Bertizarana eta Malerrekan (Sunbilla, Legasa, Zubietta, Beintza-Labaien, etab.) ematen du zerbitzua.

Horrez gain, MALDAERREKAK homologatutako 6 ibilgailu ditu (3 hileta-ibilgailu eta 3 jasotze-furgoneta). Hauei esker, zerbitzuak istantean ematen ditu, 365 egunez 24 orduz ematen duen telefonozko zerbitzu pertsonalizatuaz gain.

41 urteko ardura eta lana. Betidanik eta betiko lekuan. MALDAERREKA gara.



Irache beilatokiak taldea

MALDAERREKA, Irache Beilatokiak Taldea osatzen duten enpresetako bat da, hileta-sektorean funtsezko alorrean aitzindari. Bezeroei zerbitzu oso eta bikaina eskaintzea du oinarritzko helburu estrategikoa, betiere, zerbitzuak ematean, bereizgarritasuna eta baldintzen hobetzea erraz dezaketen alderdi horietan guztietan berrikuntza egokia lehenetsita. Taldea erabat nafarra da, 100 langile eta laguntzaile inguru ditu eta Foru Erkidego osoan barna 60 beilatoki eta Gaubeilatik gora dauzka. 41 urte egin ditu nafar gizartearen zerbitzura.

Foru-erkidegoko TALDE liderrean egoteak edonolako hileta-zerbitzuak eskaintzeko aukera ematen dio MALDAERREKARI, daukan kapital humano eta teknikoari esker, baita 41 urte luzeetan bildutako esperientzia luzeari esker ere.

Maldaerreka taldea

MALDAERREKAK eskualdeko bertako langileak ditu, tanatopraxian tituludun eta hilotzak tratatzeko beharrezko teknika egokietan adituak (aipatu zerbitzu espezializatuak eskaini ditzakeen enpresa bakarra), horrela, kalitate maila gorena eta indarreko osasun-araudiaren betetzea bermatzen du.

MALDAERREKARENTZAT beti izan da, eta izaten jarraitzen du, lehenetsuna, eskualdean lana sortzea, are gehiago berritze une hauetan, orain, etorkizunaren aldeko apustu argia egiten ari da eta. Horregatik lehenesten dugu hileta arloko langile guztien profesionalizazioa. Horixe bera da gure zerbitzuen bikaintasun eta handitzearen oinarritzko zutabea. Familiak inguru eta instalazio ahalik eta onenetan egotea nahi dugu eta, profesionalik ahalik eta onenek artatzea.

Maldaerreka etorkizuna

Egun, Baztango erreferentziatzeko lokalaren birmoldaketarako inbertsio handia ari gara egiten, familiei eta ingurukoei erosotasunik handiena eskaintzeko. Lokala Elizondoko Santiago kalean dago, eta, hain zuzen ere, 2001ean Nafarroako iparraldeko lehen beilatokia izan zena da. Proiektu handi honek lokalaren erabateko birmoldaketa izan du helburu nagusia, eta beilatoki eredu berri batean eta espazioak antolatze modu berri batean bilakatu da azkenean (egun, ia 20 urte geroago, Nafarroako iparraldeko –Elizondo eta Lesaka– bi beilatoki bakarretako bat da). Horrek guztiak hileta-zerbitzu osoak eskaintzerakoan aurreapauso kualitatibo handia emateko aukera eman digu, eta erreferentziatzeko izaten jarraitzeko aukera ere bai, eskualdean ez ezik, Nafarroako Foru-Erkidegoan eta Estatu osoan ere bai.



EZKURRA

KIROLA → ABENDUAREN 22AN ETA 23AN

Migel Mindegiari liburua eta omenaldia eskaini dizkiote

Aizkolariari buruzko liburua abenduaren 22an aurkeztu zuten Zubietan eta biharamunean omenaldia eskaini zioten Ezkurran, joaldun, harrijasotzaile eta lehengo eta oraingo aizkolariekin

Jaione ZABALO

1949an Ezkurran sortu eta Zubietako Azkaratean bizi den aizkolari handiaren biografia biltzen duen *Miguel Mindegia aizkolaria* liburua aurkeztu zuten abenduaren 22an Zubietako Herriko Etxean. Ekitaldian izan ziren, Mindegiaekin batera, Ernesto Dominguez Zubietako alkatea, Jaione Zabalo Ezkurako alkate ordea, Nafarroako Herri Kirol Federazioko Unai Bertiz, liburua idatzitzaile duen Iñigo Goñi kazetaria eta Joseba Urretabizkaia argazkilaria- ren alaba. 50 bat lagun bildu ziren.

Biharamunean, larunbat eguerdian omenaldia eskaini zitzaion Mindegia Ezkurako pilotalekuan, bere ibilbide arrakastatsua borbiltzeko. Zubietako eta Iturengo joaldunak ibili ziren herrian barrena eta gero Mindegia eta Maria Jesus Mutuberria emazteari arkua egin zioten, lehengo eta oraingo aizkolariekin eta harrijasotzaileekin batera. Gerardo Bengoa aurkezle ezagunak gidatutako ekitaldian Urruti, Betelu eta Santxin harrijasotzaileek erakustaldia eskaini zuten, baita lau aizkolari bikotek ere: Patxi Astibia eta Donato Larretxea, Iker eta Daniel Bizente, Arria aita-semeak eta Antonio Jaunarena eta Jon Rekondo. Bittor Elizagoien bertsolariak ere Mindegia- ren bizitza eta lortutako markak goraiatu zituen. Mindegia- ren bi bilobek, Maitetxuk eta Olatzek aureskua ere dantzatu zioten eta gero hainbat opari jaso zituen, tartean losu Janices, Nafarroako Gobernu-ko ordezkariarena. Udalak hamaiketako eskaini zuen frontoian bertan eta gero 70 bat lagun bildu ziren Barrankan bazkaltzera.



ARGAZKIAK: JOSEBA URRETABIZKAIA

Kirolari eta joaldunen arkua Mindegia eta Maria Jesus Mutuberria emazteari. Behean, lehengo eta oraingo aizkolariekin ageri da Mindegia.



ARGAZKIA: JAIONE ZABALO

Urte berriarekin Jubilotekari ekin diote berriz ere

Abenduaren 20an Jubilotekaren iazko azken saioa egin zuten, argazkian agerienez. Ekitaldi honetan hamar herritar apuntatu ziren eta oso gustora ibili dira denak. Eguberrietako atsedenaldiaren ondotik, aurten, urtarrilaren 10ean berriz ere hasi dira eta bertan, helduentzako gimnasia, memoria eta logika lantzeko zenbait ariketak egiten jarraituko dute, Ramoni Ordokirekin batera.

DONEZTEBE

Hasi dira **MALERREKA PROMOZIOAK** promotorak egindako etxebizitzak eraikitzen.

Dagoeneko 2. faseko etxebizitzak salgai
ZURE BEHARREN ARABERA, 2 eta 3 logelako etxebizitzak.

**Zuk erran
eta guk egin!**

58 m²koak:

sukaldea/egongela,
2 logela, 2 komun.

**74 m² eta 90m²
ingurukoak:**

3 logela, egongela,
sukaldea eta 2 komun.

135.000 €tik goiti



**Ez galdu
aukera!**



- ✓ 2017ko abenduaren 31 baino lehen erositakoek
Nafarroako Gobernuaren **diru-laguntza** jasoko dute (**%15-18 artean**)
- ✓ Zure beharren **araberako finantziazioa**, Rural Kutzaren babes eta abalarekin
- ✓ **B ziurtagiria**, isolamendu berriak, sistema aerotermikodun
berogailua (kontsumo baxua)
- ✓ **Material nobleetan** eraikia
- ✓ **Barne materialak aukeran**: egurra, azulejoak...
- ✓ Sukaldea eta lokala gurekin erosiz gero, **%11 aurreztuko** duzu



Informa zaitez

EZKAIN ERAIKUNTZAK

lnzakardi kalea z/g | **DONEZTEBE**

629 951 170



LOKALAK ere baditugu,
txoko, garaje edo
lokal komertzialak
egiteko

BAZTAN-BIDASOA

GIZARTEA → HIRU HILABETETIK BEHIN ZOZKETA EGITEN SEGITUKO DUTE

Egutegia banatu dute hondakinen informazioarekin

Josetxo Apeztegiaren sunbildarraren argazkiak biltzen ditu

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Baztango Udalak eta Bortzirietako eta Malerrekkako Mankomunitateek Baztan-Bidasoaldeko etxe guztietara bidaltzen den egutegia pres-tatu dute.

Azken urte hauetako formato bera erabilia, hilabetea bitan zatitu dute. Goitiko orrialdean zonaldeko argazkiak sartu dituzte. Aurtengo Sunbillako Josetxo Apeztegiak utzitako argazkiak erabili dituzte eta erakundeek eskerrak eman nahi dizkiete, «hagitz egutegi polita ateratzea



ARGAZKIA: JOSETXO APEZTEGIA

Sunbildarraren argazki dotoreak biltzen ditu egutegiak.

lortu baitugu».

Beheitiko zatia atal desberdinetan banatu dute:

- Dagokion hilabete-ko egutegia handian dago eta gainean bi aldeetara aurreko eta ondorengo hilabeteak, hirurak batera ikusi ahal izateko

- Egutegian hondakin berezien bilketa egunak sartu dituzte, bako-

tzak jakiteko noiz joan den bere herrira. Horretaz aparte ilargien inguruko informazioa ere sartu dute eta Mankomunitateek hiru hilabetetik egiten duten zozketaren oroitzapena ere bai.

- Azpian, hilabetero, Traste handien bilketaren telefonoa ere sartu dute. Oroitarazi nahi dute debekatuta dagoela

traste handiak kalean uztea. Telefono horretara deitu behar da eta etxetik pasatzen dira, doako zerbitzua eskainiz.

- Ezkerreko zutabean hilabetero hilabetero hondakinen inguruko informazio interesgarria eman dute, baita baratzeko lanen ingurukoa ere.

Ohiko informazioa eta eduki hauetaz gain, hainbat berrikuntza badiu aurtengo egutegiak:

- Hondakin bereziak biltzeko etxolen inguruko informazioa

- Otsailean eta martxoan bi QR kode, on-tzien eta kartoiaren inguruko bi bideotara eramaten dutenak.

- Egutegi biodinami-koan, konpostaren erabileraren inguruko hainbat zehaztasun...

URTARRILAREN 20AN

Sagardotegi denboraldia abiatuko da Lesakan eta Lekarozen

TTIPI-TTAPA

Lesakako Lindurrenborda eta Lekarozko Larraldea sagardotegiek ilbeltzaren 20an irekiko dituzte bere ateak, txotx sasoi berriari hasiera emanez. Nafarroako sagardotegien denboraldi hasiera ofiziala, berriz, bezperan egingen dute Beruete-ko Behetxonea sagardotegian. Hauekin batera, Lekunberriko Toki Alai eta Aldazko Martitxoneak osatzen dute Dolarea, Nafarroako Sagardotegien Elkarte eta aurtengo 250.000 litro inguru kupeleratu dituzte.

Irungo Meaka auzoko Ola sagardotegian hilaren 21ean irekiko dituzte kupelak.

KIROLA → AUNITZ ESKUETAN TALDEAREN ESKUTIK

Malerrekako trontenis txapelketa antolatu dute

Ilbeltzaren 19a bitarte eman daiteke izena

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Gure Esku Dago ekimenaren

baitan sortutako Aunitz Eskuetan taldeak Malerrekako frontenis txapelketa antolatu du, emakumeen eta gizonen kategorietan. Izen emateko epea zabalik dago urtarriaren



ARGAZKIA ETA TESTUA: ARANTXA ITURRALDE

Beintza-Labaienen ere harrera egin diote Olentzerori

Abenduaren 24an, urteroko hitzordua galdu gabe, igande arratsaldeko 3:30ean bildu ziren Labaiengo plazan, trikitixa lagun, Olentzerori harrera egiteko asmatan. Karriketan gabon kantak abestuz egin zuten buelta, eta Beintzako auzoan aritu ondoren, ostatura bertaratu ziren berendu goxo-goxoa egitera.

19a bitarte, Doneztebeko Titin eta Elgorriagako Ostatuan.

Bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko du eta partidak urtarri-

laren 27tik aitzinera jokatuko dituzte, asteburuetan.

OSPAKIZUNAK → ILBELTZAREN 12TIK 14RA

Inauteriak asteburuan ospatuko dituzte

Ostiraleko
afariarekin
hasi,
larunbateko
buelta eta
igandeko
bazkaria bitarte

TTIPI-TTAPA

Inauterietako seinalea izango da asteburu honetan Eratsunen.

Ilbeltzaren 12an, ostiralean, afaria izanen da; ilbeltzaren 13an, larunbatean, berriz, bazkaria. Arratsaldean herri-



ARTXIBOKO ARGAKIA

Asteburu honetan ikusiko dira moztorroak Eratsunen.

ko buelta emango dute gazteek, Aitor Mendiluze eta beste bertso-

lariren batekin eta gero afaria izango dute.

Ilbeltzaren 14an,

igandean, bazkariarekin akituko dituzte aurtengo inauteriak.

URROZ

OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 24AN

Olentzeroren bisita izan dugu bertze urte batez

Su artifizial eta
guzti egin
zioten
ongietorria

Jaione ARIZTEGI

Ailegatu zen gurera ere Olentzero, eta ongi etorri berezia egin zitzaion herrian.

Urteroko legeari eutsiz, abenduaren 24an, arratsaldeko 5etan plazan bildu ziren haurrak eta eskean eta kantuan

ibili ziren etxetik etxera trikitixa soinuak alaiturik.

Herriari buelta eman ondoren, berendua izan zen herriko ostatuan, olentzero menditik jaisten zen bitartean itxaroteko.

Herria ilun zegoen eguneko protagonista ailegatu zenean, baina prest zeuden su artifizialek ongi argitu zituzten bazterrak. Herriko dantzariak dantza pare bat eskaini zuten plazan eta horren ondotik Olentze-



ARGAZKIAK: JAIONE ARIZTEGI

Behar bezalako ongi etorria eskaini zioten urroztarrek Olentzerori.

ro opariak banatzen hasi zen.

Ilusio ederrarekin

agurtu zuten haurrek Olentzero, eta haurrak ez direnak ere arratsal-

de polita pasatzeko aukera izan genuen herrian.

ARKUPEAK

GIZARTEA → URTARRILAREN 16AN

Donejakue bidea egiteko asmoa dela eta, bilera egingen dute

Bilkurara joan ezean, bulegora deituz eman dezakete izena

Fernando ETXEBERRIA

Elkarteko kide batzuk Santiago bidea egiteko asmotan dabilta, baina, horretarako, zenbat lagun bilduko lirateken jakin nahi dute. Hori horrela, urtarrilaren 16an, Berako mendi irteera egin ondotik, horixe izanen dute hizpide.

Bazkalondoan helduko diote gaiari, gutxieneko kopuru bat bilduko ote litzatekeen argituz. Edonola ere, egun horretan bazkari-joaterik ez duenak, bulegora deitu eta da-

tuak helaraziz, izena eman dezake.

URTEKO IRTEERAK

Donejakue bidea egiteko asmoa aurre-proiektu hutsa izanagatik, heldu den urterako mendi irteeren egun eta helmugak zehaztuak dituzte dagoeneko.

Urtarrilaren 16an Berara; otsailaren 20an Hondarribiara; martxoaren 20an Etxalarra; apirilaren 17an Igantzara; maiatzaren 22an Leizara; ekainaren 19an Urdazubira; uztailaren 17an Txindokira; abuztuaren 21ean Mendaurrera; irailaren 12an Gorbeara; urriaren 16an Aia-ko Harrietara; azaroaren 20an Eratsunera; eta abenduaren 18an Doneztebera joanen dira.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Giro ederra izan zuten Berastegiko mendi irteeran

37 mendizalek parte hartu zuten Berastegiko mendi irteeran, abenduaren 12an. Aitzineko egunetan eguraldi kaxkarra iragarriagatik, gaueko elurtearen ondotik, oskarbi argitu zenez, mendizaleek ez zuten eragozpenik izan. Berastegiko elizan bildurik, argazkia atera eta Illarra Bokete Uli bidean goiti abiatu ziren. Uliko txabolan gosalduta, Donostiako ermita ondotik, beheiti jo zuten, Iku-sargiraino. Bertan, Luis Erasoren egurrezko eskulanen tailer eta erakusketa ikusi zituzten. 12:00etan elizarako bidea hartu zuten, Saizarren azalpenen laguntzaz, oholtza, organo eta elizpeko egurrezko egituraz gozatzeko aukera izan zuten. Eguna borobiltzeko, Ategi ostatuan bazkaldu zuten. Bazkalondoan musikaren bueltan, kantuan eta dantzan ibili ziren.

ABENDUAREN 19KO BILKURAN

Elkartearen egoeraz jardun ondotik, urte osoko jarduerak aurkeztu zituzten

Fernando ETXEBERRIA

Abenduaren 19an egin zuten Elkarteko ordezkariak 2017ko bigarren sei hilekoko bilera. Ekainaren 1ean, aho batez adostutakoa biltzen duen batzar-argiria irakurri ondotik, eguneko bidai, ikastaro, hitzaldi, erakusketa, kontuen egoera... biltzen duena, egungo egoera izan zuten hizpi-

de.

Besteak beste, 2.689 bazkide (54k heriotz arrazoiengatik elkartea utziagatik, joan den urtean baino 66 gehiago) direla adieraztearekin bat, diru-laguntzak nabarmen areagotu direla azpimarratu zuten.

Bide batez, elkarte-ko kideen bidaietako parte-hartze egokia eta

antolatzaileen lan txukuna ere zoriundu nahi izan zuten. Hala, zuzendaritza-batzordearen, ordezkarien eta bazkideen elkarlanaren erakusgarri da elkartearen

indarra.

Era berean, lehendakariak aurtengo buletinak banatu eta edukiak aurkeztu zituen: 2018rako aurreikusitako 22 bidaiak, 12 men-

di irteerak, 25 ikastarok, hitzaldiak, erakusketak eta lehiaketak.

Azkenik, Eguberri eta urte berri onak opa zizkien bilerara joan ziren guztiei.



ILBELTZAK 26, OSTIRALA

15:00 umeen kalejira izanen da, musikaz alaiturik.



ILBELTZAK 27, LARUNBATA

14:00etan Aurrera elkartean **bazkaria** izanen da. **16:00** aldera **eskean** hasiko dira herriko etxeetan. **01:00** kalejira egingen da plazatik Atekabeltzera. Ondoren, **karaokea**.

ILBELTZAK 28, IGANDEA

12:00 mozerro eta **gurdia** Incansables txaranga lagun, kalejira aterako dira. **12:00etatik 14:00etara** eta **16:00etatik 18:00etara** txu-txu tren herrian barna. **14:30** atsauretuak **bazkaria** izanen dute eskolako jangelan eta **19:00-23:00** Joxe Mendizabalen **musikaz** gozatzeko aukera izanen dute.

ILBELTZAK 29, ASTELEHENA

09:00etan gazteak elkartuko dira Aurrera parean Gorritaran, Arkixkil, Sakulu eta Erreka auzoetara **eskean** joateko. **17:00** umeen **kalejira** izanen da herrian. Ondoren txokolatada eta goxokiak banatuko dizkiete. **19:00etatik 23:00etara** Joxe Mendizabalen **musika** emanaldia izanen da.

ILBELTZAK 30, ASTEARTEA

09:30ean mozerroak Erasote auzora joanen dira, **eskean**. **11:00etatik 13:00etara** puzgarriak eta jokoak izanen dira frontoian. **14:00etan** Aurrera-ko bazkideen **bazkaria** izango da eta atsaurek Sagastin bazkalduko dute. **16:00etatik 18:00etara** puzgarriak antolatu dituzte frontoian. **18:30ean** Atsaureen **kalejira** izanen da. Ondoren, **19:30etik 21:30era** eta **23:30etik 01:30era** bitarte, Gabezin taldearekin musikak girotuko du herria.

ILBELTZAK 31, ASTEAZKENA

17:00etan Umeentzako 'Kalean otso etxean uso' ikuskizuna, zineman.

Melo Pinturak koop.
T. 609 873 178
LEITZA
www.pinturasmelo.com
pinturasmelos@gmail.com

ongi pasa ihoteak!

LEITZELARREA S.L.

Aroztegi eta Galdereria

Landa Beikoa Industrialdea, 20
Tel: 948 510 598 - 669 368 991
LEITZA

ongi pasa ihoteak!

Maimur

Herriko Plaza
LEITZA

Tel. - Faxe: 948 510 146
mairurleiza@gmail.com

- Prentsa • opariak • testu liburuak
- Plastifikatzeak • enkuadernatzeak
- Inprenta lanak • fotokopiak

Aliprox

Ordeategia • Harategia • Arraindegia • Prestategia

Tel: 948 510 007 - 948 610 657
Elbarren, 20-71

ongi pasa ihoteak!

Dia OKABIO

SUPERMERKATUA
KAFETEGIA

Ihote zoriontsuak opa dizkizuegu!

T. 948 510 731
Landa Etxea
Leitza

ONGI PASA IHOTEAK!

Lizarraga
harategia

"GUREA, KALITATEA"

Elbarren 71 - ALIPROX - 948 510 007 - LEITZA

Ainart
ILEAPAINDEGIA

ONGI PASA IHOTEAK

Elbarren, 67 behe - LEITZA
948 510 197

LEITZAKIROLAK

Urtarrilean eta otsailean
MERKEALDIAK!

Elbarren, 36 - LEITZA
Tel. 948 610 976
info@leitzakirolak.com
www.leitzakirolak.com

OLIVEIRA - VICENTE
eraikuntzak

ongi pasa ihoteak!

Amazabal, 17 • LEITZA • 629 418 431 • 606 307 810



LEIMEN S.L.

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 david

Ihote zoriontsuak deno!!

MUSUNZAR
OSTATU-JAETETxea

**ONGI
PASA
IHOTEAK**

facebook

twitter

Elbarren, 14
948 51 06 07
31880 LEITZA

www.musunzar.com

EZKAIN eraikuntzak S.L.



**ongi pasa
ihoteak !!**

Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com



ATSEDEN-GOZO

PINTXOAK, BOKATAK, PIZZAK...

BERTAN JATEKO eta BAITA ERAMATEKO ERE.
ONGI PASA IHOTEAK!



www.facebook.com/atسدengozo

Landabekoa 1zk kalea • LEITZA • 948 610 572



Juanes ZEBALLOS

Leitzako inauteriazalea

Inauteriek «**pestek ez bezalako zapo-rea**» dute Juanes Zeballosentzat, leitzar askorentzat bezala. Hortaz, debekatuak ziren garaian ere, herritarrek pesta txikiak zirela argudiatuz, ospatzeko aitzakiak bilatu zituzten. Eta pixkanaka, indarra hartu dute: «**gero eta herritar gehiagok parte hartzen dute**. Lehen, igandean ez zen karrozarik egiten, orain, desfilerako lan izugarria egiten da. Garai batean baserriz baserrikoan ibiltzen ginen ilundu bitarte, azken aldiar goiz samar itzultzen dira, eta horrek **eguneko saltsa nabarmenago** egiten du. Haurrak ere, irakasleekin atera eta **karrikak alaitzen dituzte**».

OROITZAPENAK ASTINDUZ

Urteak aurrera joan ahala, leitzarrari inauteriak bizitzeko modua ere aldatu zaio: «oso gautxoria nitzen, baina **orain eguneko pestaz gehiago gozatzen dut**, adinak ez du barkatzen». Baserriz baserri «gutxi ibilia naiz, baina ongi gordeta ditut oroitzenak». **Urte gutxi «nahikoak»** izan ziren horren berezitasunaz ohartzeko, baserritarren harrera eta jarreraz «**hitz positiboak baino ez gordetzeko**». Gogoan du utzi behar izan zuen momentua: «nire kabuz hasi nintzen lanean, eta horrekin batera utzi behar izan nuen». Ez zen gozoa izan, «tailerretik musika soinuak somatzeak itxi eta atzetik joateko gogo ematen zuen». Edonola ere, «inauterietako **gogoa ez zen itzali**, eta beste momentu batzuek hartu zuten indarra». Gaur egun, bereziki, «igandeko karrozen desfilea eta bazkalondoko mahai-ingurua» gustatzen zaizkio.

HUTSIK EGIN GABE

Badira «**hogeita zortzi urte**» lehenengo karroa atera zutenetik, «bi bikote baino ez ginen orduan, gizonak kordobarrez eta emazteak sevilarrak jantzi ginen, astoa garraiolaria eta haurrak lagun hartuta». Ordutik, urtero eta «hutsik egin gabe» karroa apartak plazaratu dituzte, «**burura datozkizun mozturro guztiak jantzi ditugu: indioz, erromatarrez, bakeroz, pirataz, pailazoz, pitufoz, gerreroz...** jantzi izan gara». Bat hautatzea «ezinezkoa» litzateke. Baina **egindako lana aintzat hartuz «joan den urtean abionetak egiten harturiko lana, Troyako zaldia- ren edertasuna edo bikingoz jantzi-tako urtean jantziak josten pasatako denbora»** nabarmenduko litzuke. Hirurak azken urteetan egindakoak dira, «hogeita zortzi urtez karrozak egiten ari ondolik ikasitakoa agerian uzten dutenak».

Ariztela
**DEKORAZIO
TAILERRA**
Ongi pasa ihoteak

- ETXERAKO ARROPA
- KORTINAK
- EUSKAL JANTZIAK
- INAUTERIETAKO TELAK
- SUJETADOREAK ETA BAINUJANTZIAK

www.manuelaariztela.com

TXOKO
taberna

**Pintxoak
Otaratekoak**

ongi pasa ihoteak!

Elbarren, 22
LEITZA
Tel: 948 510 227



«Inauteriak bizitzeko modua aldatuagatik, gogoia bizi-bizi mantendu behar da»

URTE OSOA EGUN BATEN BUELTAN

Egun handiaren aurretik «mozorro eta karrozaren prestaketak» direla, eta ondotik, inauteriek utzitako «iltzeari buelta hartu beharra» dela eta, «**urteko hitzordu nagusietako bat da inauteri igandekoa**» Leitzako kuadrilla batzuentzat. Karroza egiteko prozesua «luzea bezain polita» izaten da, «elkartzeko aitzakia ere bilakatzen delako». «**Apirila aldera hasita**», lehendabizi, mozorroa aukeratzen dute. Bakoitzak bere ideia botatzen du, eta «hortik abiatzen dugu hautaketa prozesua». Hala, hilabetero «**larunbat arratsalde bat hartzen dugu**». Lanak banatu egiten ditugu, «normalean gizonak garajea aritzen gara, emakumeak, berriz, elkartean arropak antolatzen». **Urtarrilean, azken txanpan sartuta, «ia-ia egunero elkartzen gara**». Tenorez hasiagatik, «askotan ezin bukatuz ibiltzen gara». Lanetik atera eta «iluntzeko 20:00etatik gauerdira bitarte» aprobetxatzen dugu. Behin **bukatuta, «denok elkarrekin, afari eder bat eginez»** hilabeteetako lana ospatzen dute.



EGUN BAKOITZARI BERA

Igandeko ajeak ez du asteleheneko parranda oztokatzen. Areago, 2008an hogeit bat urtez galduta egon zen tradizioa berreskuratu zenetik, **alanbre oinarritz egindako eta paper koloretsuz eta luzez apaindutako zapelak jantziz** eta aurpegia tapatuz, bezperako aje aurpegia tapatzeko ohitura errotzen hasia da herrian. Hainbat dira horren bueltan herrian dauden historiak eta istorioak. Besteak beste, «**Plazaolako langileek beste zeregini ez eta lanorduetan egiten zutela esaten dute**, ondotik, Tolosako inauterietara joan eta saldu egin zituztela ere entzun izan da. Baina gero handiagoak egin zituztela kontatzen dute». Zerbait egia bada, «**gero eta handiagoak eta ederragoak direla esan daiteke eta handitasun eta edertasun horrek eguneko protagonista bilakatzen ditu**».



LEITZAKO UDALA
ongi pasa ihoteak!



DENAUTO SAGASPER Tailerra

Ongi pasa ihoteak!!!

AUTO KONPONKETA

Eluseder Ind. • ARESO • T 948 510 610 • F 948 510 917

Ongi pasa
ihoteak!



FISIOETXEA

Ane Egizabal Llata
Fisioterapeuta

Bizkortze ariketak • Kirol eta Zirkulazio Masajea • Osteopatia
Erditze aurreko/ondorengo tratamendua
Etxez etxeko laguntza • Aseguruak
Mutuak • Partikularrak

Huarte Gotzaia, 8 3.C • LEITZA • Tel: 948 510 730

SAGASTI JATETXEA

ongi pasa ihoteak!



Elbarren, 98 • LEITZA • ☎ 948 610 637



948 610 974 | LEITZA

Ostiral, larunbat, igande
eta jai bezperetan
PIZZAK egiten ditugu



ONGI PASA IHOTEAK!

Olaia Bazar

ONGI PASA IHOTEAK

Jantziak - Loreak
Jostailuak - Papertegia
Etxeko Tresnak
Garbiketarako Produktuak
Herramientak - Oinetakoak
Pijamak - Osagarriak

Landabekoa - Leitza • T. 948 510 437 - 667 675 463

gaztelu scl

iturgintza

kalefakzioa • saneamendua • gasa

Ongi pasa
ihoteak!

Tfnoa: 948 510 086 • 948 510 156

Faxa: 948 610 856
LEITZA

KIDE

aholkularitza

- Kontabilitatea
- Zergak
- Autonomoak
- Enpresen sorrerak
- Autoen transferentzia
- Errenta aitortpenak
- Aholkularitza juridikoa
- Nominak, kontratuak...

ongi pasa ihoteak

LEITZA: Landa Ind. Suizpi 3 • T.948 510 990 F. 948 510 429
DONOSTIA: Urbietak, 60 - 1ºEzk • T. 943 420 348 F. 943 441 838
izaskun@kide.eus • www.kide.eus



Lizun
GAZTANDEGIA
ONGI PASA INAUTERIAK!

Sunbilla - Tel: 948 450 862



ONGI PASA INAUTERIAK!

ALTZURI

Leku-Eder, Bustitz - 31791 SUNBILLA
altzuris@yahoo.es - Tel. 948 450 504
M. 659 867 287 - 699 461 394

MENDI LANAK
EGUR ATERATZEAK
ESKABAZIOAK
GARRAIOAK
GARBITZE MEKANIKOAK
ITXITURAK

SU EGURRA ETA
PIKETEAK SALGAI

Jandari-denda

MARISOL SL

ONGI PASA INAUTEAK

JANARIAK | TABAKOA | DROGERIA | LOTERIA | PRENTSA
Kale Nagusia 7, 31790 SUNBILLA | T 948450608

ONGI PASA INAUTIKI!

Bustitz
ostatua

PINTXOAK • RAZIOAK
HAMAIKETAKOAK
KAXULAK • BOKATAK

T. 948 627 919
Leku Eder - SUNBILLA

INAUTERIETAKO
MENU BEREZIA



HARATEGIA
CARNICERIA

Mª JESUS

Karrika Nagusia, 11 • SUNBILLA
T. 948 451 530 • M. 686 279 252

ONGI PASA INAUTERIAK

ZONALDEKO KALITATEZKO HARAGIA
ETXKO PRODUKTU PRESTATUAK
ZONALDEKO GAZTAK

Iarreta

IGELTSU PROIEKTATUA

Bidasoa kalea 36 - Bera
iarretaigeltsua@gmail.com

PLADUR LANAK

Corka Arrebexa 627.225.514 Juanen Saralegi 637.921.299



SUNBILLA

INAUTERIAK 2018

EGITARAU

ILBELTZAK 27, ORTZIRALA

09:00etan Ariztigain kanpinean gosalduko dute. **Ondotik** herriko gazteak, bi taldetan, baserrietara joanen dira, Modesto eta Joxe Angel akordeolariekin. **Bazkaria** egingen dute, Exkernekobordan Mendaurre aldekoak, eta Bustitzen bertzeak. **Arratsaldean txokolate beroa** dastatzeko parada izanen dute herriko ttikiek eta **17:00/20:30ean** Dantzaldia izanen dute frontoian. **21:30ean** eskean dabilzanen afaria ez ezik, **emakumeen afaria** ospatuko da Ulibeltzak Elkartearen. Afal ondotik **sorpresa** izanen dute.



ILBELTZAK 28, LARUNBATA

10:00etan Bustitz ostatuan gosalduta, gazteak **eskean** ibiliko dira Beñat akordeolariarekin. **Ondotik** bazkaria egingen dute Fondan. **Gauean** gazteek Elortxurin afalduko dute.



ILBELTZAK 29, IGANDEA

11:00etan karrozen desfileko denboran, opilak, gaztainak, tortilla eta ardoa banatuko dizkie Ulibeltzak Elkarteak ikusleei. Desfilea bukatzerakoan, **bi magren eta bildotsaren** zozketa egingen dute. **14:30ean bazkaria** izanen dute Ulibeltzak Elkartearen, ondotik, berriz, **dantzaldirako** parada izanen da, Santxotenaren eskutik.



Braulio SANCHEZ | Sunbilla bizi den Salamankarra

1966ko abuztuaren 15ean, lana tarteko, Bartzelonatik Sunbillara bidalia izan zen Braulio Sanchez. **Sortzez Salamankarra izaki, ordura arte, herriarekiko zuen erlazioa «hutsala» zen.** Hasieran «euskaraz ez jakiteak» kezka sortzen bazion ere, antzinako ostatuan «hanka bat sartu orduko izaniko harrerak» hastapeneko buruhauste horiek «berekala ahantziarazi» zizkion.

«Herritarrek, ikusleak zapore gozoz uzteko, borondatez eginiko lana miresgarria da»

HERRITARREN LANA

Egun, Sunbilla «aunitz» maite du, «bai herritarrak, bai lasaitasuna eta edertasuna, baita gainerako herriekiko duen hurbiltasuna ere». Urteko egun politenak «bestak eta inauteriak» dira berarentzat, eta bereziki, inauterien itzalpean «**borondatez, ordainsaririk gabe, egiten duten lana» miresten du:** «batzuek salda, gaztainak, tortilla, taloa eta ardoa banatzen dute; bertzeek, berriz, desfilerako izugarritzko lana hartzen dute», eta **guztia «ikusleak zapore gozoz uzteko»**. Azken batean «herritarren lanak ikuslerik gabe balio ez duenez», eta «ikusleak herritarren lanaz gozatzeri etortzen direnez», norabide bikoitzeko hartu-eman hori «gori-gori mantentzearekin» amesten du. Baina, dudarik gabe, «**ikusleak orain artean bezala zainduz gero, ahoz aho hedatu, eta ezagutzen dutenak itzultzeaz gain, jende gehiago etortzen da»**.

«Salamankarra naiz eta Valladoliden ere bizi izandu naiz. Aitzitik, bateko zein bertzeko inauteriak ezin dira hemengo ikuskizunarekin alderatu».

OMENALDIA

2014an, Sunbilla herritarrek hainbat urtetan, inauterien bueltan boletoak salduz, egiten duen lana eskertzeko, omenaldia egin zioten. Gogoan du momentua, «**ilusio handiz**» bizitakoa, «inondik inora espero ez zuen txapela jantziz» burua estaltzeaz harago, bihotzera ailegatu zitzaion eta.

INAUTERIAK BIZITZEKO MODUAK

Urtez urte, era batera edo bertzera bizi izan ditu inauteriak. Hasierako urteetan Valladoliden biziagatik, «**inauterietara etorri eta koinatuaren ostatuan lanean» pasatzen zituen egun horiek**, «eta horrek, bestaz gozatzen zutenekin enpatia sentituz, besta giroa lehendabiziko ilaran bizitzea ahalbidetzen zigun». Azken urteetan, berriz, karrika xokoetan ibiltzen da, «**karrozarteko koloreetan nahasirik, parte-haztaileen giroa eta bisitarien harridura sentituz**». Karroen harat-honatean, ikusleen artean zozketa-billeteak saltzen ditu «Maria Jesus Jorajuria eta Joseba Altzurirekin batera» bera aduratzen baita horretaz. **Txartelak saltzeko «lotsa gutti eta aurpegia ematea» ditu sekretu.** Eta «zenbaitetan astun xamarrek bagara ere», aunitzek erosten dute. Gehienak «elkartean saltzen ditugu», eta «nik, pertsonalki, **lagun kuadrilek gosaltzen duten ostatu, denda eta txokoak aprobetxatzen ditut**». Ikusleek ere «ekarpen handiak egiten dituzte». Batzuen kasuan zozketa aitzinetik alde egiten dutenez, «telefonoak hartzen ditugu, saridunak jakinarazteko, eta horrek ere laguntzen du».



SASOI
eraikuntzak s.l.

Leku-eder, 5 31791 SUNBILLA
T. 948 451 596 F. 948 456 168
info@sasoi.es

Ongi pasa inauteriak!!

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C
motako
GASOLIOA
ETXERA
24
ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693



IRURI
MOTOR

Aukerako autoak
Turismo eta furgoneten salmenta
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua

ONGI PASA INAUTERIAK!

T. 948 450 399 · 620 950 687
Iruña-Irun errep. zaharra | SUNBILLA

JAVIER IBARRA

ERAIKUNTZAK · GREMIOEN KOORDINAZIOA
MOTA GUZTITAKO IGELTSEKITA LANAK



- Etxe bizitza berriak
- Zahar berritzeak
- Erreformak · Teilatutak
- Komun eta sukaldeak
- Lur zorruak
- Harri lanak orokorrean
- Hormigoia lanak

ONGI PASA
INAUTERIAK!!

T. 699 122 815
31791 - SUNBILLA
(Nafarroa)


INAUTERIETAN
zure gosari eta bazkariak
ARIZTIGAIN



KANPINEAN!!

ONGI PASA INAUTERIAK!!

SUNBILLA · 948 450 540
info@campingariztigain.com
www.campingariztigain.com



SUNBILLAKO UDALAK

Inauteri zoriontsuak
opa dizkizue
sunbildar eta bisitari guztioi



MENDEBERRIA
eskabazioak S.L.

ONGI PASA INAUTERIAK



GARRAIOKO OPERADOREAK
KAMIOIAK TRAKZIOAREKIN ETA BAINERA

LEKU EDER 13 · 31791 SUNBILLA


675 266 027 (ANDONI) 657 580 551 (JUAN LUIS)
BULEGOA 948 450 108 · 672 098 384

Zaira GAZTELUMENDI

Sunbillako gaztea

«Karroza gure kasa egiten dugunetik gurasoek egindako lana eskertzen dugu»

Ez dira urte aunitz karroza gurasoekin egiteari utzi zietenetik, eta horren ondorioak antzeman dituzte lagunartean.



«Euskal dantzak dantzatzea» du zaletasun sunbildar gazteak. Bortz bat urterekin hasi zen dantza taldean, orain hamabi daramatza eta «aunitzez gehiago» izan daitezen espero du. Inauterietan dantza taldearekin emanaldirik izaten ez badute ere, «**fandango edo arin-arin guztien bueltan izanen naiz, halakoetan ezin baititut hankak geldiarazi**».

Musikaren inguruan ez ezik, mahaiaren bueltan, karrozen desfilean... han eta hemen ikusiko dugu Zaira Gaztelumendi. Izan ere, «**inauteriak bestekin alderatuz, hagitz motzak dira, ezin da denborarik galdu eta momentu bakoitza aprobetxatu beharra dago**». Areago, «neskak ez gara baserriz baserri ibiltzen, eta beraz, gehienontzat ortziral ilunbarrean hasten direnez, ohartu orduko pasatzen dira».

Goiz baino behar bezala hastea hobe izaten da maiz. Eta, aurtengoan, hasiera «berezia» izanen da. Orain artean «kuadrilakoekin egiten nuen afaria, **aurten, emakumeen afarira joateko asmoa dut**». Duela «ez aunitz hasi zen egiten, baina indar handia du». Kuadrilla ederra biltzen da, «80 lagun inguru» eta afaria gizonek prestatzen dute. Inoiz ez naiz

izan, baina gogotsu nago, giro ederra sortzen dela baitiote denek».

Azken eguna «politena» eta «inauteriak zapore gozoz bukatzeko» bikaina da bere ustez. Izan ere, «**desfileko momentuak adierazezinak diren sentimenduak eragiten dizkigu**». Hasieran «lotsa pixka bat emanagatik, pixkanaka, guztiok egoera berean gaudela pentsatuz» aurre egin eta «gozatzea» lortzen omen dute. Baina, noski, horretarako, «**aitzinetik lan handia egin behar izaten dugu**».

Orain dela «hiruzpa lau urte arte», gurasoekin ateratzen ziren; orain, ordea, lagunekin: «Eguberrien aitzinetik lagunak bildu eta moztorra erabakitzen dugu, gero, Eguberriak aldera, buru-belarri hasten gara». Lagunartean egitearen abantaila nagusiak «**erabakitzeo askatasuna eta egindako lanaren harrotasuna**» dira. Halere, «lana izugarria izateaz gainera, traktorea eta karroa bilatzeko zailtasunak izugarriak direnez», tarteka, «**gurasoengana jo eta laguntza eskatu behar izaten diegu**». Orain, karroza egiteak eskatzen duen «pazientzia eta denbora ikusirik, gurasoek egiten zuten guztia eskertzen ikasi dugu».

«Inauteriak hagitz motzak dira.

Beraz, ezin da denborarik galdu, momentu bakoitza aprobetxatu behar da».



ITUREN

ZUBIETA

AURTITZ

EGITARAU

ILBELTZAK 29, ASTELEHENA

Goizean, gosaldu eta indarrak harturik, **Zubietako joaldun**, mozerro eta karrozek **iturendarrak** bisitatuko dituzte. Halere, bide erdian, **aurtiztarrekin** elkartzeko eta salda beroa hartzeko geldialdia egingen dute. Iturenen bertakoekin bildurik, mozerro artean eta joareen soinupean ibiliko dira herritar eta bisitariak.



ILBELTZAK 30, ASTEARTEA

Bezperako **bisita itzuliko** diete aurtiztar eta iturendarrek, Zubietako plaza hankaz goiti paratzeko momentua izanena da.

ILBELTZAK 31, ASTEAKENA

Zubietan, Ituren eta Aurtitzen ez bezala, kontuak egiteko eguna izaten da. Goizean goiz, puskak biltzen ibili ondotik, gosaria izanen dute. Bazkaldu ondotik, berri, **kontuak** egingen dira. Arratsaldean, giroak lagunduz gero, joareak jantzi eta harat honatean ibiliko dira joaldunak. **Aurtiztar eta iturendarrak** ere, **etxez etxe** ibiliko dira joaldun eta trikitilarekin. Iluntzean, **afariak** izanen dira elkarteetan.



OTSAILAK 3 ETA 4, LARUNBATA / IGANDEA

Kontuen eguna larunbatean izaten da Iturenen eta igandia Aurtitzen. Iturenen **mahaiaren bueltan bilduko dira**, Miren Amuriza eta Julio Sotorekin, Herriko Etxeko ganbaran. Aitzinetik herriko **dantzarien saioa** eta **herritarren arteko Herri Kirol lehia** izanen dira. Bazkaldu ondotik, **dantzaldia** izanen dute, **afarira bitarte**. **Aurtizen xaharren afaria** egingen dute igandean.

ttipi-Itapa | 701 zk.
2018.01.11 | 33



ALTXUNEA **erretea**

ongi pasa inauteriak!

IREKITA: ostiral eguerditik igande eguerdira, besta egunetan eta besta bezperatan

Tel. 948 450 410 | ITUREN | NAFARROA

ileapaindegia
EIDER
Estetika



Asteartea, ortzeguna eta larunbata GOIZEZ
Asteazken eta ortzira ARRATSALDEZ

Kontsejo, 6 · ITUREN
T. 630 633 445



Gosaria
Pintxoak
Menuak

Tel: 948 45 00 67

MADERAS SANTESTEBAN

Ongi pasa inauteriak!

Mendi lanak
(Pinuak erosten dira)

Bigak

Montajea obran

Teilaturako egiturak

Izei, haritza eta douglasezkoak edo laminatuak

Osagarriak

Autoklabe tratamendua

www.maderasantesteban.com



Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com



25. urteurrena
DESKONTUAK
%75
arte

LA MASCARA

Inauterietako mozerroetan den-dena daukagu

Era guztietako osagarrien salmenta

Makillaje profesionala

www.lamascara.es

mascara@lamascara.es

Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04



**Iturengo eta
Zubietako
Udalek**
inauteri
zoriontsuak
opa dizkizute
herriar eta
bisitari guztiei



ITURENGO
UDALA



ZUBIETAKO
UDALA



ECHEVERRIA
ZURGINDEGIA


**PVC
LEIHOAK**

BERTAN
EGINDAKO
PVC FABRIKAZIOA



BERRITZEAK ETA OBRA BERRIAK,
EGURRA, ALUMINIOA ETA PVC.

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE



Leitza errep. · 31745 **ITUREN**
M. **676 393 996** · T. **948 450 327**
carpinteriaecheverria@yahoo.es

ITUREN

ZUBIETA

AURTITZ

Mikele ETXEKOLONEA | Zubietako joalduna

«Inauterietan berezitasuna
herriarren batasuna eta
ikusleen miresmena dira»

«Bizipozez, egun bakoitza azkena izanzen balitz bezala bizitzen saiatzen den zubietar gaztea» da Mikele Etxekolonea. Zazpi bat urterekin, inauterietako asteartean, «anaiaren arrimuan», jantzi zituen lehendabizikoz joareak, eta orduz geroztik «arrant gutxitan galdu dut aukera». Herrian ez ezik, «Donostian, Barañainen, Lemoizen, Hondarribin, Parisen, Dantxarinean...», **han eta hemen, astindu izandu du gerria**. Baina herrian, eta bereziki, inauterietan, paratzeak «xarma berezia» du. Hori horrela, «garai batean egun bateko kontua zena, gaur egun, inauterietako astelehenera, Iturengo egun handira, luzatu du, mozorroa joareek ordezkatu dutelarik». Mozorroa jantzi duten urte horietan, «nire tokia aurkitu eta behar bezala gozatzea kostatzen zait, joareek, zentzu horretan, ez dute hutsik egiten». 'Joaldun' edo 'joare' hitzek «sentimendu asko» eragiten dizkiote: «**soinuak, pausoak, herriarren artean sortzen den batasunak eta ikusleen miresmen aurpegiak irudikatze hutsak oilo ipurdia paratzen dit**». Berezi kanpora ateratzean «jendeak ikuskizuntzat hartzeak, eta ikuskizunaren erdigune gu izateak, barrena mugiarazten du». Edonola ere, joareak kenduta, ez dira inauteriak akitzen. «Kontzentrazioz» eta «serioki» hartu beharreko momentu horren atzetik, «inauterietan mahaiaren bueltan, gosari, bazkari eta afarietan; eta mahaitik altxatu ondotik, bizitako mo-

mentuek, ez dute preziorik». Herriarrek mugiarazteko, goizetan «**trikitixa astinduz herriari buelta ematen**» ere ibiltzen da zubietar gaztea. Inauteriak «egunez egun beharrean, ekitaldiz ekitaldi, momentuz momentu» bizitzen ditu. Hortaz, **astearteko puska biltze momentuan ere ez du hutsik egiten, bezperako ajeari aurre eginez**, «trikitixa eta joare soinuak elkar-trukearekin aurpegiak alaitzen» hasten dira, eta «ongi gosalduta, guztiz indaberritzen gara». Herri bakoitzak berea izanagatik, Zubietaren kasuan «**inauteriek herriarrengan duten izaera sakratuak, bizitzeko moduak**» egiten ditu berezi, eta «euts diezaiozun horri!».

«Inauteriak momentuz momentu bizi behar dira, seriotasunez batzuk, eta askatasunez besteak».



BEROTZA
PELLET

PELLET SISTEMEN SALMENTA, INSTALAZIOA ETA MANTENTZEA

948 450 063-620 886 443
info@berotza.es - www.berotza.es
31745 **ITUREN** (Na)



BEROGAILUA



GALDARA



GALDARA MISTOA





ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Olentzerorekin ibili ziren goizean eskolako ikasle eta gurasoak eta gau partean helduak.

GIZARTEA → URTARRILAREN 12AN

Errefuxiatuak hizpide izanen ditu Luzia Etxeberriak

Ostiralean 18:30ean udaletxeko ganbaran

TTIPI-TTAPA

Elurra zela eta atzeratu zen Nafarroako Brigadak taldeko Lucia Etxeberriak Azaroko Kultur Egunetan eskaini behar zuen errefuxiatuen inguruko hitzaldia. Gazte Asanbladak eta Gizarte Zerbitzuek elkarlanean antolatutako hitzaldia urtarrilaren 12an egingo da azkenean, ostiralean 18:30ean udaletxeko ganbaran.

PAC

Ardi eta behi edo txorren subentzio kan-

painarako beharrezko diren ziurtagiriak udaletxean eskatzeko epea urtarrilaren 23a bitartean zabalik dagoela jakinarazi du Udalak bando bidez. Eskaera egiterakoan, aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da: errolda agiria, 3 urteko antzinatekin; herrian, urtean gutxienez 9 hilabetez bizi denaren zinpeko aitortpena; udalarekin zorrik ez duenaren ziurtagiria; bakoitzak, jabetzan edo alokairuan, dituen lurren zinpeko aitortpena; azindako kopuruaren ziurtagiria eta txosten sanitarioa; nagusiki abeltzaintzan edo nekazaritzan aritzen diren ziurtagiria.



Ba al zenekien

Udalak 2018ko aurrekontuetan, 17.000 euroko gastu partida bat aurreikusiko duela parkeetako proiektua gauzatzeko? Parkearen diseinua eskolako haurrek egingo dute.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Umore Onaren Eguberrietako kontzertua herrian eta Hernanin

Iazkoa berezia izan zen, Umore Ona abesbatzak 10. Urteurrena ospatzen zuelako. Baina oraingoan ere ez dute hutsik egin eta Eguberrietako kontzertua eskaini dute Umore Ona abesbatzakoek Eneko Amundarainen zuzendaritzapean abenduaren 17an elizan. Nagusiek ez ezik, herriko gaztetxoek ere abestu zuen, bai bakarrik, baita elkarrekin ere. Kontzertuaren ondotik, bazkaria izan zuten abesbatzakoek Umore Ona elkartearen abenduaren 23an, berriz, Eguberrietako kanta eta doinuak eskaini zituzten Hernaniko San Joan Bataia-tzailearen elizan Hernaniko Musika Bandak, Ereñozuko Ozenki abesbatzak eta Umore Ona abesbatzak. Imanol Kamiok, Eneko Amundarainek eta Roberto Pachecok zuzenduta, hamalau pieza jo eta kantatu zituzten Urumealdeko ehun musikari eta abeslari inguruk.



UTZITAKO ARGAZKIA

Turroiak, mazapanak eta beste gozoak egiteko ikastaroa

Bederatzi pertsonen parte hartu zuten mazapanak, turroiak eta igaro berriak ditugun garai hauetan hainbeste jaten diren beste gozoak egiteko ikastaroan eta oso gustora aritu ziren. Bidatz Barrenetxea Cebank sukaldaritza-ostalaritza eskolako irakasle hernaniarrarekin, mazapanak, turroi gogorra eta bigun eta panallets-ak nola egiten diren ikasi zuten.

GIZARTEA → ILBELTZAREN 13AN

Presoen aldeko manifestaldira joateko deialdia egin du Kalera elkarteak



ARGAZKIA: AI KE

Eguberri Egunean, Herriko etxe aurre askotan izan ziren Orantzaroak ikusgai. Lanbide eta itxura askotakoak atera zituzten: bertsolari eta musikariak, gizonetakoak zein emakumezkoak.

Autobusak
antolatu dituzte
eta 15:30ean
abiatuko dira

JM BARRIOLA

Abenduan hasi zituzten euskal presoen egoera salatzeko eta beren eskubideak aldarrikatzeko ekitaldiak herrian.

Abenduaren 9an, esaterako, hogeita hamar herriar eta eskualdeko lagun joan ziren Parise-ra, 'bakearen artesauek' izeneko martxan parte hartuz. Abenduaren 31n, berriz, manifestaldia egin zuten.

Orain, berriz, Leitzako Kalera Takdeak Bilbon, ilbeltzaren 13an, 'Prest gaude' lelopean, eginen den manifestaldira joateko deialdia egin du. Joanaldia errazteko, autobusak ere antolatuta ditu.

Autobusak 15:30ean
abiatuko dira plazatik eta
txartela eskuratu nahi
duenak, Torrean edo
Maimur liburu dendan
eros dezake.

Orantzaroa herrian

Urteko egun motzetan, Eguberrietako ospakizunak izaten dira han eta hemen. Leitzan, esaterako, Egu-



ARGAZKIA: UDALA

157 lagunek lasterka eman dute urtez urteko urratsa

Azken urteetan Guraso Elkarteak antolatzen zuen San Silbestre lasterketa Anikote enpresak antolatu du aurtengoan. Adin guztietako 157 korrikalarik hartu zuten parte. Era berean, 2018an sarturik, aurtengo kirol egutegia argitaratu du elkarteak.

berri Egunean, Herriko etxe aurre askotan izan ziren Orantzarok ikusgai. Lanbide eta itxura askotakoak atera zituzten: bertsolari eta musikariak, gizonezkoak zein emakumezkoak.

Iluntzean Orantzaroa ez ezik, Maimur sorginaren, jentilaren eta gal-tzagorrien etorrera izan zuten herrian. Are gehiago, aurtengoan, lehenengo aldiz, Basajaun ere etorri zen. Azken horrek, Orantzaren enborra ekarri zuten, sua pizteko erabili

zutena. Suaren bueltan dantza saio ederra eskaintzeaz gainera, kondaira zaharretan gorde diren parajeak aipatuz eta irrintzi artean, ikuskizun ederra sortu zuten herrian.

2018an sarturik, abenduaren 4an erregeei dei egin zieten herriarrek zintzarriak astinduz. Biharamunean, erregeen etorrera izan zuten herrian. 18:30an hasita, gutunak, musuak eta opariak partekatu zituzten erregeek herriko txikienekin, ilusioz.

Wifi sarea

Udalak udaletxean burutzen diren ekintzetan interneteko erabilera errazteko asmoz, doako wifi sarea instalatu du. Udal eraikinaren gain, plaza gunean ere *Leizta_sare_librea* seinalea hartuko da. Doakoa eta irekia izanen da. Sisteman sartzeko ez da inolako identifikaziorik eskatuko. Herriar guztiek izanen dute sarbidea edozein gailutatik, esaterako ordenagailu eramangarriak, telefonoak, tabletak...

LEITZA KONTSUMITUZ

Planaren
aurkezpena
eginen dute

JM BARRIOLA

Bertako produktuen ekoizpen, salmenta eta kontsumo bultzatzeko plana sortu dute Leizta Kontsumituz prozesuaren baitan. Ekin-tza planaren ardatz, 2017ko azaroan egini-ko bileretan jasotakoak izan dituzte.

Prozesua bera positiboki baloratu dute; besteak beste, parte hartze anitza azpimarratuz. Bilertan gutxi gora-behera 50 lagun inguru bildu dira, eta orain, urtarrekan planaren aurkezpen irekia egin nahi dute.

Hurrango erronka ekintza plana aurre-
ra eramatea izanen
da. Hori horrela, au-
rrera eramateko lan
taldeak osatzen ere
hasiko dira laster.
Hau idazterakoan
aurkezpen eguna eta
taldeak osatzeke
zeudenez, 702. zen-
bakian izanen duze
zehaztapen gehiago.

GIZARTEA → UDALAK

Mendian federatzen direnentzako diru-laguntzak zehaztu ditu

%15eko deskontua izango dute

TTIPI-TTAPA

Aresoko mendi taldean federatzen diren herritarrek Kirol Mankomunitateak ematen duen laguntza jaso ahal izango dute aurten ere. Hala, ordaindu beharreko tasek %15eko beharapena izango dute. Herrian lehenengo aldiz federatzen direnek udal txean bete dezakete izen-emate orria edo bestela, www.kirolmank.eus orrialdean Areso Mendi taldea ataletik deskargatu eta beteta kirolmankomunitatea@gmail.com helbidera bidali. Bertan lortu daiteke modalitate eta tasa

guztiei buruzko informazioa. Ordainketa Kirol Mankomunitatearen kontuan egin beharko da eta agiria Udaletxean aurkeztu edo Mankomunitatera emailaz bidali. Aurrez Areson federatuta daudenek modalitatea eta izen-abizenak zehaztuz Kirol Mankomunitatearen kontuan ordainketa egitea nahikoa izango da.

Ur-hornidura tasak

Urtarrilaren 20ra arte egongo da zabalik 2017ko ur-horniduraren tasak ordaintzeko borondatezko epea. Hortik aurrera gainkargua gehituko zaio: urtarrilaren 21etik 31ra, %5ekoa eta otsailaren 1etik aurrera, %20koa.



Ba al zenekien

Alpatteneko produktuak erosteko aukera izango dela ostiralero Leitzako azokan.

GERTAERA ABENDUAREN 29AN

Elizako ezkerreko aldea erre da

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 29an goizeko 11ak aldera eman zuten abisua, kea ikusten zen eliza inguruan eta larrialdi zerbitzuetara deitu zuten hainbat herritarrek. Foruzainak, Leitzako suhiltzaile boluntarioak eta Iruñea eta Tolosako suhiltzaileak bertaratu ziren sua itzali eta gertatutakoa ikertzera. Ezkerreko aldea, amabirginari eskeinitakoa, osorik erre da baita amabirginaren irudia eta erretaula ere. Ezbeharraren zergatiak ikertzen ari dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Olentzero ongietorria egin diote haur eta gurasoek

Abenduaren 24an ilusio berezia nabari zen goizean goizetik herriko haurrengan. Gurasoek lagunduta kantuan ibili ziren herrian itzulia eginez eta behartsuei laguntzeko sosa batzuk ere bildu zituzten. Iluntzean, Errandoneko atarian egon ziren denak ikazkinaren zain eta honek ez zuen hutsik egin asto gainean denentzako opariak ekarri zituen eta.



UTZITAKO ARGAZKIA

Leku Ederrean joan da Guraso Elkarteak saskia

Eguberrietan Guraso Elkartek saski eder baten zozketa egiten du urtero. Euro baten truke asko izan dira boletoa erosiz elkarteak egiten dituen proiektuak finantzatzeko laguntza eman dutenak. Zenbaki sariduna abenduaren 22ko loteriako sari nagusiak zehaztu zuen eta Leku Ederreko Txomin, Laura, Naroa eta Maren izan dira irabazleak. Zorionak eta on egin!



BAZTAN

GIZARTEA → BAZTAN-BIDASOALDEKO ETA INGURUKO HERRIEK HILTEGI ZERBITZU OSOA IZANEN DUTE

Loizu udal hiltegiko zatiketa zerbitzua aurkeztu du Udalak

105.829 euroko inbertsioa egin du

TTIPI-TTAPA

Azaroko udaleko ohiko osoko bilkuran Loizu udal hiltegiko zatiketa zerbitzuko prezio publikoak onartu ondotik, hildako aziendak puskatzeko zerbitzua abian da. Modu horretan 2014an hasitako proiektua bururatu eta hemenetik aitzinerat Baztan, Malerreka, Bortzirriak eta bertze inguruetako herritarrek hiltegi zerbitzu osoa izanen dute.

Udalak denera 105.829 euroko inbertsioa egin du, bi alditan: lehenengoan 2014. urtean instalakuntza berriaren eraikuntza 82.829 euroko inbertsioarekin (Europako Leader programatik 32.000 euroekin diruz lagundua). Bigarrena aurten, azia hila sartzeko erraiaren moldaketa, motordun garabiltzikia paratzea... denera 23.100 euroko inber-



UTZITAKO ARGAZKIA

Udal ordezkariak hiltegiko langile batekin, puskatze-gela berriaren aurkezpenean.

tsioarekin. Modu berean, hiltegiaren kudeatzaileak 22.000 euroko inbertsioa egin du, kasu honetan hutsean ontziratze makina, haragi zerrak egiteko eta haragia xehatzeko erosteko. Hiltegiaren zatitze zerbitzua paratzeko erabakia 2011-2015 legealdian hartu zen hiltegiari buruz gogoetatze antolatutako fo-

roetan. Zerbitzua herritarrei orokorrean eta salmenta zuzenean airtu nahi duten nekazari bideratua dago, baita harakinei ere. Zerbitzu honek, aldi berean, hiltegiarendako lan-berria suposatuko du eta, beharbada, errefortzuko lanposturen bat.

2016ko udan hiltegiaren kudeaketa berria esleitu zen, kudeaketa

ez zuzena egitea erabaki baitzuen udalak. Gerroztik, Baztango Hiltegia S.L.k kudeatzen du. Gaur egun borts langile lanean ari dira.

Udalarendako Loizu hiltegia tokiko garapen sozioekonomikorako estrategikoa da. Hori dela eta zahartzen ari diren instalakuntzen berritzean segitzeko konpromisoa du.

FLASH

'Iragana, lahar eta larrosa' herri antzerkia Iruritan

Iragana, lahar eta larrosa herri antzerkia ikusgai izanen da urtarilaren 14an, igandean 19:00etan hasita Iruritan Damaso Zabala Gizarte Bilgunean. Udaleko Kultura Batzordeak antolatu du, Nafarroako Gobernuaren 2018ko Arte eta Kultura egitarauaren baitan. Sarrera doan izanen da. Antzezlan honek Miguel Primo de Riveraren diktadura egon zeneko garaietatik Gerra Zibilaren hasierara eramaten gaitu (1923-1937), Gipuzkoako Goierriko herri batean.

Bailableak

igandean Elizondoko

Baztango Dantzariak eta Elizondoko Gaitariak taldeen eskutik Bailableak (Muxikoak, jotak, larrain-dantzak) izanen dira urtarilaren 14an, igandean 12:45ean Elizondoko plazan (euria eginen balu Braulio Iriarte frontoian).

San Anton eguna

San Anton Eguna ospatuko dute Elizondoko urtarilaren 17an. Asateazken goizeko 11etan zopak banatuko dira, eguerdian bertsolariak ariko dira kantari eta 13:00etan zozketa eginen da, Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxearen alde. Beti bezala, Balleko Etxeko balkoian eginen da zozketa eta txartelak euro baten truke eros daitezke komertzioetan edo egunean berean, albinteen eskutik. Zozketa hau gutienez 1867. urtetik eginen da Elizondoko.

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldi irekiera urtarilaren 20an
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

Ohariz Auzoa z/g · LEKAROZ
T.948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

HARRI LAN, S.L.
ESTRUTURA EN PIEDRA

BAITA ERE HORMIGOI INPRIMATUA

KULTURA → ILBELTZAREN 15ETIK 21ERA

Euskal Nobela Beltzaren Astea ospatuko dute

Ilbeltzaren 20rako egun osoko egitaraua antolatu dute, mahai-inguru, bazkari, lau libururen aurkezpen eta susmagarrien gauarekin

TTIPI-TTAPA

(H)ilbeltza elkartearen eskutik, eta Arizkungo Zurubi Elkarte, Amaiurko Elkarte, Erratzuko Kultur Elkarte, Erratzuko Etxeleberteko Txokoa eta Anizko Elkartearen laguntzaz, aurten ere, Euskal Nobela Beltzaren Astea antolatu dute. Urtarrilaren 15etik 21era bitarte,

idazle, irakurle edota literaturzaleek, belztasunean, idazleen liburu aurkezpenetan, mahai-inguruko tertulia gozotan, filmak edota ipuin antzeztuak ikusiz... han eta hemen, gozamenerako tartea izanen dute.

Ilbeltzaren 15ean, astelehenean, *Telleria eta gero, zer?* liburuarren harira, Ernesto Prat Irzainzkiren solasaldia-ekin hasiko dute aste beltza, Arizkungo Liburutegi Beltzean (medi-kuaren etxean), 19:30-ean.

Asteazkenean, **ilbeltzaren 17an** Txomin Peillenek hartuko du lekukoa. Joxe Angel Iri-garai elkarrizketatzaile duela, Amaiurko Gazte-lu elkartearen, 19:00etan, solasaldia eskainiko du.

Ilbeltzaren 19an, or-tziralean, *Chinatown* fil-



UTZITAKO ARGAZKIA

Errepideetarat aziendak ez jaisteko lau parrila egin ditu Udalak

Elizondo-Irurritako saihesbiderat jaisten diren aziendei bidea herstekeo, Udalak Lekaroz aldean lau parrila egin ditu. Egindako lanek denera 25.000 euroko inbertsio ekarri dute eta urria eta azaroan barna egin dira. Orain urte bat inguru Legate aldean aziendak ibiltzen dituzten nekazariekin bilera egin zuen Udalak eta parrilak egiteko konpromisoa hartu zuen, batez ere negu aldean errepide-rat jaisten diren zaldi eta behorrei bidea galerazteko. Horrela, urria eta azaro-an Lekarozko Iñaranen, Tellerian, Irulegian eta Lezaben aipatu parrilak egin di-ra. Lanak Altzugarai S.L. enpresak bururatu ditu 23.900 euroan; proiektuaren idazketa eta zuzendaritza berriz Mendikoak egin du 1.000 euroan. Lanak egi-teko Nafarroako Gobernuak %55eko dirulaguntza eman du. Heldu den urtean Beartzungo bidean berzte parrila egin nahi luke udalak.

ma izanen da ikusgai, Nerea Arrutiren eskutik, Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean, 19:00-etan.

Biharamunerako, **ilbeltzaren 20rako**, egun osoko egitaraua antolatu dute. Goizean, *Bel-tzaren estereotipoak li-teraturatik ikusentzu-nezkoetarat* mahai ingu-ruan bilduko dira Iratxe Fresneda eta Irati Jime-nezekin batera, Arantxa Iturbe moderatzaile du-tela.

Ondotik, 14:00etan, Erratzuko Elkartearen bazkalduko dute. Zen-batsu jende izanen den jakiteko txartelak ait-zinetik erosi beharko dira email honetarat me-zua igorritz: *ilbeltzabazta-nen@gmail.com*.

Bazkalondoan, lau li-buru-aurkezpen izanen dituzte: Jon Arretxeren *Arrutiren banda*, Pierre Mestrotren *Bihotz eba-tsiak*, Galder Perezen *Morbus operandi* an-tzezlanaren gidoia eta

John Anduezen *Dan-ba!*, hain zuzen. Iluntze-an, susmagarrien gau-e-an ibiliko dira baztan-dar eta bisitariak.

Nobela Beltzaren As-tea borobiltzeko, igan-dean, **hilaren 21ean**, 11:00etan ipuin an-tzeztua izanen dute, Ani-zen. Arratsaldeko 7etan, berriz, *Hama(H)iru ate* ikuskizuna eskainiko dute Irurritako Jauregi-arten, Mitxel Saraske-ta, Iñigo Belzunegi eta (H)ilbeltzakideek.

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babes

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 - F. 948 580 648

www.zergalan.es | info@zergalan.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

**CARLOS
GARAIKOETXEA
ETXENIKE
abokatua**



Santiago, 59 2C
ELIZONDO
T. 948 581 468
M. 630 354 818

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → ILBELTZAREN 20 ETA 27AN

Inauteriak astebete gibeleratu dituzte Anizen eta Berroetan

Lehenik Anizen bilduko dira gazteak eta hurrengo larunbatean Berroetan

Maitane MARITORENA

Eguberrietako besta eta bestondoak pasatu berri eta hemen dira dagoeneko Anizko inauteriak. Orain artio errege ondoko asteburuan izaten baziren ere, aurtan

errege eguna asteburuarekin izaki, inauteriak asteburu bat gibeleratu dira, hori dela eta ilbeltzaren 20an izanen dira Anizko inauteriak, eta 27an Berroetakoak.

Ilbeltzaren 19an, ortziraletan, Anizko eta Berroetako gazteak geldituko dira afaltzeko eta barnak berotzen hasteko, baina egun handia larunbatean, 20an, izanen da. Goizeko 9etan Anizko Mendiarte kultur elkartearen elkartuko dira gosaria egiteko. Gosa-



ARGAZKIA: MAITANE MARITORENA

Aniz eta Berroetako gazteek elkarrekin ospatzen dituzte inauteriak.

Ba al zenekien

Bentan 17:00etan hasi eta Askagainen 20:45ean akitu arte, kasik lau ordu eman zituela Olenzerok Anizko etxeetan bakarri. Kontuak atara!

ria izanen da elkartearen, ondotik Salaberrirekin dantzaldi-kantaldia gauak ematen duen artio.

Ondoko larunbatean, 27an, gauzabera izanen da, baina hontakoan aniztarrek izanen dira Berroetarrek joanen direnak.

Larunbateko bestondoa porrokatzeko asti-

rik izan gabe, igandean, ilbeltzaren 21ean, (H)ilbeltza ekimenak antolatutako ipuin antzeztua izanen da Anizen goizeko 11etan. Ekimen honetarako aniztarrez gain, gainerako guztiak ere gonbidatuak daude. Itzuliaren ondotik gosaria izanen da Mendiarte kultur elkartearen.

ferreteria Quevedo

**TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK**



Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com

KIROLA → ILBELTZAREN 13AN HASITA

Emakumeen frontenis txapelketa larunbatean abiatuko da

Martxoaren 10ean jokatuko diren finaletarako txartel bila 7 bikote lehen mailan eta 15 bigarren mailan hasiko dira

Nerea MORTALENA

Hastear da Baztango Emakumeen frontenis txapelketa. Bi mailatan bereizita daude aur-

ten ere. Lehendabiziko mailan 7 bikotek parte hartuko dute. Bigarren mailan, berriz, 15 bikotek parte hartu behar dutenez, bi multzotan bereizi dituzte.

Txapelketa ilbeltzaren 13an hasiko da, larunbatean, eta asteburu-astebururo partidak jokatuko dituzte. Aurtengo txapelketako frontoi ofizialak Erratzukoa, Lekarozkoa, Arraiozkoa eta Oronozkoak izanen dira. Finalak martxoaren 10ean jokatzea espero dute.



ÚTITAKO ARGAZKIA

Zerri-mondoga ikastaroa egin dute Amaiurren

Baztango agroekologia eskola herritarren iazko azkeneko ikastaroa Amaiurren eskainizuten. Zerri-mondogari buruzko ikastaroa Hazitik Hozie eta Otsondo Elkarrekin antolatu zuten eta irakasle gisa Lorentzo Sarratea eta Bittor Jaurregi aritu ziren. Hamalau lagunek parte hartu zuten. Lorentzok, berak hazten dituen Euskal Xerrietariko bat ekarri zuen. Lehenik eta behin hauen eta xerri industrialek arteko ezberdintasunen berri eman zuen, ondoren, xerri nola puskatzen den aipatu zuten, zati bakoitza azalduz, burukia, bortx-hezurra, soloma, xaskia, magra etab. Puskatze lanak akituta, zatien kontserbazioari buruz aritu ziren, behin eta berriz adieraziz, inguru honetan magrak lehertzeko ditugun zailtasunak; batetik eulia eta bertzetik pipia dela. Bizartean xixtorrak egiteko puskak berexi eta xixtorgaia egin zuten. Egindakoa mahai baten bueltan probatzeaz gain Lorentxok eramandako txorizoa, saltxitxoa eta pateak gosatu zituzten. Indarberiturik, xixtorrak egin bizartean, ondoko urtetan ikastaro hauei jarraipena ematea komenigarria zela solastatu ziren, hainbertze ikastekoa baitago, nahiz eta argi gelditu etxe bakoitzak bere errezeta duela.



EUSKAL NOBELA BELTZAREN ASTEA

[H]ILBELTZA

BAZTAN, 2018KO
ILBELTZAREN 15ETIK 21ERA

ANTOLATU DU :

LAGUNDU DUTE

ERRATZUKO KULTUR ELKARTEA, ERRATZUKO ETXEBERTEN TXOKOA, ANIZKO ELKARTEA, ARIZKUNGO ZURUBI ELKARTEA, AMAIURKO ELKARTEA

KARRIKIRI.eus, ARGIA, ttipi-ttapa, xalOAtelabista, berria, jAUREGIARTE, Baztango Udala, irupako komunakubideak, IKF, euskarabizka, Nafarroako Gobernua, Gobierno de Navarra

WWW.ILBELTZA.EUS

BAZTAN

GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUAK ETA BALLEKO ETXEA ABENDUAREN 21EAN ELIZONDON

Europako H2OGurea proiektuko uholdeen aurkako neurriak aurkeztu dituzte

Larrialdi-plana denbora errealeko datuekin eguneratuko da, eta herritarrei abisua emateko SMS sistema bat ezarriko da

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak eta Udalak uholdeen aurkako neurriak aurkeztu zituzten abenduaren 21ean egindako saioan. Neurri horiek Europako H2OGurea Mugaz gaindiko arroen kudeaketa integratua proiektutik atera dira, eta, haien artean, aipagarriak udal eskumeneko larrialdi-plana denbora errealeko datuekin eguneratzea eta herritarrei abisuzko SMSak bidaltzeko sistema bat ezartzea (Lamia) dira.

Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiak, Eva García, eta Joseba Otondo alkateak ireki zuten saioa eta Nafarroako Gobernuak, GAN-NIK enpresa publikoko, Udaleko eta SMS-abisuen sistema diseinatu duen Tesicnor enpresako teknikariek parte hartu zuten. H2OGurea proiektuaren ezaugarriak, Bidasoko uholde-arrikuaren kudeaketa-plana eta uholde-arrikuari aurre egiteko Udalaren larrialdi-plana azaldu zituzten.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Herritarrei uholde arriskuaren abisua ematen dien SMS zerbitzua ezarriko dute.

Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsudun Areatako bat da Elizondoko. Planteatu diren neurriak Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Uholde Arriskuaren Kudeaketa Planean daude (2015-2021), baita Uholde Arriskuari Aurre Egiteko Foru Komunitatearen Larrialdi Plan Berzian ere.

2013an, *Baztan ibaiak gainezka eginez gero Baztango Udalaren Ekintza Plana* onartu zuen Udalak. Udal eskumeneko plan hori ibaia mailaren eta plubio-metriaren arabera abisuetan egituratzen da, eta larrialdi-fase bakoitza sekuentzialki aktibatzea proposatzen du: 0. egoera (aurrelarrialdia), 1. egoera (1. mailako larrialdia), 2. egoera (2. mailako larrialdia) eta 3. egoera (3. mailako larrialdia). Larrialdi-fase bakoitzerako, Udalak zer neurri hartu behar ditu-

en ezartzen du Planak, eta aholkuak ematen dizkie heritarrei. 2017an, eguneratu egin da Plan hori, Auza mendian (Iñarbegi) dagoen estazio berriak ematen dituen datuak eta 2015ean erakitako Erratzuko ur-emaria neurtzeko estazioaren emari-datua bildu baitira.

APLIKAZIO BERRIA

Oraingoan, lehen aldiz, Nafarroako Gobernuak, GAN-NIKen bitartez, aplikazio bat garatzea eta ezartzea ere finantzatu du. Aplikazio horrek, batetik, uholde-gertaerak kudeatzea errazten dio Udalari, eta, zer larrialdi-mailatan dagoen, horren arabera zer neurri hartu behar dituen adierazten dio; eta, bertzetik, abisuzko SMS mezuak bidaltzen dizkie "Lamia" sistemaren bidez alta eman duten heritarrei.

Prestaketa-neurri ho-

riek babes-neurrien osagarri dira: Menditurri karrikan (Giltxaurdi mendroaren parean) dagoen hormari garaiera handiagoa ematea, urak ez dezan auzoa hartu eskuinaldetik gainezka egiteagatik, eta Jaime Urrutia karrikako merkatariei eta heritarrei beren burua babesteko barrerak ematea.

Aitzinerago, zenbait barrera desmuntagarri ematen dira, norberaren burua babesteko sistema gisa, uholde-katsuetan urak sarrien hartzen dituen atari eta saltokietako zirrikietan jartzeko. Konporta horiek luzagarriak dira, eta establezimenduetako eta atarietako zirrikituak eta ateak estaliko dituzte; erraz eta azkar instalatu eta desmuntatu daitezke, eta maneia garriak eta erraz gordetzeko modukoak dira, jabeek azkar muntatu behar izanen baitituzte.

FLASH

Baztandarren Biltzarra aitzinera

Baztandarren Biltzarrentzat hil ala bizikotzat jo zuten abenduaren 29rako deitutako bilera eta baztandarrek erantzun bikaina eman zioten, ospakizunari segida eman nahi diotela erakutsiz. 150 bat lagun bildu ziren Arizkunenea Kultur Etxeko sabaian eta ardurak hartzeko prest ere azaldu zen jendea.

Elizondoko San Silbestrea

Alberto Barberena eta Marina Vicente nagusi ziren abenduaren 31n bederatzigarren edizioa bete zuen herri lasterketan. Gizezkoetan Luis Babauzak eta Iñaki Telletxeak osatu zuten podiuma eta emakumeetan, Paula Urrutiak eta Aurenke Perurenak.

Joxean Etxeberria garaile apustuan

Zigako Joxean Etxeberriak irabazi zuen abenduaren 30ean Azpeitiako zezen-plazan Xabier Zaldúa gipuzkoarrarekin egindako apustua. Ordu bete, 7 minutu eta 43 segundo behar izan zituen Etxeberriak bere lana (10 kanaerdiko aizkoran eta 8,6 km lasterka) burutzeko. Zalduek 1:12:54 behar izan zituen lan bera aizkoran eta 10 km lasterka egiteko.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

40 urte bete ditu Olentzerok Elizondora jausten

Duela 40 urte, 1977an jaitsi zen lehen aldiz Olentzero Elizondora. Gaur egun Mari Domingirekin batera etortzen bada ere, orduan bakarrik etorri zen. Lehen urte hartan, Olentzero kantak erakusten lagundu zuten Pedro Ansorenak, Mariano Izetak eta Iñaki Gorostidik. Azken urteotan Baztan Ikastolak antolatzen du. Eguberriotan ere jendetza ibili da.



TESTUA ETA ARGAZKIA: NEREA MORTALENA

Arraiozko eskolan eta herrian Olentzeroren bisita

Abenduaren 22an, Olentzero Tiki ospatu zuten Arraiozko haurrek eskolan. Gainera, egun horretan, haur eta gurasoek bazkari bat antolatu zuten eskolan bertan. Abenduaren 24an, Olentzero iritsi zen Arraiozera. Ohiko tradizioari jarraituz, herriko haur eta gurasoak txokolate bero-beroa hartu zuten herriko ostatuan eta arratsaldean, Olentzero Mikollorretik beheiti iritsi zen herrira.

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → GAZTERIAK ETA AKELARRE ELKARTEAK

Autodefentsa feminista tailerra antolatu dute

Urtarrilaren
20an, goiz eta
arratsaldean
Akelarrenean

Josebiñe eta Koro

Herriko gazteriak eta Akelarre Elkarteak Autodefentsa Feminista tailer bat antolatu dute. Urtarrilaren 20an egingen da, Akelarrenean. Bisaiotan banatua da: goizean 10:00etatik 14:00ak arte, eta 16:00etatik 20:00ak arte. Bazkaltzeko proposa-

men bat bada: bakoi-tzak berea eraman dezala, eta elkarrekin hant bertan bazkaltzea.

Tailerra edozein gisako emakumeentzat eskainia da, eta kontutuan hartu behar da borroka gutti izanen dela, garrantzi gehiago emanez mintzatzeari eta pentsatzeari. Feminismoa, Patriarkatua eta Ahalduntzea bezalako kontzeptuen gainean, berteak bertze, egingen diren hainbat dinamikek, norberaren kontzientzia feminista ernat-



UTZITAKO ARGAZKIA

Maialen Lujanbiok irakurri zuen Durangoko azokan Zugarramurdiko gertakarien testua.

tzeko eta aberasteko.

Hogei plazetara mugatua da, eta 7 euro ordaindu behar da (hant berean). Izena emateko 688 688 308 edo 667 873 490ra deitu.

Zugarramurdiko sorginak Durangoko Azokan

Durangoko azokan presentzia izan zuten

Zugarramurdiko sorginek, Silvia Federicci historialariaren liburu baten aurkezpenean.

Historia emakumeen ikuspuntutik ikeritzeagatik ezaguna da Silvia Federicci, eta bere liburu ospetsuena *Caliban eta sorgina* da. Liburu hortan argi ikusten da historian zehar emakumeen kontra hartutako neurriak (hain zuzen,

historia ofizialeko liburretan erakusten ez direnak). Hortik ere bere zentzua hartzen du XVI. eta XVII. mendeetan sufritu zen sorgin ehizak.

Inoiz ezagutzera eman ez den historia aurkezten du Silvia Federicci, justuki guk ere gure aintzinekoekin egin nahi duguna: inoiz konstatu ez diguten egia, orain jakinarazi.

URDAZUBI

GIZARTEA

GIZARTEA → ABENDUAREN 16AN EGIN ZUTEN KOXKA JATETXEAN

Ugarana elkarteko emakumeen afaria, urteari agur errateko

70 bazkide biltzen ditu duela hemeretzi urte sortutako elkarteak

Iñigo IMAZ

Orain 19 urte, Ugara-na Emakume Elkarte sortu zen, Urdazubiko elkarte jendetsuena eta aktiboena gauregun. 70 bazkide inguru ditu eta kuoten bidez finantzatzeko bere aktibitateak, hots, diru laguntzarik gabe antolatzen ditu urtero hainbertze aktibitate.

Urtero Leorlas auzoko eskolatan zunba, pilates eta stretching eskolak ematen dira. Gainera, aurten, beharrei erantzun asmoz, Herriko Etxeak gimnasioa handitu duenez, jende gehiagok parte hartzen ahal du, guztira, 51 ikasle elkartzen dira asteko hainbat egunetan.



ARGAZKIA: IÑIGO IMAZ

Ugaranako emakumeak kontent, Koxkan egin zuten afarian.

2017ko urteari agur errateko, afaria antolatu zuen herriko Koxka jatetxean. Garai bateko ohitura zen zendutako jostunen omenez meza eta jarraian afaria antolatzea. Ugaranak abenduaren 16an agurtu zu-

Ba al zenekien

102 pertsonen 120 euro bana irabazi dituztela Eguberrietako loterian Segovian erosi zuten 43.098 zenbakiarekin.

en urte zaharra, eta urte berriari begira elkar-tearen egungo egoeraz

eta etorkizunaz mintzatu ziren bertaratutako bazkideak.

MAPA

ADMINISTRATIBOA

11 eskualdek osatuko dute Nafarroako mapa berria

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak toki-administrazioa berrantolatzeko lege-aurreproiektua aurkeztu zuen abenduaren 19an. Toki-berrantolaketaren xedea Nafarroako zonaldeetan udalerri-mailan dagoen desoreka pixkanaka murriztea da, eta toki-gobernuari antolaketabaliabide eta baliabide ekonomiko nahikoak ematea Administrazio gisa duen zeragina erabat bete dezan. Horretarako, 11 eskualdetan banatzea proposatu dute.

Tipi-Ttapak Nafarroan hartzen duen eskualdeari dagokionez, Baztan, Bertizarana, Bortzirak, Maierreka eta Urdazubi eta Zugarramurdi Bidasoa eskualdean sartuko lirateke eta Leitza, Goizueta, Areso eta Arano, berri, Larraun-Leitzaranen.

IRUÑEKO UDALAREN SARIAK EGILE BERRIENDAKO

Eskualdeko egileek sariak lortu dituzte

TTIPI-TTAPA

Iruñeko Udalak hogeita zazpigarren aldiz antolatutako egile berriendako euskarazko literatur lehiaketako sariak banatu zituzte eta aurten ere eskualdeko zenbait egile sarituta suertatu dira.

Denera 30 idazlan aurkeztu zituzte Iruñeko Udalak antolatutako lehiaketara, horietatik 13 poesiakoak, 11 narrazio labur eta 6 bertso-paper. Kategoria bakoitzean lehen saria 2.500 eurokoa da, bigarrena

1.000 eurokoa eta hirugarrena 500 eurokoa eta 250 euroko aipamenak ere banatu zituzte.

Bertso-paperetan, Berako Julen Zelaieta Iriartek lortu du lehen saria Maite zaitugu Aizpea lanarekin. Bigarren saria Eneko Fernandez Maritxalar lesakarrak lortu du, Sanfermin 1978 bertsoengatik.

Poesian, lehen saria Irati Majuelok eskuratu du, bigarren saria, Amets Aranguren eta hirugarrena Oihane Zube-



UTZITAKO ARGAZKIA

Saridun gehienak Iruñeko udaletxean.

roak. Maialen Sobrino Lopez elizondarrak aipamen berezia, Hartu emeki lanarekin.

Narrazio laburretan Izaskun Etcheberriak lortu du lehen sa-

ria, Saioa Alkaizak bigarrena eta Nerea Baldak hirugarrena. Aipamen bereziak izan dira Garazi Arrula eta Julen Azkonaren lanendako.

GIZARTEA → GIPUZKOATIK ETORRIAK

Mutrikuko ikasleek Saint Christophe lizeoa bisitatu dute berriki

Akuakulturaz mintzatzeko eta ikasteko etorri dira gipuzkoarrak

Pierre BASTRES

Badu 12 urte birazka-
tuak direla St Christophe lizeo tekniko eta Mutrikuko *Kardala* izeneko eskola, eta elkarlanak daramatzatela. Izan ere, urte guziz hangoak bisitaz jiten dira St Christopheko arrainen hazkuntzak ezagutzera. Udaberrian, senper-
tarren aldia izanen da harat joateko.

Elkarteratzea egin dute ez klaseko geletan, baizik eta lizeoak dauzkan hazkuntzetan, Ibarrun auzoan, INRAren eremuetan. Ongi etorria eginda, bi taldeek kafe eta biskotxa partekatu dute. Ondotik denak lotu dira lanari, hemengoak erakusteko zer gisan aritzen diren, eta mutrikuarrek ikasteko lan-molde berriak errepikatuz. Hala nola, han diren urmaeletarat edo urgeldietarat jautsi dira bertako ikasle batzuk, arrain zonbeiten harrapatzerat eta zuzenki erakusteko errutea nola kudeatu. Lekeitio-ko Markel ikaslearen iritziz, «guk karpak eta

amuarrainak ez ditugu aztertzen, hemen egiten dituzten bezala. Erreboilo, olagarroa edo lupinak hazten ditugu bertzeak bertze. Bisita hau izigarri interesanta daukat!».

AKUAKULTURAK LOTUAK

Bi eskola horiek akuakulturak lotzen dituz beraz, eta Imanol Garate Kardala-ko zuzendariak azaltzen duen bezala: «Akuakultura izaki urtarren ekoizpena da, hauen artean arrainak, moluskuak, krustazeoak eta algak. Mutrikuko instituan ur-gaziko ezpezieta berezituak gara, Senperekoan, ordea, ur gozokoetaz. Gu bezalako bertze instituturik ez da Euskal Herrian, eta Espainiar Estatuan ere gutti. Oro har, 20 urtez geroztik aunitz murriztu da arrain hazkuntza hegoaldean. Lehen, hazkuntza ehunka eta tikiak ziren, baina prezioen beheitzearen ondorioz abantsu denak suntsitu dira. Orain zutik daudenak izugarri handiak dira, eta bakarrak. Honenbertzez, gure gazteak urrun joaterat behartuak dira maiz. Hemen aldiz piszikultura xumeak begiratu dituzte eta lana bada egon nahi dutenentzat».



UTZITAKO ARGAZKIAK

Saint Cristophe lizeoak Ibarrun auzoan dauzkan arrain hazkuntzetan ongi etorria egin zieten Mutrikuko Kardala eskolako ikasleei. Karpa arrantzan ere aritu ziren urmaeletan eta ondotik, hartutako arrainak aztertzen eta neurriak hartzen.



Bertako sagarrekin egindako sagardoa

ola
SAGARDOTEGIA

TXOTX
DENBORALDIAREN
IREKIERA:
URTARRILAK 21

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

Meaka auzoa 102 • 20304 IRUN • T. 943 623 130
www.olasagardotegia.eus

ARMUA JATETXEA



T. 948 599 131
Zugarramurdi errep. 3 km
URDAZUBI




744 484 361

ttipi-ttapa

Rekordatorioak egiten
ditugu



Nahi duzun argazki eta
testuarekin prestatua



Anduezteta, 12 | ETXALAR | 948 635 458

*Gureartetik duela urte bat
joan zinen zure alabatxoaren gana.
Senar, aita, eta aitatxi maitea.
Zure irrifarra ez dugu sekulan ahantziko.
Beti izanen zaitugu gure ondoan.
Adiorik ez, gero arte baizik.
Berriz elkartu arte bakean egon zaitez.
Zure familia.*

I. URTEURRENA



Patxi Sansinena Vidart
(1940/04/25 - 2017/01/06)
Urdazubi, 2017ko urtarrilaren 6an



Juan BEREAU LARRETxea

Arantzan hil zen, 2017ko abenduaren 28an

Ttiki ttikitik bizitzen eta lanin zenuen ikasi,
Beti gogotsu beti aurrera, inoiz ez zenuen etsi,
Ai! Familia handia duzu sortu, zaindu eta hezi,
Senar fidela, aita goxoa, ongi izan gara bizi,
Maite zaitugu eskerrik asko,
Bihotz bihotzez Atautxi.

ZURE FAMILIA

Familiaren partez eskerrak eman nahi dizkizuegu
gure ondoan egon zareten guztioi



Maria Juncal URQUIA SUSPERREGUI

Beran hil zen, 2017ko abenduaren 6an, 68 urterekin

*Dena eman zenigulako,
adiorik ez,
gero arte baizik.*

ZURE FAMILIA



Joseba eta Irune ETXEBERRIA AGERREBERE

Arraioz-Elgorriaga 1980/10/03-2005/06/05

Arraioz-Elgorriaga 1980/10/03-2017/01/17

(Irueren I. URTEMUGA)

Irune eta Joseba:

Elkarrekin sortu, elkarrekin hazi
eta orain... berriz ere elkartu.

GURASOAK ETA MUTIL-LAGUNA



Joxe Antonio PORTU IANTZI

«Osaba Tonton»

Gure ondotik joan zaren arren,
zure umoreak beti gurekin segituko du.

MATTE ZATTUGU!

ZURE ILOBAK:
Izaskun, Xabier, Iñaki, Eider eta
Jon Koldo, Leire eta Aitor, Iker
Besarkada bat IGOR

*Bizipozaren eredu
Ximelduezinezko lili
Zenbat maitasun ote zeniguten
Apal-apal bidali
Baikortasuna lagun hartuta
Zineten munduan ibili
Zuengandik jasotakoak
Nabi ditugu itzuli
Hartu muxu bat
Bihotz-bihotzez
Ta mila esker
Benita ta Juan Fermin*



**Juan Fermin
Mitxelena Larralde**
Lesakan
2017ko urtarrilaren 4an,
60 urte zituela
I. URTEURRENA



**Benita
Larralde Tapia**
Lesakan
2017ko urtarrilaren 14an,
81 urte zituela
I. URTEURRENA

Zuen familia



Urte osoan 24 orduko zerbitzua

Beilatoki zerbitzua Bortzirietan
baita eskualdeko etxeetan ere

T. 948 05 90 90



Iker ESPELOSIN GOIZUETA

Sunbilla, 2017-XII-17

Laino beltz denen gainetik
pausoka argira
maitea beti maite
ta ongi ageri da

Etxeko ta lagunak
izarrei begira
ta izarren artean
IKERren dizdira.

IDOIA ETA LEHENGUSUAK

SORTZEAK

Gorka Etxarte Abuin, Lesakakoa, abenduaren 15ean.

Ion Erregerena Leizeaga, Zubietakoa, abenduaren 10ean.

Aiala Sein Etxebeste, Igantzakoa, abenduaren 10ean.

Patrik Andrei Nicolae, Doneztebekoa, azaroaren 29an.

Saioa Mutuberria Juanena, Doneztebekoa, abenduaren 2an.



Urtea pasa da,
ixil eta umil joan zinela.
Etxea hutsa eta arrastoz
betea utzi zenuen.

Guregan bizirik daude esan zenizkigun hitzak
Eskertzen dizugu bizitzan gugatik egin duzuna
BETI GUREKIN EGONGO ZARA.

Jose Luis MITXELENA

Saldiasen, 2017ko urtarrilaren 23an
I. URTEURRENA

Bere aldeko meza urtarrilaren 20an ospatuko da,
arratsaldeko 4:30ean Saldiasko elizan

HERIOTZAK

Teodora Mendiburu Goienetxe, Azpilkuetakoa, abenduaren 2an, 95 urte.

Maria Juncal Urkia Susperregi, Berakoa, abenduaren 6an, 68 urte.

Maria Jesus Juanikotena Bolaños, Berakoa, abenduaren 7an, 71 urte.

Maria Victoria Bikondoa Ibarra, Oronoz-Mugairikoa, abenduaren 9an, 75 urte.

Miguel Lezaun Yoldi, Elizondokoa, abenduaren 13an, 94 urte.

Iker Espelosin Goizueta, Sunbilla, abenduaren 17an, 19 urte.

Francisco Zapirain Urdanpilleta, Lesakakoa, abenduaren 18an, 84 urte.

Asuncion Salaburu Etxenike, Arizkungoa, abenduaren 20an, 91 urte.

Micaela Etxeberria Hernandorena, Iturengoa, abenduaren 24an, 90 urte.

Jose Antonio Portu Iantzi, Lesakakoa, abenduaren 25ean, 69 urte.

Maria Angeles Telletxea Iturria, Igantzakoa, abenduaren 25ean, 72 urte.

Cornelia Laurenzena Barandiaran, Urdazubikoa, abenduaren 27an, 92 urte.

Juan Bereau Larretxea, Arantzakoa, abenduaren 28an, 78 urte.

Alejandro Romero Albarrán, Berakoa, abenduaren 29an, 70 urte.

Maria Jesus Elizetxe Dainziart, Amaiurkoa, urtarrilaren 1ean, 89 urte.

EZKONTZAK

Juan Pablo Calvo Ruiperez eta **Leire Arzelus Ugalde**, Irun eta Donostiakoa, abenduaren 2an Etxalarren.



Iker ESPELOSIN GOIZUETA

Sunbilla, 2017-XII-17

Pilota lurrean da, inor ez ehizean,
irrifar bat galdu da, kuadrilan, etxean
baina udazkenaren azkena heltzean
zerbait mugituko da zutaz oroitzean
maite izan zaituen bihotz bakoitzean.

ZURE FAMILIA



Iker ESPELOSIN GOIZUETA

Sunbilla, 2017-XII-17


Ulertzen dugu zure barruko nahigabearen samina
Doneztebeko kuadrillakoez dugu sentipen berdina

Gertatuaren ondorioak pisu asko du jakina
Animo Andoni eutsi goiari egin zeure ahalegina
Denon artean lortuko dugu zeuk bakarrikan ezina!

Joanagatik hemen zaudela ulertzea da zailena
Beti kuadrillan egonda ere ekarri ezin daitekena
Oroitzapenak ta maitasuna da elkartzan gaituena
Zauden lekuan geuri begina hartu zazu atsedena
Betiko Iker izango zera ta inoiz ez Iker zena!

ANDONIREN DONEZTEBEKO LAGUNAK

Besarkada bat familia, bereziki zuri Andoni



Iker ESPELOSIN GOIZUETA

Sunbilla, 2017-XII-17

Abudo iritsi zaigu, zu agurtzeko eguna
Opari bat izan zara, bizitzak eman diguna
Urruti joan zaren arren, beti barruan duguna
Eskerrikasko bihotzez, maite zaitugu laguna

1998KO KINTOAK

2011an, udako goiz lasaiak ohitura osasuntuz zipriztintzeko hasi zen bizikleta gainean harat honatean iturendar gaztea. Lehendabiziko kilometroak trenbidean egin

ondotik, ez zuen zalantza handirik izan eta hurrengo urtean lehiaketetan parte hartzen hasi zen. Hasierako zailtasun eta oztopoak erraz gainditu zituen «ikasteko adinik hobere-

nean egoteaz gain, kirola gustuko izateak lagunduta». Horren adierazle dira azkenaldiko emaitzak: Nafarroan txapelkun eta Espainiako txapelketetan punta-puntan ibili da.

Javier SEIN GOÑI | Mendiko txirrindularia

«Sufrimendua gozamen bilakatzen da gustuko duzun kirolean»

Nerea BAZTERRIKA |

2011ko udan, hama-lau urte zituela, egunero bizikletaz ibiltzeko ohitura hartu zuen Javier Seinek: «goizak libre nituela aprobetxatu nahi nuen, eta kirolzale amorratua izaki, bizikletan ibiltzen hasi nintzen». Hurrengo urtean, txapelketetan parte hartzen hasi zen, «ordura arte bizikleta-lasterketak izaten zirela ere ez nekien». Geroztik, pedalei eragiten segitzen du, mendi bizikletetako txapelketetan, rally modalitatean parte hartuz, eta ez nolanahi gainera. Bertzeak bertze, aitzineko denboraldian Andalucia Biker Racen 3. postua, Costa Blanca Bike Racen txapelkun Ibai Ordaxekin, Open Diario de Navarra-rako garaile... izan da.

GOZAMENA HELBURU

Bizikleta eta kaskoa «edonora joateko aski izateak eskaintzen duen askatasunak» asebetetzen du Sein. Hasieretik berezko zaien bezala, «zailtasunak izanagatik», gustuko lekuan aldapak «gogotsu» goititzen direla erakutsi digu Javierrek. Hasierako helburua «gozamena» baino ez zenez, bere kabuz hasi zen. Berrehala, Katea Bikeko Joxemiren «sostengua» jaso zuen eta horri esker «errazagoa» izan



ARGAZKIA: ARKAITZ LAZKANO

Javier Sein iturendarra, mendi-bizikleta txapelketetako batean.

zen, «aunitz zor diot». Gerora, Seguros Bilbao taldearekin ibili zen, «2015era bitarte». Gaur egun, ordea, «SH Metalgraf taldearekin parte hartzen dut». Helburua lortu duela argi dago, pixkanaka gero eta gehiago lotu baitzaio kirolari. Gozatuz gero «eginahalak egiten dira» eta «eginahalek, lehenago edo beranduago, arrastoa uzten dute».

SUFRIITUZ GOZATU

Denboraldi bete-betean sartuta, «astean borts bat entrenamen-

MODALITATEAK
«Modalitate bakoitzak entrenamendu mota jakin bat eskatzen du. Niretzat 30km agudo egitea baino errazagoa da 90km motelago egitea, ez da horren gogorra»

GARAIPENAK
«Garaipenak ez dira ezinbertzekoak, baina bai bereziak; eta bereziagoak lagun eta familiaren bueltan ospatzeko aukera badago».

du-saio» egiten ditu, «mendiko edo errepideko bizikletan». Ordu luzeetako lana behar izaten du, «gogor ari behar da», eta «aunitz sufritu behar izaten da. Baina, benetan gustuko izanez gero, sufrimendua bera gozamen bilakatzen da».

RALLY MODALITATEA

Mendi bizikletaren baitan, rally modalitatean aritzen da iturendar gaztea. Eta noski, kategoriaz goiti egin ahala, frogak luzeagoak dira. Joan den urteaz geroztik, 23 urtetik behera

tikoen kategorian ari da, eta 5km-ko zirkuituei sei buelta eman behar izaten dizkiete. Gazteagok «hiru buelta ematen dituzte. Ordubete eskaseko lana ordu eta erdiko lan bilakatzen da egun betetik bertzerara». Aitzitik, ez da probatu duen bakarra: «maratoi modalitatean ere parte hartu dut». Lau bat orduz, 90km egiteak nekea eragiten du, baina erritmoa bertzetako da, «ez da horren gogorra».

GARAIPENA, ESFORTZUAREN IKUR

Garaipenak «egindako esfortzu guztia ikur» dira. Baina aunitzetan, «gozamena bera garaipena izatera ailega liteke». Kategoriaz goititu ahala, frogak gero eta luzeagoak dira. Gainera, «aunitzetan gauzak ez dira nahi bezala ateratzen, eta gaitzea porrot gisa hartzeak kalte handia eragin dezake». Hortaz, «ni, pertsonalki, zaletasun gisa» hartzen eta «lana, familia eta lagunak alde batera utzi gabe, gelditzen den denbora hori aprobetxatzen saiatzen naiz». Baina noski, horrek garaipenik ekartzen badu, «gustura hartzen dut» eta ametsetatik bizi ahal bazu, «munduko koparen batean ere, hankak ahal bezainbertze eraginez, parte hartuko nuke».



LIDERRAK

GURE ESKUALDEAN

ETA BAITA AZTERKETA EGITERAKOAN

CIESEK **NAFARROA GARA**IKO

MENDIALDEAN

HARTU DUEN 111 UDALERRIEN

EREMUAN ERE

TTIPI-TTAPA

DIARIO DE NAVARRA

DIARIO DE NOTICIAS

GARA

BERRIA

ARGIA

BESTE BATZUK

30.000 IRAKURLE

11.000 IRAKURLE

9.000 IRAKURLE

8.000 IRAKURLE

2.000 IRAKURLE

4.000 IRAKURLE

6.000 IRAKURLE

30.000
TTIPI-TTAPA

9.000
DIARIO DE NOTICIAS

4.000
ARGIA

TTIPI-TTAPA^{REKIN}
ZURE IRAGARKIAK ERAGIN
HAUNDIAGOA DU

11.000
DIARIO NAVARRA

8.000
GARA

6.000
BESTE BATZUK

2.000
BERRIA

SEXUAREN ARABERA

GIZONAK %48,20

EMAKUMEAK %51,80

ADINAREN ARABERA

14-24 URTE %12,00

25-34 URTE %15,60

35-44 URTE %10,00

45-54 URTE %22,90

55-64 URTE %18,20

+64 URTE %21,20

IKASKETA MAILAREN ARABERA

OINARRIZKO IKASKETAK %36,10

OINARRIZKO BATXILERGOA %15,80

GOI MAILAKO BATXILERGOA %24,50

UNIBERTSITATEA %23,70

ERREMONTA → ABENDUAREN 23AN JOKATU ZUTEN FINALA GALARRETAN

Uterga eta Etxeberria III.a doneztebarren esperientziak eman die binakako txapela

32-40 irabazi zieten finalean Ezkurra II.a eta Endikari

TTIPI-TTAPA

Xanti Uterga eta Joxe Etxeberria III.a doneztebarrak dira binakako erremonte binakako txapeldun berriak, abenduaren 23ko finalean Josetxo Ezkurra II.a doneztebarrari eta Endika Urrutia saldiastarrari 32-40 irabazi ondotik. Esperientzia nagusitu zela erran daiteke, 27-24 galtzen joan ondotik, markagailuari buelta eman eta txapela janztea lortu baitzuen Doneztebeko bikoteak.

Xanti Utergarentzat hirugarren txapela izan da (bigarrena segidan)



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

Uterga eta Etxeberria III.a txapeldun eta Ezkurra II.a eta Endika azpitxapeldun.

eta 44 urterekin koa -droko erremontelari bateranoena den Joxe Etxeberriak bigarrena lortu du, 2010an lortu zuenaren ondotik. Endikak ezin izan zuen hi-

rugarren txapela segidan jantzi eta Ezkurra gazteak, bere hirugarren finala ere galdu egin zuen. Xanti Uterga izendatu zuten finaleko jokalaririk onena (18 tanto

bukatu zituen) eta txapelketako aurrelari onena. Txapelketako atzelerari onena, beriz, Barrenetxea IV.a izendatu zuten.

Finaleko azken mar-

kagailuak erakusten duena baino gogorragoa izan zen partida. Ezkurra II.a eta Endika hasi ziren agintzen (5-3), baina inork ez zuen alde nabarmenik lortu. Zortzinako berdinketaren ondotik, 11-12 eta 14-17 aitzinetik izan ziren urdinak, Uterga eta Etxeberria III.a. Baina beriz ere 18na berdindu eta aitzinetik jarri ziren gorriak (23-18). Partidaren erditsuan, 9-1ko partzialarekin 27-22 ere jarri ziren aitzinetik gorriak, baina urdinek 7-0ko partzialarekin erantzun zieten (27-31). 31-34ra hurbildu ziren urdinak, baina 1-5eko bertze partzialarekin 32-39 aitzinetik jarri ziren urdinak eta azken tantoa bere alde egin zuten.

SOKATIRA → EUSKAL HERRIKO 4X4 TXAPELKETA

Beti Gazteko mutilak txapeldun

300 kiloko kategorian

TTIPI-TTAPA

Lesakako Beti Gazte sokatira taldeko giza-semeek Euskal Herriko launakako sokatira txapelketa irabazi zuten abenduaren 17an Kortezubin (Bizkaia), 300 kiloko kategorian. Le-

sakako emakumeek ere lortua zuten finalerako txartela 260 kiloko kategorian eta bosgarren izan dira.

Gizonezkoetan, Beti Gazte tiraldi guztiak irabaziz lortu du txapela janztea. Podiumean, Bizkaiko Sokarri eta Lapurdiko Ezpeletako Naurrak izan ditu lagun. Laugarren postua Bai-



ARGAZKIA: TXEBI ARRIAGA

Beti Gazteko mutilak txapeldun izan ziren eta neskak bosgarren.

gorrik eskuratu du, bosgarrena Berriozarrek eta seigarrena Kaskalluetak. Talde txapeldunetan Karmelo Mitxelena, Iñigo Altzugarai, Beñar-

do Iantzi eta Gerardo Telletxea aritu ziren tiran, Joxe Angel Mitxelena eta Eneko Saldias erakusle zituztela.

Emakumezkoetan,

Badaiotz izan da txapeldun, Ibarra A bigarren, Txantrea hirugarren, Ibarra B laugarren, Beti Gazte bosgarren eta Berriozar seigarren.

PILOTA → ABENDUAREN 10EAN ELIZONDON ETA IRURITAN, TXARUTA ELKARTEAK ANTOLATUTA

Baztango XXXVI. eskuz binakako txapelketaren finalak jokatu dituzte

272 pilotari aritu dira

TTIPI-TTAPA

Txaruta elkarteak antolatutako Baztango XXXVI. eskuz binakako pilota txapelketako finalak jokatu zituzten abenduaren 10ean Elizondon eta Iruritan. Denetara 136 bikotek hartu dute parte eta 240 partida jokatu dituzte irailaren 30ean abiatu zen txapelketan.

Elizondon jokaturako finalaetan, **Umeak A** mailan, Andoaingo Mikel Gaztañagak eta Aimar Berozek 18-7 irabazi zieten Ultzamako Markel Iturralde eta Unai Mindegari.

Kimuak A: Erreteriko Oihan Etxeberriak eta Urretxuko Oier Ibarlu-



ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Parte hartu duten pilotarietako batzuk, antolatzaile eta sari emaileekin.

zeak 18-5 irabazi zieten Zigako Oier Prim eta Oronozko Joel Garaikoetxeari.

Haurrak A: Andoaingo Oinatz Arrillagak eta Eneko Belokik 18-14 irabazi zieten Hernaniko Jon Jara eta Zestoako Xabat Sasiain-i.

Kadete A: Esteribarko Aingeru De la Fuentek eta Adrian Azpirozek 18-12 irabazi zieten Tolosako Aitor Altuna eta Jon Lopetegiri.

Gazteak: Oberenako Hegoi Txoperenak eta Borja Ganboak 22-20 irabazi zieten Berako Mi-

kel Eltzaurdia eta NARBARTEN Gaizka Agirre-ri.

Iruritan jokaturako finaletan, **Umeak B** mailan, Elizondoko Kaiet Iribarrenek eta Mikel Sansiñenak 18-14 irabazi zieten Berako Xan Villamea eta Ander Pagolari.

Kimuak B: Oartzungo Oihan Legorburuk eta Mikel Leonet-ek 18-12 irabazi zieten Andoaingo Tasio Abrego eta Iñaki Lopez de Muniain-i.

Haurrak B: Hernaniko Oier Garaiarrek eta Unai Etxarrik 18-11 irabazi zieten Donostiako Mikel Ezeiza eta Jon Zapiain-i.

Kadete B: Elizondoko Unax Apeztegiak eta Zigako Aimar Prim-ek 18-12 irabazi zieten Lazkao Iñaki Urrestarazu eta Igantziko Patxi Loiarteri.

Sari banaketan, Berako Iñigo Martinez eta Etxebarriko Julen Martija pilotari profesionalak agertu ziren eta gero antolatzaile, epaileek bazkari batekin zioten bukaera aurtengo txapelketari.

PILOTA → ABENDUAREN 9AN BERA KO EZTEGARAN

Bortzirietako binakakoan ere txapelak banatu dituzte

Sei kategoriatan aritu dira aurtan

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako eskuz binakako XVIII. Pilota txapelketaren finalak abenduaren 9an jokatu zituzten Berako Eztegaran pilotalekuan.

Tikiak: Ander Etxegarai eta Oinatz Mariezkurrena (Arantza), 9 – Markel Irazoki eta Julene Danboriena (Etxalar), 18.

Umeak B: Aingeru Etxegarai eta Oier Llu-
cia (Bera), 18 – Iñigo Ugalde eta Markel Korta (Bera), 17.

Umeak A: Xanet Ape-



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Txapeldunak, finalistak eta parte hartu duten zenbait pilotari, finalen ondotik.

zetxea (Goizueta) eta Ander Pagola (Bera), 18 – Aimar Otxandorena eta Unax Bereau (Lesaka), 12.

Kimuak: Ekai Madariaga eta Oihan Iturria (Arantza), 13 – Lander Lasaga (Etxalar) eta Be-

ñat Bertiz (Hendaia), 18.

Haurrak B: Mattin Altxu eta Lande Etxenike (Igantzi), 18 – Madariaga anaiak (Arantza), 9.

Haurrak A: Jon Pagola eta Ande Maritorenak (Bera), 18 – Unai Llu-
cia (Bera) eta Aritz

Etxebeste (Irun), 7.

Txapelketan parte hartu duten pilotari guztiek oroigarria jaso zuten eta txapelak eta garaikurrak banatzeko, Ander Errandonea eta Iñigo Martinez Berako pilotariak izan ziren.

urtarrilak 11 - 25

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Ospakizunak



ELIZONDO, LESAKA, ZUBIETA | 2018.01.17
San Anton Eguneko ospakizunak han eta hemen

Elizondon, zahar-etxearen aldeko zozke-ta eginen dute urtarrilaren 17an eta egun berean ospatuko dute San Anton Eguna Zubietan. Lesakan, urtarrilaren 21ean erromeria eginen dute Endara auzoan.

Inauteriak



ESKUALDEA | 2018.01.12
Asteburu honetan hasiko da mozorro besta

Eratsunen ospatuko dituzte eskualdeko lehenbiziko inauteriak, eta ondoko asteburuetan ez da mozorro bestarik faltako: Leitzan, Ituren, Aurtitz eta Zubietan, Sunbillan, Anizen, Berroetan... Hilabete betea dator.

Literatura



BAZTAN | 2018.01.15-21
Euskal literatura beltzaz gozatzeko aste osoko egitaraua

(H)ilbeltza ekimenak antolatuta, euskal nobela beltzarekin lotutako solasaldiak, liburu aurkezpenak, mahai-inguruak, filmak, ikuskizunak, antzerkiak... izanen dira ilbeltzaren 15etik 21era Baztanen.

Hitzaldiak

ARANTZA

Gure inguruko sagar basatiaren inguruan

Urtarrilaren 12an Juan Gamio Grazenea labaindarraren eskutik Ekaitza Elkartearen, 19:30ean.

GOIZUETA

Erefuxiatuak hizpide

Urtarrilaren 12an Nafarroako Brigadak taldeko Luzia Etcheberriarekin, 18:30ean udaletxeko ganbaran.

BAZTAN

Euskal Nobela Beltzaren Astea

Urtarrilaren 15ean Ernesto Praten eskutik *Telleria eta gero zer?*, Arizkungo medikuaren etxean, 19:30ean.

Urtarrilaren 17an Txomin Peillenekin solasaldia, Joxe Angel Irigaraireren eskutik, 19:00etan Amairuko Gaztelu elkartean..

Urtarrilaren 20an mahai-ingurua Arizkunenean, 11:00etan: *Beltzaren este-reotipoak literaturatik ikusentzunezkoetara*. Iratxe Fresneda eta Irati Jimenez hizlariak eta eta Arantxa Iturbe moderatzailea.

Urtarrilaren 20an bazkaldu ondotik, Erratzuko elkartean,

Jon Arretxe, Pierre Mestrot, John Andueza eta Galder Perezen liburu aurkezpenak.

Tailerrak

BERA

Haur eta gaztetxoentzat eskalada tailerra

Urtarrilaren 13an 10:30etik 12:30era kiroldegian.

LESAKA

'Nola egin zure bidaian bideoak?'

Urtarrilaren 20an eta 21ean 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara Matxinbeltzenean. Izen-ematea:

info@katubi.eus edo www.katubi.eus/bideoikastaroa.
Prezioa: 60 euro.

ZUGARRAMURDI

Autodefentsa tailerra

Urtarrilaren 20an 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara Akelarrenean.

Antzerkiak

IRURITA

Helduendako antzerkia

Urtarrilaren 14an *Iragana, lahar eta larrosa*, 19:00etan Gizarte Bilgunean.

ANIZ

Euskal Nobela Beltzaren Astea

Urtarrilaren 21ean ipuin antzeztua, 11:00etan Anizen.

BERA

'Origenes' antzezlana

Urtarrilaren 27an Kultur Etxean, 19:00etan.

Ikuskizunak

IRURITA

Euskal Nobela Beltzaren Astea

Urtarrilaren 21ean *Hama(h)iru* ate ikuskizuna, 19:00etan Jauregiarten.

PROPOSAMENA

BERA

IX. Mendiaren Eguna urtarrilaren 13an

Loro Pikabea, Xabier Zubieta eta Xabier Saralegi gogoan, IX. aldiz Mendiaren Eguna antolatu dute Beran. Goizean, haur eta gaztetxoentzat eskalada tailerra prestatu dute, 15:00etan Santa Barbarara ibilaldi gidatua eginen dute eta ordu berean 12 urtez beheitikoentzako lasterketak eginen dituzte. 15:30ean binakako kronoigoera hasiko da eta 19:30ean dokumentala eskainiko dute.



SARA

Haurrentzako ikuskizuna

Urtarrilaren 20an pailazoa, zirkoa, magia... 14:00etan Lur Berri gelan. Sarako Ikastolak antolatuta.

Dantzak

ELIZONDO

Bailableak

Urtarrilaren 14an 12:45ean Elizonoko plazan (euria bada Braulio Iriarte frontoian). Baztango Dantzari eta Elizondoko Gaiteroen eskutik, muxikoak, jotak eta larrain-dantzak.

Zinema

BERA

Mendiaren Egunaren barne

Urtarrilaren 13an Patxi Egillorren eskutik, *Pirinioak eta Himalaia artean* dokumentala, 19:30ean Kultur Etxean.

ELIZONDO

Euskal Nobela Beltzaren Astea

Urtarrilaren 19an *China-town* filma, Nerea Arrutik aurkeztua. 19:00etan Arizkunenean.

Ospakizunak

BAZTAN

Euskal Nobela Beltzaren Astea

Urtarrilaren 15etik 21era.

ERRATZU

Susmagarrien gaua

Urtarrilaren 21ean 18:00etan Euskal Nobela Beltzaren Astearen baitan.

ZUBIETA

San Anton Eguna

Urtarrilaren 17an.

ELIZONDO

San Anton Eguna

Urtarrilaren 17an 11:00etatik aitzinera txistulariak, zopak, bertsolariak, zozketa...

Nire aukera



Mikel OLAZAR

Iturengo gaztea

«Munduko herrialde guztiak bisitatzea dut amets»

Iturenen sortu eta bizi den gaztea da Mikel Olazar. Haurtzarotik, «gertakari historikoen inguruko jakin-min handia» izan du. Jakin-min hori asebate nahian, Historia Gradua ikasi zuen unibertsitatean. Ikasketek «egungo errealitatea, jarrera anitzen jatorria... ezagutzen eta gizartearen perspektiba zabaltzen» lagundu diote. Ondotik, «Nazioarteko Ikasketak izeneko masterra» ere egin zuen, «baina horrek prestakuntza handia behar duelakoan, irakaskuntza masterrean murgildu nintzen». Egun, «Elgorriagako historia bilduz liburuxka bat egiten» ari da. Proiektu «zabala da, herritar askoren lankidetzeta eta atxikimenduz, herriko gertakari historikoak eta herritarren antzinako bizimodua biltzeko ez ezik, zuhaitz genealogiko luze bat egiteko, garatzen ari garena». Aurten, gogor lan egin beharko du, «Eguberrietarako, argitaratu nahi baita». Halere, ezin erran hasierako asmoak itzali direnik, «etorkizunean Nazioarteko erakunderen baitan, Nazio Batuetan edo Europar Batasunean, lan egin nahi dut, aukera ematen duten tokian». Iturenen «berezitasuna» bere sustrai den historiarekin duen harremana «joaldunak, inauteriak, trinitate eguna...» da, baina «gazteentzako alternatibak falta zaizkio».

«Elgorriagako herritarren lankidetzarekin bertako historia biltzen ari naiz, liburuxka bat osatzeko»

Hutsune hori betetzeko «eta hemengo gazteen bizimodu tradizionalari alternatibak eskaintzeko» sartu zen Gazte Asanbladan. Hainbat ekintza antolatzen dituzte, «feminismoa, ekologismoa, autogestioa...» ardatz dituztenak, «baina zalantzarik gabe, garrantzitsuenak Ernadi Rock da». Ez da esku hartzen duen elkarte bakarra, «kultur eta politika arloan, bertze bi elkartetan ere bago: batetik, Together delakoan, Euskal Herrian gazteak behar bezala egituratzeko sorturiko gazteen adarrean; eta bertzetik, 'Gure Esku Dago' ren baitan sorturiko Aunitz Eskuetan taldean, jendea bizitza pribatutik kanpo, espazio publikoan ere murgiltzeko eta demokrazia eredu parte-hartzaileagoa sustatzeko helburuz egiten dugu lan». Batetik bertzerara ibiliagatik, «sobera bestazea lea» izaki, ziur herriko tradizioaren ardatz diren inauterietako saltsaren erdian izanen dela. Ea ondotik, ametsa betetzera bidean, Taiwan edo Indonesia ezagutzeko aukerarik sortzen zaizun!

LESAKA

San Anton Eguna

Urtarrilaren 21ean Endara auzoan.

Nafarroako Trikitixa Jaialdia

Urtarrilaren 27an 17:30ean Harriondoa Kultur Etxean.

Inauteriak

ERATSUN

Inauteriak

Urtarrilaren 12tik 14ra.

ANIZ

Inauteriak

Urtarrilaren 20an.

BERROETA

Inauteriak

Urtarrilaren 27an.

LEITZA

Inauteriak

Urtarrilaren 20tik 24ra.

AURTITZ, ITUREN ETA ZUBIETA

Inauteriak

Urtarrilaren 29an eta 30ean eta otsailaren 3an eta 4an.

SUNBILLA

Inauteriak

Urtarrilaren 28tik 30era.

ARANTZA

Inauteriak

Otsailaren 1etik 3ra.

IGANTZI

Inauteriak

Otsailaren 2an eta 3an.

Kirol hitzorduak

BERA

Mendiaren Eguna

Urtarrilaren 13an 15:30ean binakakako kronoigoera.

BAZTAN

Baztango emakumezkoen frontenis txapelketa

Urtarrilaren 13tik aitzinera astebururo, Erratzu, Lekaroz, Arraioz eta Oronozko frontoietan.

ETXEBIZITZAK**salgai**

ELIZONDO. Akulegi ka-
rrikan 2 logelako pisua
salgai. Prezioa: 55.000
euro. ☎646 774117.

ITUREN. Hainbat neurri-
tako apartamentuak ha-
gitz prezio interesgarrian
salgai. ☎948 451337 /
667 275013.

ANZABAL**INMOBILIARIA****BAZTAN, BIDASOA,
ULTZAMA eta
IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak,
partzelak, baserriak,
bordak, lokal komertzia-
lak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta
BIDASOA alderdian**
- Eskaintzagarri base-
rriak, bordak eta
lurak behar ditugu.

URDAZUBI
- Etxe berri bat salgai,
moleztatua. 2000
m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE
- **Aukera:** 102 m²ko
pisua salgai. Egoera
oso onean dago. 3
logela, jangela, egon-
gela, 2 komun, suka-
le moleztatua eta
17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
anzabal@anzabal.com

ETXEBIZITZAK**errentan emateko**

BERA. Bidasoa karrika
5. zenbakian, pisua erren-
tan emateko. 2 logela, 2
komun, sukaldea, egon-
gela eta trastelekua. Igo-
gailua eta garajeko ma-
rrarekin. ☎680 549808.

BERA. Duplexa errentan
emateko. Berria, oso argi-
tsua eta haundia. Kapri-
txora dekoratua. Garajea
hartzeko aukera. ☎637
915158/ 630 457347.

**MERKATU TTIKIA****948 63 54 58****info@ttipi.eus** edo **erran.eus**

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK**errentan hartzeko**

DONEZTEBE edo **ELI-
ZONDO**n familia batek
(4 lagun) pisua errentan
hartuko luke. ☎680
103542.

GARAJEAK/LOKALAK**salgai**

BERA. Agerra auzoan,
32 eta 25 m²ko lur azpi-
ko bi garaje salgai. ☎660
854411.

**GARAJEAK/LOKALAK****errentan emateko**

LESACA. Bittiria karri-
kan, lurpeko aparkalekua
errentan emateko. ☎636
847510.

LANA**eskaintzak**

BERA. Eskulaneke klase-
ak emateko pertsona ba-
ten bila ari dira: patch-
work, bolilloak, gantxilloa,
puntua... ☎678 855252.

ELIZONDO. Bidegain
arraindegian berehala la-
nean hasteko prest da-
goen langilea behar du-
te. Lan finkoa, astearte-
tik larunbatera goizez ari-
tzeko. Ezinbertzekoa da
gida-baimena izatea. In-
teresatuak deitu, denda-
ra joan edo curriculum
bidali: [info@pescadosbi-
degain.com](mailto:info@pescadosbidegain.com). ☎606
585163 / 948 580496.

BERA. Ibardinen, suka-
ledean lan egiteko perso-
na bat behar dute, aste-
buruetan eta besta egu-
netan aritzeko. Bidali
curriculum: [bentagorria
@hotmail.com](mailto:bentagorria@hotmail.com) helbidera
edo deitu. ☎948 630939.

LANA**eskariak**

Mutil batek **edozertan
lan** eginen luke, baita ba-
serrian eta aziendekin ere.
☎631 876901.

Gizonezkoa **lan bila**, **adi-
nekoak zaintzeko** inter-
no bezala edo orduka. Fi-
sioterapiako ikasketak di-
tuen eta esperientzia
zaintza arloan. ☎612
421818.

Gizonezkoa lan bila. Adi-
nekoak zaintzen interno
moduan edo orduka,
edota ganaduarekin lan
egiteko prest. Esperien-
tzia adinekoak zaintzen
baita ganaduarekin ere.
☎622 015725.

Adinekoak zaintzeko, in-
terna edo orduka, suka-
dari laguntzaile edo zer-
bitzari lanetarako **lan bi-
la**. Esperientziaduna eta
arduratsua. ☎606
330200.

Neska **lan bila**. Adineko-
ak interna moduan edo
orduka zaintzeko, hau-
rrak zaindu eta garbiki-
ta lanetarako interesatua.
☎644 963709.

Lekarozen bizi den Ma-
drilgo emakumea **lan bila**.

**Administraritzak ikaske-
tak** dituen eta experien-
tzia haundia alor horre-
tan. Administari, ostala-
ritzako langile, saltzaile,
haur edo adinekoen zain-
tzaile edota garbiketan
aritzeko interesatua.
Frantses maila altua eta
ingelese eta euskara mai-
la ertaina. ☎676 256975.

Gizonezkoa **lan bila**, adi-
nekoak interno moduan
edo orduka zaintzen, erai-
kuntzan edota ganadu-
arekin lan egiteko. Adi-
nekoak zaintzen eta ga-
naduarekin esperientzia-
duna. ☎644 471128.

**Umeak zaintzen espe-
rientziadun** neska **lan bi-
la**. Bi urteko experien-
tzia zenbait Haur Es-
koletan, baita udan ze-
har haurren zainketan ere.
Urtariletik aurrera ume-
ren bat zaintzea nahi iza-
nez gero, deitu. ☎675
336624.

LANA**klase-partikularrak**

LESACA. Klase partiku-
larrak ematen ditut: mate-
matika, fisika, kimika, in-
gelesa, hizkuntza... uni-
bertsitate maila arte. Tal-
de murriztuak. Esperien-
tzia zabala klase partiku-
larrak ematen. ☎605
762880 (Aitor).

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(abenduaeren 15etik 22ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 43 €

Zerri gizena
1,028€ kiloak.

Zerramak:
0,560 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/k Kanal

Extra 4,35

1.koa 4,13

2.koa 3,93

Urruxak: €/k Kanal

Extra 4,37

1.koa 4,23

2.koa 3,83

Oharra: Prezioak 180-220
Kg. kanalean pisatzen du-
ten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

uruxak 160,00

idixkoak 200,00

Aretze nabarrak:

uruxak 140,00

idixkoak 185,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,29/3,39

Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 8,50/9,10

8-10 kilokoak: 6,70/7,40

MOTORRAK salgai

Golf V. 2.0FSI 150 zaldi-koa salgai. 159.000 kilometro. 2004ko azaroan erositako. IAT-ITV pasatu berria eta olio eta filtroak aldatu berriak. Beti garajea gordea. Hagitz egoera onean. 620 700964 / 661 845053.



Renault clio 70 cv salgai. Egoera arras onean. IAT-ITVa pasatu berria. 152.000 km. 2006koa. 3.500 euro. 680 530135.



ANIMALIAK salgai


12 sasi **ardi** eta **aharia** saltzeko. Deitu eguerdi-

an edo gauez. 948 514179 (Juan Mari).

Suitzar arrazako lau urteko **behia** salgai. Ernari dago. 634 412761.

ANIMALIAK oparitzeko

Bi hilabeteko **txakur emea** oparitzeko. Ama labrador arrazakoa. 616 884699.



Bi hilabeteko **hiru ardi txakur** eme oparitzeko. 948 510224.



ANIMALIAK galdu-aurkituak

IGANTZI. Yorkshire arrazako zakurra aurkitu dute. Lepoko eta lazo ber-

deak eta kaskabel gorria ditu. 686 341297.

ANIMALIAK denetarik

100 ardirendako ganbela bere atrapaderarekin salgai, moduloka. Tokiz aldatzeko erraza, berri-berria. 948 581039.




DENETARIK salerosketak

ARANTZA. Taxi plaza salgai. 617 296458.

Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,73 metro x 34 cmko neurria. Forma borobila. 948 585036.

LG **telebista** salgai: 37



SANTESTEBAN TAILERRAK
Estreintu gabea!
KM 0

19.100€*

KADJAR TECH-ROAD
DCI 110 CV 6 abiadura, llantak, aparkatzeko radara

12.100€*

CLIO GRAND TOUR DYNAMIQUE
1.5 DCI 90 CV nabigatz. llantak, aparkatzeko radara kamarakin.

13.900€*

MEGANE ZEN DCI 110 CV
Nabigatzailea, llantak, aparkatzeko radara, larru sintetikoa

* Sustapen finantzieroei lotuak

Leitzako errepidea **DONEZTEBE**
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

pulgada, mandoa eta USB, SLOT, HDMI, RGB IN, AV1-AV2, audio eta bideo irteerekin. Sony definizio altuko **multimedia aparatua** ere salgai: DVD, disko gogorra eta HDMI, AV1-AV2, audio eta bideo irteerekin. Dis-ko gogorrean eta DVD-

KATEA BIKE
2. eskuko bizikletak

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
kateabera@telefonica.net

an grabatzeko aukera. 300 euro. 610 385867.

BERA. Segui markako egurrezko tximeneta salgai. 12Kw-koa, 70 cm-ko zabalera eta kristalezko atearekin. Prezioa: 200 euro. 644 733083.

Atera
TTIPI TXARTELA
hemen
probextu aukera!



Erabili
Ttipi txartela
pegatina
hau ikusten
duzun
denda eta
zerbitzuetan

PLAZAN BAZAN

KIROLDEGIAN

Itxurak itxura, zati hauetatik batzuk ez dagozkio kiroldegiko irudiari.
Zeintzuk dira?



Hartz itxurako bi panpin daude bertan. Ikusten al dituzu? Eta pinguinoa?

DOMINO ZATIA

INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak




MARIPURTZIL

PELLOZIRI



MOTROILOA



Pertsonak alde batera utzita, zenbat animalia
ikusten dituzu irudi honetan?

TORTILLA

Zein da Pelloziriren itzal zuzena?



urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,50€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekia; 4) erran.eus bitartez



ENAITZ GOÑI
IGUZKIAGIRREK
abenduaren 24an 7 urte
bete ditu.
Zorionak eta
7 muxu haundi!



OIHAN ETA LANDER ZABALETA
MERINOK abenduaren 29an eta
urtarrilaren 19an 3 eta 5 urte
beteko dituzte. Urte askoz eta
ongi-ongi pasa Leitza eta
Doneztebeko familiaren partetik.



NAIKARI ALTZURI MINDEGIAK
urtarrilaren 12an 3 urte beteko
ditu. Aunitz urtez eta hiru muxu
haundi familia guztiaren partetik,
berexiki Leiane ahizparen partetik.



Goizuetako LOREA SALDIAS
MAKAZAGAK 8 urte bete ditu
abenduaren 31n. Zorionak
Goizueta eta Iturengo familien
partetik!!



ENAITZ AGESTA PETRIRENAK
abenduaren 29an 5 urte bete ditu.
Zorionak gure txapeldunari!
Prestatu afari goxoa izokin
honekin! Berako ataxi, atta, ama
eta berexiki bere arreba Izameren
partetik.



Aunitz urtez Arraiozko **OINATZ**
ARRAZTOA AGUERREBERERI
abenduaren 15ean 2 urte bete
dituelako. Muxu haundi bat familia
guztiaren partetik, berexiki Aiora
arrebaren partetik!



Legasako KOLDOK
abenduaren 31n 11 urte
bete ditu.
Tarta on batekin
ospatzea
espero dut.
Zorionak!



Elko, Nevada MICHELE IGOAK
23 urte bete ditu abenduaren
26an. Zorionak Lesakako
familiaren partetik. Muxu haundi
bat. Kisses for you.




IRAIDE eta GARAINA IRIARTE
PETRIRENA gure etxeko printzesitek
urtarrilaren 19an 9 urte beteko
dituzte. Aunitz aunitz urtez Berako
osaba-izeba, lehengusu eta
Sunbillako atautxi-amaxiak,
izeba-osabak, eta nola ez atta eta
amaren partetik. Egun polit-polita
pasatzea espero dugu. Muxuak.



Sunbillako IRAIDE eta GARAINA
IRIARTE PETRIRENAK urtarilaren
19an 9 urte beteko dituzte.
Aunitz urtez Berako eta Sunbillako
familiaren partetik eta berexiki bere
lehengusu Ibaireren partetik. Ongi
pasa eguna lehengusinak. Denok
elkarrekin ospatuko dugu.
Muxuak.



Leitzako JARE, NAHIA eta MADDI
OLANO GARMENDIA etxeko sorginek
3 urte beteko dituzte urtarilaren
19an. Musu handi bat familia
osoaren partetik!



Igantziko **JON**
ARANGUREN
Irigoienek 5 urte
beteko ditu urta-
rilaren 14an. Zo-
rionak Igantziko
familia eta bere-
ziki Haizea arre-
baren partetik.




KULTURKARI

DISEINU GRAFIKOA | PUBLIZITATEA

T. 948 635 458 | www.kulturkari.com

LOGOTIPOAK | KARTELAK | ARGITALPENAK | EGUTEGIAK | BOLETOAK
OROITGARRIAK | TXARTELAK | ORRI MUTUAK | POLTSAK
ESTILO-GIDALIBURUAK | LONAK | BINILOAK...



Eman KOLEOREA mundu grisari!



Ttapi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

700 aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Gabonetako zozketak

- 1. saria**
Errigora produktuak,
liburuak eta musika sorta bat
Jose Fco. Iriarte Antxotena | ARIZKUN
- 2. saria**
Errigora produktuak,
liburuak eta musika sorta bat
Miriam Bengoetxea Aranburu | ETXALAR
- 3. saria**
Liburuak eta musika sorta bat
Antonio Henandorena Etxepare | LEGASA

2 tiket

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com

2 sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEA
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera

DONOSTIAKO AQUARIUM
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es

2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com

Kamiseta bat

BAGA-BIGA
www.baga-biga.eus

3 liburu

LI BU RU AK



Jack Destripatzailearen arrastoa
Kilimanjaroko diamantea
Heriotza zuriz jantzita

ibaizabal
www.ibaizabal.com

LA GUN TZAI LEAK





BIZIKLETEN SALMENTA

ETA KONPONKETA

GIMNASTIKA ETA

FITNESS MAKINAK

bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA | T. 948 631 218 | kateabera@telefonica.net



Bizikletak

Arropak

Oinetakoak

Osagarriak

Tailerra



ORBEA



CONDOR



SCOTT

BH



TREK